




FASE ESPEZIFIKOA

ARTEAREN HISTORIA





Modulua

ARTEAREN HISTORIA

Unibertsitaterako sarbidea: 25 urtetik gorakoentzat

Gutxi gorabeherako iraupena: 90 ordu



AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA ETA HELBURUAK
2. EDUKIAK
 1. MULTZOA: ARTEA GIZA ADIERAZPIDE GISA
 2. MULTZOA:
 - ARTE KLASIKOA ANTZINAROAN
 - ARTEA ERDI AROAN
 - ARTEA MUNDU GARAIKIDEAN

Ezagutza-adierazleak



1. AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Artearen Historiaren helburua da arte-kreazioak ulertu, aztertu, interpretatu, sistematizatu eta balioestea, hain zuzen ere, espazio eta denbora-tarte zehatz batean, zerbait komunikatzeko helburuarekin egindako kreazio originalak diren neurrian.

Ekintza artistikoa erabat ulertzeko, ikuspegi historikoa eta artistikoa uztartuko ditugu, artelana osatzen duten osagaien nahiz artelana inguratzen duten egoera historikoen irakurketa egin ahal izateko.

Multzo honetako edukiak bi multzotan daude banatuak. Lehenengo multzoko edukiek ekintza artistikoaren alderdi orokorrak lantzen dituzte eta ikasleak hiztegi teknikoak jasotzea nahi da, artea bere adierazpide ezberdinetan ulertu ahal izateko. Bigarren multzoak arte-estilo nagusienek izandako bilakaera historikoen eta banaketa espazialaren jarraipen kronologikoa egiten du, eta arte-estilo horiek Iberiar Penintsulan eta Euskal Herrian izan dituzten adierazpideak ere aztertzen ditu.

Artearen Historiaren diziplinak ikuspegi metodologiko asko ezagutu ditu historian zehar -artisten biografiak, estilo eta formen historia, eduki ikonografiko eta ikonologikoak, artearen soziologia...- guztiak ere baliagarriak. Ikuspegi horiek guztiak izanik, artelanaren azterketa formala egiteaz gain, artelan horren iturburu den testuinguru historikoa ere ezagutuko dugu.

Artearen Historiaren multzo honen bitartez, ikasleek honako gaitasun hauek har ditzatela nahi da:

- Ekintza artistikoaren oinarriko kontzeptuak ezagutu eta ulertzea: artearen teoria eta funtzioa, arte-estilo eta mugimenduen sorrera eta zabaltzea.
- Ikus-mintzairaren elementu nagusiak zein diren eta horien artean sortzen diren harremanak ezagutu eta bereiztea.
- Agerpen modu ezberdinetan, artelanak burutzeko jarraitu beharreko prozedura nagusiak zein diren ezagutzea.
- Termino artistikoen hiztegi zehatza jasotzea.
- Arteak eta artistek gizarte-eredu ezberdinetan betetzen duten funtzioa zein den ulertzea.
- Zabalduen dauden arte estiloen ezaugarri orokorrak eta ezaugarri bereizleak zein diren ezagutzea, antzematea eta bereiztea, bai eta estilo, eskola eta egile bakoitzaren agerpen modu ohikoenak, artista adierazgarrienak eta lan garrantzitsuenak zein diren ere.
- Europan, Espainian eta Euskal Herrian dauden arte-museo eta arte-bilduma garrantzitsuenen kokapen geografikoa zein den ezagutzea, baita gordetzen dituzten lan garrantzitsuenetarikoz batzuk zein diren jakitea ere.

Modulu hau eskainiko duen prestakuntza-prozesu orotan, elkarren artean lotuko diren “*edukiak*” eskaini beharko dira, “*ezagutza-adierazleak*” ezarritako mailaren eta hedaduraren arabera. Ebaluazio-irizpideak dira horiek, eta eduki-bloke bakoitzeko gai edo ariketarik funtsezkoenak biltzen dituztenez, edonork jakin beharrekoak edo jakinarazi beharrekoak hartzen dituzte.

2. EDUKIAK

1. MULTZOA: ARTEA GIZA ADIERAZPIDE GISA

- Arte estiloak.
- Arteak bete dituen gizarte-funtzioak historian. Arteak eta artistek gizartean izan duten papera, eta euren bilakaera prozesu eta testuinguru artistiko ezberdinetan.
- Ikus-mintzaira: materialak, prozedura teknikoak eta elementu formalak arkitekturan, eskulturan eta pinturan.
- Ikonografia eta ikonologia: Gaien eta lanen tratamendua eta esanahia.



2. MULTZOA:

• ARTE KLASIKOA ANTZINAROAN

a) Arte grekoa

- Arkitektura: Ezaugarri orokorrak. Greziako tenplua. Hiru ordena klasikoak: doriarra, joniarra, korintoarra.
- Eskultura: Aldi arkaikoa. Eskultura klasikoa. Helenismoa. Eskulturagile ospetsuenak: Miron, Polikleto eta Fidias. Praxiteles, Escopas eta Lisipo.

Irudiak:

Anavissos-eko Kourosa. .
Fidias: *Panatenea jaietako prozesioa*.
Ictinos eta Calicrates: *Partenoia*
Polikleto: *Doriforoa*.
Praxiteles: *Hermes*
Lisipo: *Apoxiomenos*
Laokoonte eta bere semeak
Atenea Nike tenplua.

b) Arte erromatarra

- Greziarren herentzia arkitekturan: Tenplua.
- Arkitektura baliagarria: Hirigintza eta Herri Lanak.
- Eskultura erromatarra: Erretratua eta erliebe historikoa.
- Hispania erromatarra

Irudiak:

Etxe bateko atrioa. *Compluvium*
Flaviako koliseoa edo anfiteatroa
Damaskoko Apolodoro: *Trajanoren zutabea*
Panteoia. Agrippa/Adriano
Prima Portako Augustoren erretratua
Santa Sabina in Aventino basilika
Segoviako akueduktua

• ARTEA ERDI AROAN

a) Artea erlijio handien zerbitzura. Kristautasuna eta Islama.

- Arte paleokristaua: Katakombak. Basilika paleokristaua.
- Bizantziar artea: Santa Sofia kupularen garapena. Bizantziar mosaikoa.
- Arte islamiarra Iberiar Penintsulan (Al Andalus). Kordobako meskita.
- Arte prerromanikoa iberiar penintsulan: bisigotikoa eta asturiarra.

Irudiak:

Traleseko Artemio eta Miletoko Isidoro: *Konstantinoplako Santa Sofia*
Kordobako Meskita

b) Arte erromanikoa

- Arte erromanikoa: ezaugarri orokorrak. Frantzia eta Iberiar Penintsula.
- Arkitektura Erromanikoa. Erromesaldirako elizak eta monasterioak



- Eskultura erromanikoa: Portada handiak.
- Pintura erromanikoa Espainian. Tahull eta San Isidoro de Leon.
- Arte erromanikoa Euskal Herrian

Irudiak:

Saint Pierre de Moissac klaustroaren tinpanoa.

San Clemente de Tahull elizaren absidea.

Leireko monasterioaren kriptak.

Frómista.

Konpostelako Santiagoko katedralaren oinplanoa

Monasterio erromaniko baten ikuspegi orokorra.

c) Arte gotikoa.

- Arte gotikoa: ezaugarri orokorrak. Frantzia eta Iberiar Penintsula.
- Arkitektura gotikoa. Katedrala eta bere egitura.
- Eskultura gotikoa. Alderdi orokorrak.
- Pintura gotikoa: Italiako trecentoak: Giotto. XV. mendeko Flandeseko primitiboak: Van Eyck sendia
- Arte gotikoa Euskal Herrian

Irudiak:

Saint Denis abadiaren eliza

Leongo katedrala.

Giotto: Urrezko atearen aurreko besarkada.

Jan van Eyck: Arnolfini senar-emazteak

• **ARTEA ARO MODERNOAN**

a) Errenazimendua.

- Errenazimendua Frantzia, Herbeheretan eta Alemanian.
- Italiako errenazimendua: Arkitektura eta eskultura. Brunelleschi eta Alberti; Ghiberti eta Donatello.
- Italiako errenazimendua: Pintura: Masaccio, Botticelli, Leonardo, Migel Anjel eta Tiziano.
- Espainiako errenazimendua: Arkitektura: Platereskoa. El Escorial-eko lana. Pintura: El Greco.
- Errenazimendua Euskal Herrian.

Irudiak:

Filippo Brunelleschi: *San Lorenzoren eliza*

Donatello: *San Jorge*

Brunelleschi: *Santa Maria del Fioreren kupula.*

Masaccio: *Tributua. Paradisutik kanporatzea.*

Alberti: *Santa Maria Novellaren fatxada.*

Botticelli: *Udaberria*

Migel Anjel: *Medicitarren hil-kapera, Moises*

Leonardo da Vinci: *Azken afaria*

Tiziano: *Danae urrezko euria jasotzen*

Oñatiko Unibertsitatea. *Kanpoaldea.*

El Greco: *Orgazeko kondearen hilobiratzea*



b) Barrokoa

- Barrokoa Italian: Bernini eta Borromini. Caravaggio.
- Barrokoa Flandes eta Holandan: Rubens, Rembrandt eta Vermeer.
- Barrokoa Frantzia eta Ingalaterran.
- Pintura barrokoa Espainian.
- Barrokoa Euskal Herrian
- Rokokoa: ezaugarri orokorrak.

Irudiak:

Peter Paulus Rubens: Gurutzetik eraistea

Rembrandt: Gaueko erronda

Gian Lorenzo Bernini: Apolo eta Dafne.

Velazquez: Meninak

Jan Vermeer: Delft-eko ikuspegia

Francesco Borromini: San Carlino alle Quattro Fontane

Loiolako Basilika. Kanpoaldea.

• ARTEA MUNDU GARAIKIDEAN

a) Pintura XIX. mendean

- Goya eta pintura neoklasikoa.
- Erromantizismoa: Géricault.
- Errealismoa. Courber eta Millet.
- Impresionismoa: Manet eta Monet.
- Postimpresionistak; Van Gogh eta Cézanne.
- Espresionismoa.

Irudiak:

Jacques-Louis David: Horazioen juramentua

F. de Goya: "Los fusilamientos del 3 de mayo"

T. Géricault: Medusaren baltsa

Turner: Temerario ontzia dike lehorra eramana

Millet: Angelusa

G. Courbert: Estudioa.

Eduard Manet: Le déjeuner sur l'herbe

Claude Monet: Impression. Soleil levant

Van Gogh: Eguzkiloreak

Paul Cézanne: Karta jokalaria

Edvard Munch: Garrasia

b) Eskultura eta arkitektura XIX. eta XX. mendeetan.

- Tradizioa Canovarengan. Berrikuntza Rodinengan.
- Neoklasizismotik burdinaren arkitekturara.
- XX. mendeko arkitektura: Modernismoa: Gaudi. Arrazionalismoa: Le Corbusier. Organizismoa: Wright. Deskonstruktibismoa.
- Arkitektura eta hirigintza Euskal Herrian.
- Euskal eskulturgintza XX. mendean.

Irudiak:

Antoni Gaudi: La Pedrera, La Sagrada Familia

Frank Lloyd Wright: Kaufman etxea

Le Corbusier: Villa Savoy

Auguste Rodin: Musua, Pentsalaria

Frank Gehry: Guggenheim Museoa.



Bizkaiko Zubia. Portugalete
Donostiako udaletxea. Kanpoaldea
Haizearen orrazia. Chillida
Apostoluen frisoa. (Arantzazu) Oteiza

c) XX. mendeko abangoardiak pinturan.

- Fauvismoa: Matisse
- Abstrakzioaren hasiera: Kandinsky.
- Kubismoa. Picasso.
- Surrealismoa: Dalí eta Miro.
- Espresionismo abstraktua.
- Pop Art. Hiperrealismoa. Azken joerak.
- Euskal pintura XX. mendean.

Irudiak:

W. Kandinsky: *Inprobisazioa 28*

Picasso: *Guernica*

Picasso: *Les Femmes d'Alger (O. J. M.)*

Joan Miró: *“El bello pájaro que descifra lo desconocido a una pareja de enamorados”*

Jackson Pollock: *Zutabe urdinak.*

La merienda. El marino vasco. Zubiaurre

Layadores. A. Arteta

Europako, Espainiako eta Euskal Herriko Arte Museo eta Bilduma nagusiak.



EZAGUTZA ADIERAZLEAK

1. *Artearen buruerak bizi izan dituen aldaketak eta une historiko ezberdinetan bete dituen funtzioak aztertu eta alderatzea.*
2. *Agerpen artistikoak testuinguru historiko eta kulturalarekin lotzea.*
3. *Aro berean garatu daitezkeen korrante eta eredu estetikoan aniztasuna ezagutzea.*
4. *Mendebaldeko artearen ezaugarri orokorrak eta ezaugarri bereizleak zein diren ezagutzea, bereiztea eta zerrendatzea, bai eta estilo, eskola eta egile bakoitzaren agerpen-modu ohikoena, artista adierazgarrienak eta lan garrantzitsuenak zein diren jakitea ere.*
5. *Artelana osatzen duten elementuak zehaztasunez eta egokia den arte-mintzairaz aztertzea: materia, forma, esanahia, testuinguru historikoa etab.*
6. *Zehaztasun eta doitasunez erabiltzea ikusmen-arteak berezkoa duen terminologia zehatza.*
7. *Mendebaldeko artearen estilo eta artista nagusien artelan garrantzitsuak identifikatu eta kronologikoki eta espazialki kokatzea, ezaugarri adierazgarrienez baliatuz arte-estilo jakin batean sailkatzeko; halaber artelan horiek beste aldi, estilo, egile eta abarrei dagozkien artelan adierazgarriekin alderatzea.*
8. *Denboran zehar ikusmen-kulturak erabili dituen kode ikonografiko eta ikonologiko nagusiak interpretatzea.*
9. *Europar, Espainiar eta Euskal Herrian dauden arte-museo eta arte-bilduma garrantzitsuenak zein diren eta non dauden jakitea, baita museo eta bilduma horiek erakusten dituzten lan garrantzitsuenak zein diren identifikatzea ere.*
10. *Artelana iruzkintzeko erabiltzen den metodoan balioespen objektiboa nahiz ikaslearena den balioespen pertsonala erabiltzea, betiere argitasunez eta zuzentasunez adierazita.*



EDUKI BLOKEEN EZAGUTZA ADIERAZLEEI DAGOZKIEN ARIKETEN ADIBIDEAK

MULTZOA	EZAGUTZA ADIERAZLEAK	ARIKETAK
1	1. Artearen buruerak bizi izan dituen aldaketak eta une historiko ezberdinetan bete dituen funtzioak aztertu eta alderatzea.	1, 9, 18, 20, 22
2	2. Agerpen artistikoak testuinguru historiko eta kulturalarekin lotzea.	5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 13, 15, 16, 17, 18, 19, 21, 22, 23, 25, 26
	3. Aro berean garatu daitezkeen korrante eta eredu estetikoan aniztasuna ezagutzea.	2, 3, 4, 5, 8, 9, 10, 11, 13, 16, 17, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26
	4. Mendebaldeko artearen ezaugarri orokorrak eta ezaugarri bereizleak zein diren ezagutzea, bereiztea eta zerrendatzea, bai eta estilo, eskola eta egile bakoitzaren agerpen-modu ohikoenak, artista adierazgarrienak eta lan garrantzitsuenak zein diren jakitea ere.	2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 13, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26
	5. Artelana osatzen duten elementuak zehaztasunez eta egokia den arte-mintzairaz aztertzea: materia, forma, esanahia, testuinguru historikoa etab.	5, 6, 7, 11, 13, 16, 19, 21, 23
	6. Zehaztasun eta doitasunez erabiltzea ikusmen-arteak berezkoa duen terminologia zehatza.	4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 16, 19, 21, 22, 23, 26
	7. Mendebaldeko artearen estilo eta artista nagusien artelan garrantzitsuak identifikatu eta kronologikoki eta espazialki kokatzea, ezaugarri adierazgarrienez baliatuz arte-estilo jakin batean sailkatzeko; halaber artelan horiek beste aldi, estilo, egile eta abarrei dagozkien artelan adierazgarriekin alderatzea.	2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 13, 15, 16, 17, 18, 19, 21, 22, 23, 24, 25, 26
	8. Denboran zehar ikusmen-kulturak erabili dituen kode ikonografiko eta ikonologiko nagusiak interpretatzea.	1, 5, 9, 11, 13, 15, 16, 19, 22, 23, 26
	9. Europan, Espainian eta Euskal Herrian dauden arte-museo eta arte-bilduma garrantzitsuenak zein diren eta non dauden jakitea, baita museo eta bilduma horiek erakusten dituzten lan garrantzitsuenak zein diren identifikatzea ere.	27
	10. Artelana iruzkintzeko erabiltzen den metodoan balioespen objektiboa nahiz ikaslearena den balioespen pertsonala erabiltzea, betiere argitasunez eta zuzentasunez adierazita.	13, 16, 19, 23



1. Irakurri arretaz testua eta erantzun beheko galderak:
 - a) Definitu termino hauek: “arte”, “artelana”, “artearen historia”.
 - b) Zer da ikonografia? Zertan datza artelan baten azterketa ikonografikoaren metodoak?
 - c) Zein dira ikonologiaren helburuak? Zein ezberdintasun dago metodo ikonologikoaren eta ikonografikoaren artean?
 - d) Bi metodoak bateraezinak al dira? Arrazoitu erantzuna.

IKONOGRAFIA ETA IKONOLOGIA

“Jatorri grekoa duten terminoak dira (“eikon” hitzetik datoz, eta irudia, grafia, irudikapena, logia, hitzaldia esan nahi du). Artearen Historiaren enborrak dira, eta artelanetan irudikatutako gaiak deskribatzeaz eta interpretatzeaz arduratzen dira.
(...)

Artearen Historiari dagokionez, ikerketa ikonografikoak XVI. eta XVII. mendeetan hasi ziren eta XVIII. mendean garatu ziren batez ere, batik bat ikonografia sakratuaren esparruan, irudi paleokristauei nahiz Erdi Aroko irudiei zegokienez zegoen ikaragarrizko ondarea sistematikoki aztertu zelako, bai eta ondare horrek arte erromatar berantiarrekin eta bizantziarrekin zuen lotura aztertu zelako ere. Gaiak eta irudiak kategoriaka sailkatu ziren (pertsonifikazioak, alegoriak, sinboloak) eta, horrela, errepertorioak eta bildumak sortu ziren, eta arte profanoaren ikonografia esparrura ere iritsi ziren (ezinbestekoak dira L. Reau, E. Male eta G. de Tervarent egileenak). Irudiaren deskribapen xume bat egitetik irudi horren historia aztertzeko jauzia egin zen, eta ikonografia funtsezko ikerkuntza bihurtu zen Artearen Historiarentzat.

Aby Warburg egilearen eskutik bultzada berri bat eta garapen metodologiko berriak etorri ziren. Kritikan nagusi zen formalismoaren kontra, Warburg-ek lanaren esanahira zuzendu zuen interes guztia, irudien “edukian” oinarritu zen, eta irudiek ematen dituzten testigantzak iturri historiko gisa baliatu zituen garai bateko kultura oro har berreraikitzeko. Ikerketa ikonografiko tradizionalaren esparrua zabaldu, eta Warburgek “forma artistikoaren interpretazio kulturala” egitea lortu zuen (Sclosser), eta horri deitu zion, hain zuzen ere, “ikonologia” (1912). (...)

Panosfsky-k formulatu zituen ikonologiaren helburuak maila teorikoan: ziur zen forma orok adierazten dituela bere balore sinbolikoak, eta interpretazio ikonologikoak artelanaren gaiaren “barne-esanahia edo edukia” erdiesteko balio zuela ikusi zuen, herri baten, garai baten, klase baten barneko jarrera zein den erakusten baitu. Premisa horietatik abiatuta, Gombrich-ek bereizi egin du testuinguru kultural jakin bati lotutako inplikazio literario eta filosofikoek artelan batean duten esanahi objektiboa, eta ikonologiari onartu dio bata bestearekin lotzearen funtzioa”.

Hainbat egile. “Enciclopedia de Arte”. Garzanti-Ediciones B. Bartzelona, 1991.



2. Identifikatu eskultura grekoaren aldi ezberdinei dagozkien lan hauek. Esan zein izan zen egilea eta eman gutxi gorabeherako kronologia-data.




A




B




C



D



E



F




G



H





3. Aipatu Grezia klasikoko lau eskultore eta horietako bakoitzaren lan batzuk.
4. Erromako etxebizitza. Esan zein diren eta komentatu Erromako etxebizitza mota nagusiak. Behean Erromako "domus" baten eskema dago, esan zein diren bertako zati eta gela garrantzitsuenak eta zein zen horietako bakoitzaren funtzioa:



- a) *Vestibulum*
- b) *Fauces*
- c) *Atrium*
- d) *Compluvium*
- e) *Impluvium*
- f) *Tablinum*
- g) *Hainbat gela: cubicula, culina, triclinium, penus, latrina, lararium*
- h) *Tabernae*
- i) *Peristylum*

5. Beheko irudiak obra baten kanpoaldeko, barnealdeko eta oinplanoko bistak dira. Begira itzazu arretaz eta erantzun egiten zaizkizun galderak.
 - a) Esan lana zein estilotakoa den eta zein den gutxi gorabeherako data.
 - b) Azaldu espazioaren antolaketa eta elementu osagaiak.
 - c) Zein izan ziren eraikinaren funtzioak? Nork agindu zuen egitera? Zein gizarte motari zegokion?
 - d) Zer nolako eragina izan du ondorengo arkitekturan?








6. Aipatu labur-labur Ravennako San Vital basilikaren oinplanoak dituen ezaugarriak aipagarrienak. VI. mendea




7. Identifikatu eta komentatu beheko irudiak, eraikin berarenak dira.






8. Aipatu labur-labur, Valladoliden, San Cebrián de Mazoteko San Cipriano elizak dituen altxaera eta oinplanoaren ezaugarriak aipagarriak. Identifikatu irudi honetan geziez markatutako arkitektura-elementuak.



9. Landu "ARKITEKTURA ERROMANIKOA" gaia, izenburu hauei jarraiki:

- Erromanikoaren testuinguru historikoa.
- Arkitektura erromanikoaren ezaugarri orokorrak.
- Erromanikoaren agerpen nagusiak Espainian eta Euskal Herrian.

10. Komentatu honako oinplano hau:



San Martin de Fromista elizaren oinplanoa.



11. Aztertu eta komentatu labur-labur honako irudi hau:



Andra Mari Zuria. Vitoria-Gasteiz

12. Definitu pintura erromanikoarekin lotutako termino hauek:

- a) Pantokrator
- b) Tetramorfos
- c) Mandorla
- d) Freskoa
- e) Tenple



13. Aztertu eta komentatu honako irudi hau:

- a) Sailkatu lana, esan zein den egilea, estiloa eta gutxi gorabeherako kronologia-data.
- b) Egin lanaren azterketa formal eta ikonografikoa.
- c) Aztertu zein testuinguru historiko-artistikoa burutu zen.



14. Definitu errenazimentu garaiko artearekin lotutako termino hauek:

- a) Esfumato
- b) Perspektiba
- c) Argi-ilun
- d) Kuxineztadura



15. Pintura barrokoa Espainian:

- Identifikatu beheko lanak.
- Zein garaitan burutu ziren? Zein dira ekoizpen artistikoaren gune nagusiak? Aipatu pintore aipagarri batzuk.
- Azaldu zein den atzerriko eskolek pintura horretan izan duten eragina.
- Zein dira gai nagusiak? Zergatik aipatzen dira behin eta berriz gai horietako batzuk?



A



B



C



D



16. Komentatu beheko irudia:



JAN VERMEER: *DELFT-EKO IKUSPEGIA*. 1662
MAURITSHUIS, HAGA.

17. Iruzkin laburra: Goya

- Esan zein garaitan eta non egin zuen lan. Esan bere lanak zein mugimendu edo estilotakoak diren edota zein mugimendu edo estiloren aitzindari izan ziren.
- Izan al zuen Velazquezek eragina Goyarengan? Arrazoitu erantzuna.
- Egon al zen harremanik Goyaren eta Espainiako Ilustrazioaren artean? Arrazoitu erantzuna.




Vicente Lópèz. *Francisco Jose de Goya*. 1826. Pradoko Museoa.



18. Osatu beheko kontzeptu-mapa eta kokatu beheko terminoak dagozkien tokian:

- Erakusketa Unibertsal Handiak
- Zementua, mende amaieran
- Arkitektura-Ingeniaritza
- Gizarte-behar berriak

ARKITEKTURA XIX. MENDEAN





19. Egin beheko irudiaren iruzkina:

- Sailkatu lana, esan zein den egilea, estiloa eta gutxi gorabehera zein garaitakoa den.
- Aipatu ezaugarri nagusiak
- Zein da lanaren jatorria? Nola hartu eta balioetsi zuen jendeak?



20. Irakurri arretaz testua eta erantzun beheko galderak:

- Azaldu, testuari jarraiki, nola hatzen dituen jendeak haustura edo berrikuntza artistikoak.
- Zein izan ziren inpresionistek egindako ekarpenak?
- Aipatu lau pintore inpresionista edo neoinpresionista, bakoitzaren ezaugarriak eta lan garrantzitsuenak.

“Orain dela lau urte zenbait gazte ezezagunek Le Barc de Boutteville eskuzabal eta ausartaren etxean erakusketa gisa oihal batzuk jartzeko aukera izan zuten eta, garai hartan gertatu ohi zen moduan, ikusleak erakusketa hartaz trufatzen ziren. Erakusketa hartan baziren neoinpresionista batzuk, dagoeneko ulertuagoak jendartean, eta baita eskola zaharreko inpresionistak ere, dohain paregabe eta txundigarria bazuten ere, burlak berdin-berdin jasotzen zituztenak. Bada, gazte horiek, 25 urte dituztela!, pozez ikusten dute, eta hori ikusteko zortea dute, nola toki guztietan arretaz begiratzen dituzten, atseginez, nola irriak geroz eta arraragoak bihurtu diren Le Barcen etxean; nola erosten dituzten artearen maitaleek euren lanak; nola tratatzen dituzten kritikoek maisu pintore zaharrak balira bezala; eta nola pintore gazteagoek, eta baita zaharragoek ere, euren estiloa imitatzen saiatzen diren”.

Maurice Denis: “Pintore inpresionisten eta sinbolisten bederatzigarren erakusketarako hitzaurrea.”
París, 1895.



21. Egin, labur-labur, irudiaren iruzkina:

- a) Saikatu lana, esan zein den egilea, mugimendua edo estiloa eta gutxi gorabeherako kronologia-data.
- b) Aztertu dituen ezaugarri nagusiak formari dagokionez.
- c) Esan zein diren mugimendu hori sustatu zuen gizarte-klasearen ezaugarri nagusiak.



22. Landu gai hau: “KUBISMOA: ezaugarriak eta ordezkari nagusiak”.

23. Saikatu, aztertu eta komentatu honako irudi hau:



Andre Mariaren eliza, Ronchamp.



24. Sailkatu lan hauek eta euren egileak “ismo” batean. Definitu labur-labur mugimendu bakoitza.




Auguste Renoir: "Moulin de la Galette."



"Campbell Zopa". Andy Warhol



Henri Matisse: "Pastoral".



"Konposaketa gorritz, horiz eta urdinez". Mondrian



"Corpus Hipercupicus"
Salvador Dalí



"Les Demoiselles d'Avignon"
Pablo Picasso





25. Lotu "A" zutabeko terminoak "B" zutabekoekin.


A	B
Vatikanoko San Pedro	"Le moulin de la Galette"
Picasso	Arkitektura barrokoa
G. Eiffel	Bizantziar artea
Claude Monet	Inpresionismoa.
Renoir	"Garrasia"
Munch	Kubismoa
Santa Sofia basilika	Burdinaren arkitektura

26. Eskulturaren euskal eskola. XX. mendea:


- Zein dira argazkietako bi artistak?
- Lotu itzazu irudietako eskulturekin.
- Egin iruzkin bat egile hauekako bakoitzaren lanari buruz.



"Haizearen orrazia"



"Kutxa metafisikoa"



“Arantzazuko apostoluen frisoa”



“Gure aitaren etxea”.



“Berlin”



“Esferaren desokupazioaren
aldaera oboidea”



27. Munduko arte-bildumarik garrantzitsuenak beheko koadroan aipatzen diren museoetan daude. Lotu bakoitza kokaleku duen hiriarekin eta aipatu, labur-labur, zein motatako lanak dituzten.

MUNDUKO MUSEO HANDIAK		KOKAPENA
1	Louvre	
2	Ermitage	
3	Prado	
4	Uffizitarren galeria	
5	National Gallery. W.	
6	National Gallery. L.	
7	Metropolitan Museum. N.Y.	
8	Vatikanoko Museoak	
9	Museo d'Orsay	
10	Rijksmuseum	
11	Guggenheim Bilduma	
12	Kunsthistorisches Museum, V.	
13	The British Museum	



EDUKI BLOKEEN EZAGUTZA ADIERAZLEEI DAGOZKIEN ARIKETEN ADIBIDEEN ERANTZUNAK

1. Irakurri arretaz testua eta erantzun beheko galderak:
 - a) Definitu termino hauek: “arte”, “artelana”, “artearen historia”.
 - b) Zer da ikonografia? Zertan datza artelan baten azterketa ikonografikoaren metodoak?
 - c) Zein dira ikonologiaren helburuak? Zein ezberdintasun dago metodo ikonologikoaren eta ikonografikoaren artean?
 - d) Bi metodoak bateraezinak al dira? Arrazoitu erantzuna.

IKONOGRAFIA ETA IKONOLOGIA

“Jatorri grekoa duten terminoak dira (“eikon” hitzetik datoz, eta irudia, grafia, irudikapena, logia, hitzaldia esan nahi du). Artearen Historiaren enborrak dira, eta artelanetan irudikatutako gaiak deskribatzeaz eta interpretatzeaz arduratzen dira. (...)

Artearen Historiari dagokionez, ikerketa ikonografikoak XVI. eta XVII. mendeetan hasi ziren eta XVIII. mendean garatu ziren batez ere, batik bat ikonografia sakratuaren esparruan, irudi paleokristauei nahiz Erdi Aroko irudiei zegokienez zegoen ikaragarriko ondarea sistematikoki aztertu zelako, bai eta ondare horrek arte erromatar berantiarrekin eta bizantziarrekin zuen lotura aztertu zelako ere. Gaiak eta irudiak kategoriaka sailkatu ziren (pertsonifikazioak, alegoriak, sinboloak) eta, horrela, errepertorioak eta bildumak sortu ziren, eta arte profanoaren ikonografiara ere zabaldu ziren (ezinbestekoak dira L. Reau, E. Male eta G. de Tervarent egileenak). Irudiaren deskribapen xume bat egitetik irudi horren historia aztertzeko jautzia egin zen, eta ikonografia funtsezko ikerkuntza bihurtu zen Artearen Historiantzat.

Aby Warburg egilearen eskutik bultzada berri bat eta garapen metodologiko berriak etorri ziren. Kritikan nagusi zen formalismoaren kontra, Warburg-ek lanaren esanahiera zuzendu zuen interes guztia, irudien “edukian” oinarritu zen, eta irudiek ematen dituzten testigantzak iturri historiko gisa baliatu zituen garai bateko kultura oro har berreraikitzeke. Ikerketa ikonografiko tradizionalaren esparrua zabaldu, eta Warburgek “forma artistikoaren interpretazio kulturala” egitea lortu zuen (Sclosser), eta horri deitu zion, hain zuzen ere, “ikonologia” (1912). (...)

Panosfsky-k formulatu zituen ikonologiaren helburuak maila teorikoan: ziur zen forma orok adierazten dituela bere balore sinbolikoak, eta interpretazio ikonologikoak artelanaren gaiaren “barne-esanahia edo edukia” erdiesteko balio zuela ikusi zuen, herri baten, garai baten, klase baten barneko jarrera zein den erakusten baitu. Premisa horietatik abiatuta, Gombrich-ek bereizi egin du testuinguru kultural jakin bati lotutako inplikazio literario eta filosofikoek artelan batean duten esanahi objektiboa, eta ikonologiari onartu dio bata besteraekin lotzearen funtzioa”.

HAINBAT EGILE. “Enciclopedia de Arte”. Garzanti-Ediciones B. Bartzelona, 1991.



Erantzuna:

a) Definitu termino hauek: “arte”, “artelana”, “artearen historia”.

- **Artea:** Artearen definizioak eztabaida ugari sortu du historian zehar. Aldi bakoitzak bere definizioa erabili du. Garrantzia eta eragin handiena izan duen definizioa artea edertasunarekin eta formarekin lotzen duen hori izan da, baina gaur egun artearen kontzeptua asko aldatu da eta oso zaila da definizio bat ematea. Artea ez da behaketa hutsa, beti da hausnarketa. Arteaz gozatzeko, pentsatu eta ulertu egin behar du, bai artea egiten duenak bai artea behatzen duenak. Horregatik esaten da artea adimenari dagokion prozesu bat dela. Esan daiteke giza espirituaren adierazpena dela, balore kultural eta ideologikoak adieraztea helburu, eta kolore horiek konposaketa sinbolikoetan eta prozedura tekniko batzuei jarraiki islatzen direnez, jarduera artistiko ezberdinak sortzen dira.
- **Artelana:** Artistak baliabide teknikoak erabiliz ezartzen dituen zeinu-kodeen eta lengoaien bitartez adierazten duen ekoizpen oro da (arkitektonikoa, eskultura, pintura...). Produktu orijinal eta artifiziala da, helburu jakin batekin egina, nola estetikoak, erabilpenerako edo komunikaziorako, eta eragina du gizartean.
- **Artearen historia:** Sorkuntza artistiko guztiak, horien testuinguru historikoa eta egoera espazial zein denborazkoak aztertzen dituen zientzia da. Artelanak aztertzen ditu, sorleku duten kulturaren eta gizartearen berezko elementu gisa.

b) Zer da ikonografia? Zertan datza artelan baten azterketa ikonografikoaren metodoak?

Ikonografia hitzan bertan aurkitzen dugu esanahiaren erroa. Hitz grekoetatik dator: “eikon” (irudia) eta “graphien” (deskribapena). Beraz, lehenik eta behin, esango genuke irudiak deskribatzeaz arduratzen dela. *Ikonografia zientzia bat da, eta irudizko gaien ezaugarri diren zeinuen eta atributuen jatorria, osaera eta garapena aztertzen ditu, hala nola, santuak, mitologiako pertsonaiak eta abarrenak.*

Ikerketa—metodo honekin, irudiak deskribatu, identifikatu eta sailkatu ondoren, horien jatorria eta bilakaera bilatu behar da. Horretarako, hainbat iturri erabili behar dira. Hainbatetan, artista berak deskribatzen du lanaren gaia. Beste hainbatetan komitenteak (lana enkargatzen duenak) agintzen du zer eta nola adierazi. Edonola ere, artxibategietako ikerketa-lana funtsezkoa da. Artistak inspirazio-iturri eduki izan litzakeen literatura-iturriak ere garrantzitsuak dira. Iturri horien irakurketak zehatza izan behar du, ezin diegu guk nahi dugun zentzua eman, baizik eta bere garaian benetan zuen zentzu hori eman behar diegu.

c) Zein dira ikonologiaren helburuak? Zein ezberdintasun dago metodo ikonologikoaren eta ikonografikoaren artean?

Ikonologiaren helburua da, artelanaren eta beraren interpretazioaren barne-esanahia edo eduki sakona deskifratzea. Ikonografia funtsean deskriptiboa den bitartean, ikonologiak sakondu egiten du, irudien azken esanahira iritsi arte. Helburua lana sortu den garaiko esanahi historikoa, filosofikoa, soziala...bilatzea da. Egilerik adierazgarrienak Panofsky, Gombrich eta Wittkower dira.

Panofskyren arabera, lan bat aztertzeko, hiru urrats eman behar dira:

1. Analisi preikonografikoa: Lana esparru estilistikoan aztertzen da, eta formek adierazten duten garai artistikoan kokatzen da.
2. Analisi ikonografikoa: Lanarekin batera datozen elementuak aztertzen dira, atributu nahiz ezaugarriak, metodo honek ezarritako jarraibideen arabera.
3. Analisi ikonologikoa: Lana testuinguru kulturean aztertzen du, helburua lana burutu zen garaiko esanahia ulertzea baita.



d) Bi metodoak bateraezinak al dira? Arrazoitu erantzuna.

Argi dago ikonologiak ikonografia izan behar duela oinarri azterketa-gai den irudia identifikatu eta sailkatzeko, lanaren jatorria nahiz denboran zehar izan duen bilakaera zein den ikusteko. Dena den, Ikonografia metodo bat izan daiteke bere horretan.

Bi korrante metodologikoak elkarren osagarri dira, artelana objektu estetiko bat baita (eta horregatik balioetsi behar da alderdi formala) eta, era berean, garai sozial eta kultural jakin bateko emaitza.

Bien bitartez hobekiago azter daiteke ekoizpen artistikoa.

2. Identifikatu eskultura grekoaren aldi ezberdinei dagozkien lan hauek. Esan zein izan zen egilea eta eman gutxi gorabeherako kronologia-data.




A




B




C



D



E



F



G



H

Erantzuna:

- A: Anabysos-eko Kouros-a.** Garai arkaikoa. K.a 540-515. 194 cm. Marmola. Arkeologia Museo Nazionala, Atenas.
- B: Miloren Venus.** Garai helenistikoa. K.a 200. 204 cm. Marmola. Louvre Museoa, Paris.
- C: Lisiporen Apoxiomenos.** Garai klasikoa: IV. mendea. K.a 325-300. Marmola. 205 cm. Lisiporen brontze baten kopia erromatarra. Vatikanoko Museoa, Erroma.
- D: Mironen Diskoboloa.** Garai klasikoa: V. mendea. K.a 460-540. Kopia erromatarra marmolean. 155 cm. Vatikanoko Museoa, Erroma.
- E: Praxitelesen Hermes Dionisos haurrekin.** Garai klasikoa: IV. mendea. K.a 350-330. 213 cm. Marmola. Arkeologia Museoa, Olinpia.
- F: Poliketoren Doriforoa.** Garai klasikoa: V. mendea. K.a 450-440. 199 cm. Marmola. Brontzeko orijinal baten kopia erromatarra. Napoliko Museo Nazionala.
- G: Fidias: Panatenea jaietako prozesioa.** Garai klasikoa: V. mendea. K.a 442-438. Marmola. Altuera: 102 cm. Partenoiares ekialdeko frisoaren erliebea. Louvre Museoa, Paris.
- H: Agesandro, Atenodoro eta Polidoro: Laokoonte eta bere semeak.** Garai helenistikoa. K. a I. mendea. III. mendeko edota K.o II. mendeko kopia erromatarra. Marmola. 242 cm. Vatikanoko Museoa, Erroma.

3. Aipatu Grezia klasikoko lau eskultore eta horietako bakoitzaren lan batzuk.


Erantzuna:

- **Miron:** *Diskoboloa* lanaren egilea; lan horretan bikaintasunez garatu zuen anatomia mugimenduan. Irudiak jokoen heroia erakusten digu, diskoa jaurtitzerako unean. Tentsio eta kontzentrazio une bat irudikatzen badu ere, aurpegiak ez du esfortzuen zantzurik agertzen.
- **Polikleto:** Eskulturari buruzko lehen tratatua idatzi zuen. Edertasuna zuen helburutzat, giza gorputzaren proportzioen idealismoa oinarri hartuta. Ereduaren arabera, gorputzak burua zazpi aldiz izan behar zuen. Ospea *Doriforo* lanarekin lortu zuen, lantza bat daraman gazte bat, eta *Diadumenos* lanarekin, garaiaren diadema jartzen ari den gaztea.
- **Fidias:** Grezia klasikoko eskultore ospetsuena izan zen eta berarekin iritsi zen klasizismoa maila gorenera. Berari zor zaizkio Partenoiko eskulturak, ideal klasiko gisa erabili izan direnak beti.




- **Scopas:** Bere lanetan sentimendu tragikoa azpimarratu zuen, aho erdi irekiak, gorputzak espiralean eta begi eroriak. Hala ikusten da Halikarnasoko mausoleorako egindako eskulturetan.

4. Erromako etxebizitza. Esan zein diren eta komentatu Erromako etxebizitza mota nagusiak. Behean Erromako "domus" baten eskema dago, esan zein diren bertako zati eta gela garrantzitsuenak eta zein zen horietako bakoitzaren funtzioa:



- a) *Vestibulum*
- b) *Fauces*
- c) *Atrium*
- d) *Compluvium*
- e) *Impluvium*
- f) *Tablinum*
- g) *Hainbat gela: cubicula, culina, triclinium, penus, latrina, lararium*
- h) *Tabernae*
- i) *Peristylum*

Erantzuna:



Etxebizitza erromatarra etruriarretik dator. Hirian bi etxebizitza mota dira nagusi: *domus* delakoak, familia bakarrarentzako etxebizitza, dirudunentzat, eta *insulae* delakoak, erdi eta behe-mailako klasearentzako etxebizitza-blokeak, pisuetan banatuak (gutxi gora behera bost). Horretaz gain, landa guneko etxebizitzak edo *villae* delakoak daude, egungo landetxeen parekoak.

1. **Domus.** Oso aberatsak zirenak bakarrik izan zezaketen hauetako bat. Hauek dira zatiak eta gelak:
 - **Vestibulum (a):** Kanpoaldetik atariraino zihoan pasilloa.
 - **Fauces (b):** pasilloaren jarraipena.



- **Atrium (c)**: barne-patioa da, eta *compluvium (d)* izeneko irekiera du sabaian, eta bat zetorren lurrean zegoen harraska batekin, Impluvium (e) izenekoarekin, horren helburua euria biltzea zen.

- **Tablinum (f)**: gela handi honetan pater familias edo etxeko jabeak bere dokumentuak gordetzen zituen.

- atrium-aren inguruan **hainbat gela zeuden (g)**. Logelak edo *cubicula* delakoak; jangela edo *triclinium*; jakitokia edo *penus*; konketa edo *latrina*; etxeko jainkoentzako kapera (*Lares* delakoentzat) edo *lararium*.

- **Tabernae (h)**: Kalera ematen zuten denda edo biltoki moduan erabilitako gunekak.



- **Peristylum (i)**: Arkupedun lorategia, lorez edertua, estatuekin, ur-putzuarekin eta jauzi-iturriarekin.

2. **Insulae** edo alokairuko etxeak patio ireki laukizuzen baten inguruan biltzen ziren etxe-blokeak ziren. Pisu bat baino gehiago izaten zuten eta beheko pisua denda eta tailerretarako izaten zen. Lehenengo pisuetan erdi-mailako jendea bizi zen eta goiko pisuetan, txikiagoak ziren horietan, herri xehea.

3. **Villae** edo abeltzaintza ustiapenerako zentroak hiriaren kanpoaldean kokatzen ziren, behin betiko edo behin-behineko bizitoki gisa. *Domus* etxeen egitura antzekoa zuten, baina handiagoak ziren eta garrantzi handiagoa ematen zioten lorategiari.

5. **Beheko irudiak obra baten kanpoaldeko, barnealdeko eta oinplanoko bistak dira. Begira itzazu arretaz eta erantzun egiten zaizkizun galderak.**

- Esan lana zein estilotakoa den eta zein den gutxi gorabeherako data.
- Azaldu espazioaren antolaketa eta elementu osagaiak.
- Zein izan ziren eraikinaren funtzioak? Nork agindu zuen egitera? Zein gizarte motari zegokion?
- Zer nolako eragina izan du ondorengo arkitekturan?



Erantzuna:

a) **Esan lana zein estilotakoa den eta zein den gutxi gorabeherako data.**

Agriparen partenoia. Arte klasiko erromatarra da, Agripa kontsularen aginduz eraiki zen, Augustoren agintaritzapean, K.a 27. urtean. Hainbat suteran ostean, berriztatu egin zuten Adrianoren garaian, II. mendearen hasieran; lan hori Damaskoko Apolodoro arkitektoari eman zioten.



b) Azaldu espazioaren antolaketa eta elementu osagaiak.

Espazioa homogenea da eta kupula handi batek bateratzen du. Kupula hori bere osotasunean ikus daiteke barnealdean eta, kanpoaldean, kupula horren heren bat baino ez da ageri, gainerako danbor zilindriko batek estaltzen baitu. Oinplanoa areto zirkular bat da, aurrean gorputz arkupedun bat du, eta biak lotzeko, barnealdean nitxo handiak dituzten bi gorputz luze daude. Kupula semiesferikoa edo laranja erdikoa da, abiaburuan 43,20 metroko diametroa du eta tamaina txikitzen zaio erdigunera joan ahala, han irekiera borobil bat baitu (idi-begia) 8,92 metrokoa; puntu horixe da barneko argiztapen-puntu bakarra. Hormigoiez betetako adreiluz egindako nerbioz eta deskarga-arkuz dago eraikia, oinarriko horma zirkular mardularen gainean; horma hori marmol plakez dago indartua barnealdean eta exedrak irekitzen dira, hots, tarte semirzirkularrak (horma-hobiak) eta angeluzuzenak (nitxoak), ziurrenik jainkoen irudiak jartzeko erabiliak. Areto zirkular handi horren aurrean arkupedun gorputz bat dago, porfidozko zortzi zutabe indartsuk osatutako fatxada batekin eta isurki bikoitzeko frontoi batekin. Atari edo pronaos hori 16 zutabek osatzen dute, zortzi fatxadan eta zortzi barneko bi lerroetan, horrela, hiru nabe sortzen dira, erdialdekoa ertzetakoak baino zabalagoa eta luzeagoa.

- Euskarri diren elementuak: Horma, oso mardula, eta zortzi pilare simulatu hormaren lodieran. Zutabeak ere badira, baina atarikoek bakarrik betetzen dute eustearen funtzioa, horma-hobieie atxikitako zutabeak egiturazkoak baino, apaingarriak baitira.
- Eutsitako elementuak: Deskarga-arkuak (arku-buruan eraikiak, arkuaren hormaren pisuaz libratzeko), honela daude estaliak: Bi isurkiko estalkiz atarian (frontoian), kanoi-gangaz sarrerako zatian eta kupula semiesferiko edo laranja erdikoa gorputz nagusian.

c) Zein izan ziren eraikinaren funtzioak? Nork agindu zuen egitera? Zein gizarte motari zegokion?

Hasiera batean Agripa Augustoren suhiaren mausoleo gisa eraiki zen, baina Adrianoren berriztapenaren ostean jainko guztientzako babesleku bihurtu zen (horixe baita, azken batean, panteoia). Erromatar inperioak botere gehien zuen garaikoa da, gizartea estatuaren inguruan hertsiki egituratua zegoen garaikoa. Antzinaroko eraikin bikainenetako bat da, eta hala onartzen da Urbano VIII. Aita Santuak idaztera agindutako idazki batean "Aedificium toto orbe celeberrimum". Panteoiaren proportzioak eta egitura erromatarrek erlijioaz zuten ideien adierazgarri dira, hau da, partenoia jainko guztien babeslekua da, bertan, Erroman zeuden sineskeren mota guztiak zentralizatu nahi zituzten, zeruaren eta luraren arteko batasun gisa: "Behea goia da, goia behea den bezala".

d) Zer nolako eragina izan du ondorengo arkitekturan?

Pantenoien bikainena da, arkitekturaren kontzeptu modernoan agertzen duen lehen eraikina dela, alegia, arkitektura "barne espazioak sortzeko arte" gisa. Eraikitzearen armonia eta inteligentziaren laburpen perfektua da obra hau, eta gizakia ez zen inoiz, Errenazimentu arte, hamalau mende geroago, hain obra erraldoia burutzera ausartu. Pantenoia eraikitzearen teknika inspirazio-bide izan da garai ezberdinetako arkitektoentzat: Brunelleschi errenazentistarentzat Florentziako Santa Maria del Fiore kupula eraikitzearen, Migel Anjelentzat Vatikanoko San Pedro eraikitzearen. Arte bizantziarrean ere izan zuen eragina, barrokoan eta neoklasikoan (San Pablo Londonen eta Kapitolioa Ipar Amerikan).



6. Aipatu labur-labur Ravennako San Vital basilikaren oinplanoak dituen ezaugarriak aipagarriak. VI. mendea



Erantzuna:

Ravennako San Vital basilikak bizantziar estilo tipikoari jarraitzen dio eta VI. mendearen lehen erdian eraiki zen.



Kanpo-egitura konposatua eta armoniatsua da, hormari atxikitako zutabe-errenka batez banatua, eta zutabe horien artean leiho handiak irekitzen dira.

San Vital basilikaren oinplanoa oktagonala da, eta elementu guztiak erdiguneko kupula handiaren inguruan antolatzen dira. Kupula hori bi zutabe-pisuz osatutako zortzi kaperatxo semizirkularren gainean dago. Kupularen inguruan deambulatorio zabal bat dago. Tenpluaren oinean nartex angeluzuzena nabarmentzen da.

Barnealdea mosaiko ugariz dago apaindua.



7. Identifikatu eta komentatu beheko irudiak, eraikin berarenak dira.



Erantzuna:

- Ezkerreko irudia Kordobako meskitaren oinplanoarena da. Arte islamiarraren eraikin garrantzitsuenetariko bat da meskita hau. Kalifa-garaian eraiki zen, Omeya dinastiaren agintaritzapean.

Musulmanak 711. urtean iritsi ziren Iberiar Penintsulara, Afrika iparraldeko arabiar eta bereber talde batek Gibraltarreko itsasartea gurutzatu zuenean. Lurraldearen konkista 716. urtean burutu zen eta hitzarmenak sinatu zirelako lortu zen, hein batean. Hispania musulmana valierri gisa antolatu zen lehenik eta, ondoren, Bagdaden mendeko emirerri gisa. 756. urtean, *Abd-al-Rahman I.ak emir independente aldarrikatu zuen bere burua*, Omeya dinastiatik bizirik irten zen bakarra zen, Abasidas dinastiak Bagdadetik kanporatu ostean. Kordoba ezarri zuen hiriburu gisa, Estatu berri bat osatu zuen eta, data horretatik aurrea, Al Andalus-eko garapen artistiko eta kultural handia hasi zen. 785. urtean *Abd-al-Rahman I* Kordobako meskita eraikitzen hasi zen (1), ondorengoek handitu egin zuten.

Meskita da arkitektura islamiarraren eraikinik adierazgarriena. Bertan biltzen dira fededunak ostiraletan taldean otoitz egiteko eta, era berean, justizia egiten zen eta Korana irakasten zen. Meskitak Mahoma profetaren etxean du inspirazioa eta beti ditu zati berberak:

- Patioa, bertan dago iturria, garbitzeko, eta dorrea edo *minarete* delakoa, *alminar* ere deitua, hortik deitzen die muezinak fededunei otoitz egitera.
- Otoitz egiteko aretoa (*haram*), zutabe edo habeekin eta La Meca hiri santura begira.
- *Madraza* delakoa, Korana ikasteko eskola.

Era berean, otoitz egiteko aretoan, hainbat zati bereizten dira:

- *Qibla*, barneko horma (ariketako planoan, goialdekoa), horren aurrean jartzen ziren fededunak otoitz egiten.
- *Mihrab* edo kaperera.
- *Maqsura*, mihrab kaperaren aurreko esparrua, kalifa eta agintarientzako dena.
- *Mimbar* edo pulpituia, bertatik zuzentzen da otoitza.

Abd-al-Rahmán I.ak Kordobako meskitan altxa zuen otoitz egiteko aretoa quiblarri perpendikularrak zitzaizkion tamaina berbereko hamaika nabetan zegoen antolatua (nabe horiek eraikinaren oinplanoan ikus daitezke), eta eraikinari uniformetasun sentzazioa ematen diote.



Aipagarriak dira gainjarrita dauden arku bikoitzeko euskarriak, erdi-puntuakoak goialdean eta kateatutako ferra-arkuak behealdean (euskarrian sartuak), horrela barnealdean altura eta argitasun gehiago lortzeko. Nola batzuek nola besteek dobela zuri eta gorriak txandakatzen dituzte. Zutabeek ez dute harroinik, fustea leuna da eta kapitela akanto-hostoez dago apaindua. Azken horiei gainjarrita rollo-modiloak.

IX. mendearen erdialdean, *Abd-al-Rahman II.ak*, hiria handitu egin zenez, Kordobako meskita handitu zuen, horrela, nabeak hegoaldera luzatu zituen, quibla bota eta zortzi zati berri gehitu zituen (eraikinaren oinplanoan ikus daiteke, 2 zenbakiaz azaltzen da).

Ondoren, *Abd-al-Rahman III.ak* (946. urtean) patioa handitu zuen (5).

Hurrengo erreforma X. mendearen bigarren erdian etorri zen, Al-Hakam II.aren garaian, (3) nabeak hegoaldera luzatzen jarraitu zuen eta hainbat galloidun kupula eraiki zituen.

Azkenik, X. mendearen amaieran, *Almanzor-ek* (4) ekialdera handitu zuen meskita eta mirhab ez zen erdigunean gelditu, horrela ikusten da ariketa honetako oinplanoaren marrazkian.


XVI. mendean estilo gotikoko katedrala eraiki zen meskitaren barnean, bai eta minarete zaharra inguratzen duen kanpandorrea ere. Aldaketa horiek ez dira ariketan aurkeztutako oinplanoan ageri.

Meskitak, beste eraikin hispanomusulmandarrak bezala, nolabait pobrea da eraikitzeko erabilitako materialei dagokienez. Dena den, barnealdeko dekorazioaren edertasuna kontrajartzen zaio horri, igeltsua, marmolezko edo alabastrozko taulak, mosaikoak, apainduraz jositako idazkiak etab.


Bestalde, arkitekto musulmanek eraikin aurreislamiarretako zutabeak erabiltzen zituzten, horregatik, Kordobako meskitak dituen euskarriak oso anitzak dira.

- Eskuineko irudia Kordobako meskitako mirhab-eko ganga da. Nerbioz osatutako ganga islamiar berezia da, arkuak elkar gurutzatzen dira eta erdigunean espazio ortogonal bat uzten dute, gailonekin betetzen dena. Gisa horretako gangak erabiltzen hastea, hots, nerbioak puntan batzen ez zaizkionak, musulmanek ekarritako berrikuntza arkitektoniko garrantzitsu bat izan zen. Horrela, nerbioak elkar gurutzatzen dira, forma poligonala osatuz eta erdigunea libre utziz.


Gangaren apaindurak eragin bizantziar sendoa erakusten du. Apaingarri epigrafiko eta landarezkoak ditu, batez ere. **D** Dekorazioaren aberastasunari, efektu dinamikoa sorraraziz, hispanomusulmanek eraikitzeko erabilitako materialen txirotasuna kontrajartzen zaio.



8. Aipatu labur-labur, Valladoliden, San Cebrián de Mazoteko San Cipriano elizak dituen altxaera eta oinplanoaren ezaugarriak aipagarrienak. Identifikatu irudi honetan geziez markatutako arkitektura-elementuak.



Erantzuna:





San Cebrian de Mazoteko San Cipriano eliza (Valladoiden) X. mendeko eliza mozarabiarra da, eta harlanduz eta harlangaitzez dago eraikia. Hiru nabedun basilika-oinplanoa du, eta nabeak zutabeen gainean eusten diren ferra-arkuez daude berezita. Zutabe horien kapitelak trepanuz daude landuak, korintoarrak dira eta X. mendearen lehen erdikoak dira, nahiz eta baten bat bisigodoa ere izan daitekeen eta, beraz, berrerabilia. Nabe nagusia horman irekitzen diren ferra-arkudun leihoez argizatzen da. Erdiko nabea tenkatutako armadura batek estaltzen du eta ertzetako nabeek isurki bakarreko estalkia dute. Ertzetako bi absideak ertz-ganga batez estaltzen dira eta abside nagusia galloi-gangaz. Elizaren oinean beste abside bat dago, liturgia mozarabiarrak kontrajarritako bi abside behar baitzuten.

9. Landu "ARKITEKTURA ERROMANIKOA" gaia, izenburu hauei jarraiki:

- a) Erromanikoaren testuinguru historikoa.
- b) Arkitektura erromanikoaren ezaugarri orokorrak.
- c) Erromanikoaren agerpen nagusiak Espainian eta Euskal Herrian.

Erantzuna:

a) Erromanikoaren testuinguru historikoa.

Arte erromanikoa nazioarteko bihurtuko den lehen Europako estilotzat hartzen da. XI, XII eta XIII. mendeetan garatu zen, tradizio erromatarren eta eragin aurre-erromatar eta bizantziarren arteko baturaren emaitza gisa.

XI. mendearen lehen herenean hasi zen, "milurteko terrorea" nagusi zen garaian, alegia, mundua milagarren urtean amaituko zela uste zenean. Data beldurgarria pasa zenean, lasaitasun egoerak Jainkoarekin nolabait zorretan zeudela sentitzea ekarri zuen, horrela bada, jarrera ona nagusitu zen elizarekiko eta kongregazio erlijiosoekiko, eta hainbat santutegi eraiki ziren.

Erdi Aroko mendeen hain bereizgarri diren erromesaldiei estuki lotutako artea da erromanikoa. Horregatik, ezinezkoa da arte Erromanikoa Erroma, Lur Saindua eta Conpostelako Santiago bezalako hirietara egindako erromesaldietatik bereiztea.

Donejakue bidea bihurtu zen erromes-bide garrantzitsuena. Baina ez zen fenomeno erlijioso hutsa izan; Donejakue bidea salgaien, pertsonen eta kulturen garraiobide garrantzitsua ere bihurtu zen.

Erromesak babestu behar ziren eta euren beharrei erantzun, horrela bada, Santiagorantz zihoazen bide nagusienetan askotariko eraikinak eraiki ziren. Horrela sortu ziren ibiltariak sendatzeko eta hartzeko lehen ospitaleak, aurretik zeuden hiriak garatu egin ziren eta berriak sortu ziren, eta berehala bihurtu ziren merkataritzarako eta bizitzeko gune.

Igoera ekonomiko hura gertatu zen une berean, Europa mendebaldeko erreinu kristauen sendotzea etorri zen, eta sistema feudala indartu zen, gizartea hiru taldetan banatzen zuela, horietako bakoitza dagokion funtzioarekin, ongi berezita: borroka egiten zutenak, otoitz egiten zutenak eta lan egiten zutenak.

Arkitektura erromanikoaren garapenean Frantziako Cluny monasterioko orden beneditarrak ezinbesteko papera bete zuen, oso modu aktiboan parte hartu baitzuen erromesaldiak antolatzen.



b) Arkitektura erromanikoaren ezaugarri orokorrak.

Arkitektura erromanikoak Europa osoan berberak diren ezaugarri batzuk ditu, baina eskualde bakoitzak berezkoak dituen ezaugarriak ere hartzen ditu.

1. **Materialak:** Hormak harlanduz eraikitzen dira. Ez da egur gehiagorik erabiliko, sute-arriskua dela eta. Kasuren batean marmola edo adreilua erabiliko da.

2. Eraikitze elementuak:

- **Estalkiak:** *Erdi-puntuko* arku eta *kanoi-ganga* erabiltzen dira. Kanoi-ganga arku semizirkularra luzatzen delako lortzen da. Ganga zati ezberdinetan banatzen da *parpain*-arkuen bitartez, kanpoko *kontrahormarekin* bat datozela. Sistema horri esker, gangak bere gain jasaten duen bultzada barreiatu egiten da eta eraikina erortzea saihesten da. Askotan ertz-ganga ere erabiltzen da, batez ere tenpluetako ertzetako nabeetan, eta absideetarako *labe-ganga*. Gurutzadura *kupulak* egon ohi dira, batzutan *tronpen* gainean eta besteetan *petxinen* gainean.

- **Euskarriak:** ohikoena *pilare konposatua* edo *gurutze formakoa* da, lau arku eutsi behar izatetik sortua, bi *parpain*-arku eta bi *arku-formero* hiru nabetakoa eraikinetan. Eraikin soilagoetan zutabeak daude. Ganga duen estalkiak horma sendoak eraikitze behartzen du. Ate eta leihoak turuta-arkudunak dira eta zutabeen gainean arkiboltak jartzen dira.

3. **Oinplanoak:** bi mota nagusi daude: *basilika-oinplanoa*, hiru nabeduna, eta *gurutze latindarrarena*. Azken hori erromesaldietako elizetan agertzen da, gurutzadura markatua du eta deambulatorio edo *girola* bat dute, hau da, burualdearen atzeko pasilloa, erromesek gurtza eten gabe erlikiak bisita ditzaten. *Absideak* semizirkularrak dira, kapera txiki erradial edo absidoloekin. Zenbaitetan erromesaldietarako elizek *tribuna* bat ere izaten dute, alboko nabeen gainean, nabe nagusiarekin tarteen bidez komunikatua, *triforia* osatuz. Tenplu mota honek *klaustroak* izaten ditu, erdi-puntuko arkuekin normalean *binakako zutabeen* gainean. Salbuespen gisa, oinplano poligonalak egon daitezke.

4. **Kanpoaldea:** Eliza erromanikoen kanpoaldean *kanpandorra* altxa ohi da, batzutan tenplutik kanpo, eta gurutzaduraren gainean dorre bat altxatzen da, *cimborrio* deitua.

5. **Motak:** arkitektura erlijiosoa nabarmen da zibila baino nagusiagoa. Arkitektura erlijiosoa bi mota nabarmentzen dira: *Eliza* eta *monasterioa*. Arkitektura zibilean bi mota hauek aurkitzen ditugu: *gaztelua*, defentsarako harrizko gotorlekua eta almenadun harresiekin; *jauregia* hirietan, nobleentzako edo elizako goi-karguentzako etxebizitza eta *harresiak*, Erdi Aroko hiri guztietan eraikiak defentsarako.

c) Arkitektura erromanikoa Espainian eta Euskal Herrian.

Kronologikoki bereizketa bat egin daiteke, "lehen erromanikoa" (X. mendearen amaiera-XI. mendearen lehen erdia, Katalunian) eta "erromaniko garbia" (XI. eta XII. Mendeak).

1. **Lehen erromaniko katalana:** X. mendearen amaieran Katalunian Italia iparraldean, Lonbardian, dagoen antzeko arkitektura sortuko da. Adierazgarriak dira *eliza txikiak*, basilika-oinplanoa dutenak, egurrezko sabai lauez estaliak, absideetan izan ezik, *harlanduz* eginiko hormekin -zakar zizelkatutako harri txikiz osatuak-, kanpoaldetik arkuez, lonbardi-bandaz eta *kanpandorrez* apainduak. Adibidea: *San Clemente de Tahull* (Lerida).

XI. mendean asko eraikiko da: Ezin aipatu gabe utzi *Ripolleko monasterioak*, zazpi absidetako burualdearekin eta gurutzadura handiarekin, eta *Rodako San Pedro*.



2. Donejakue bideko erromanikoa (XI. mendea): Erromes-bidearen bitartez erromaniko frantsesaren eraginak barneratuko dira. Bide honetan zehar lau eraikin altxa ziren, arte erromanikoaren zabaltzaile bihurtuak Penintsula osoan zehar:

- *Jakako katedrala*: 1054. urtean hasi zen eta Aragoiko Donejakue bideko obrarik garrantzitsuen da. Basilika-oinplanoa du, hiru abside semizirkular eta hiru nabe, gurutze formako pilareek eta zutabeek bereizita. Kanpoaldeko dekorazioan tipikoa da takeatua edo xakeztatua. Eragin handia izan zuen Aragoi eta Gaztelan.

- *San Martin de Fromista* (Palentzia). 1066. urte inguruan eraikia, hiru nabe ditu eta hiru abside, oinplanoan ez baina altueran nabarmentzen den gurutzadura, gurutze formako pilareak eta kanoi-gangadun estalkia. Bi dorre zirkular ditu fatxadan, erromaniko hispaniarraren berezkoak. Eliza honek eragin nabaria izan du Gaztelako lurretan.

- *Leongo San Isidoro Kolegiata*. Eliza bisigodo zahar baten gainean, lehenik eta behin kriptak edo *Panteon Real* delakoa eraiki zen. Ondoren, 1090. urtean, *Petrus Deustamben* maisuak basilika-oinplanoan eliza eraiki zuen, hiru nabeduna, gurutze formadun eta puntu-erdiko arku *peraltatuak* dituzten pilareen bitartez bereizitak. Gurutzadura gingil-arkuak daude, eragin islamiarra dutenak. Oinplano mota horrek Leongo elizetan eragin zuen.

- *Santiago de Compostelako katedrala*: obrarik adierazgarriena da eta erromesaldietako elizen eredu. 1075ean hasi ziren lanak, *Pedro Gelmirez* artzapezpikuak bultzatuta. Lehen arkitektoak, *Bernardo Zaharra* eta *Roberto maisua* frantsesak ziren. Beranduago *Esteban* maisu ospetsuak egingo du lan; *Mateo* maisuari zor zaio "*Portico de la Gloria*" fatxada egin izana XII. mende amaieran.

Ezaugarriak: *Gurutze latindarreko oinplanoa, hiru nabe luzetara eta hiru saiheska, girola eta bost absidolodun absidea, eta lau absidolo saiheska.*

Erdiko nabea estaliz kanoi-gangak daude, puntu-erdiko arku peraltatuen gainean; alboetako nabeek ertz-gangak dituzte. Pilareak gurutze formakoak dira, eta zutabe erdiak dituzte atxikiak. Gurutzadura zinborio dorre oktagonalek du tronpen gainean.

Galizian, Santiagoko katedralaren eraikuntzak eragin handia izan zuen inguruko eraikin guztietan.

Arkitektura erromanikoa Euskal Herrian

Erromanikoa Donejakue bidearen bitartez sartu zen Euskal Herrian.

Bideak eragin handia izan zuen Nafarroan, Donejakue bidearen zatirik garrantzitsuen Nafarroako Erreintutik igarotzen baitzen, Frantzia eta Europa iparraldetik etorrita. Bestalde, Nafarroako erregeek monasterio beneditarrak bultzatu eta babestu zituzten, eta arte erromanikoa zabaltzea sustatu zuten, eraikin erlijioso eta zibilak ugaritzeko bide eman baitzuten.

Araba eta Ipar Euskal Herria bide nagusitik nahiz bide nagusi horren eragin-esparrutik gertu zeudenez, bertan ere nabarmen garatu zen, aipatu estiloa, ordea, arte erromanikoa ia ez zen zabaltu Bizkaia eta Gipuzkoara, arte horren oso agerpen gutxi baitaude.

Nafarroan, estilo horren lehen agerpenetako bat *Leireko monasterioaren kriptak* da (1059). Dena den, Nafarroako erromanikoak XII. mendean ezagutu zuen loraldiaren punturik gorena. Garai hartako lanik garrantzitsuenak desagertutako Iruñako Katedrala da, Nafarroako Museoan gordetzen dira aztarnetako batzuk. Lizarran eraikin erromaniko asko dago: Arkitektura zibilari dagokionez, *Granadako dukeen jauregia* nabarmentzen da, eta arkitektura erlijiosoan *San Migel eliza* eta *San Pedro de la Rúa eliza* eta *honen fatxada*. Donejakue bidean jarraituz, orijinaltasunagatik nabarmentzen dira oinplano poligonaleko bi eliza: *Santa Maria de Eunate* eta *Santo Sepulcro de Torres del Rio*.


Lur-eremu honetatik kanpo baina Nafarroan Somport eta Jakatik datorren bidean, Zangozako *Santa Maria la Real* eliza nabarmentzen da, eta Nafarroako hegoaldean, Tudelako Katedrala, gotikorako trantsizio estilokoa.



Araban arte erromanikoa oso ugaria da, Nafarroa eta bide frantsesarekiko gertutasunagatik. Berandu hasiko den arte estiloa da (XIII. mendean), eta eskulturen aberastasuna eta dotorezia nabarmentzen da arkitektura bera baino. Badira tamaina eta ezaugarriengatik gainerakoen alboan nagusitu diren bi eraikin: *Estibalitzeko Santa Maria monasterioa* eta *Armentziako San Prudentzio basilika*.

Bizkaia eta Gipuzkoan arkitektura erromanikoak ez zuen berebiziko eraginik ezagutu. Iritsitakoa oso eskasa da eta, gainera, elementu arkitektoniko bakanak dira: Leihoak, portadak, zutabeak... Hauek elementu erromanikoak dituzten elizak Bizkaian: Abrisketako San Pedro (Arrigorriaga), Zumetzagako San Migel (Mungia), eta Guipuzkoan, San Juan Bautista (Albatzisketa), San Migel Arkangel (Idiazabal).

10. Komentatu honako oinplano hau:



San Martin de Fromista elizaren oinplanoa.

Erantzuna:

San Martin de Fromista Iberiar Penintsulako eraikin erromaniko garrantzitsuenetako bat da. 1100. urtean eraiki zen, Nafarroako Santxo Handia III.aren alargunak monasterio bat egin nahi baitzuen Donejakue bidearen zati horretan (Santxo Handia: 1004-1035). Egun ikusten den elizak zaharberritze lan handiak izan zituen 1896 eta 1904. urteen artean.

Irudian ikusten den moduan, hiru nabeko basilika-oinplanoa da, eta erdiko nabea alboetakoak baino zabalagoa eta altuagoa da. Gurutzadura du, nahiz eta hori ez den oinplanoan nabari, baizik eta altxaera planoan. Nabeak hiru absidetan amaitu arte luzatzen dira; hiru abside horietatik erdikoa, handiena, kapera nagusia da.

Nabeak txikiak dira, kanoi-gangaz daude estalirik eta parpain-arkuak dituzte. Gurutzadurak, ordea, tronpen gainean dagoen kupula semiesferiko bat du.

Burualdeko kaperek labe-gangak dituzte. Fatxada nagusiaren alde banatara bi dorre zilindriko daude eta, zinborio dorre oktagonarekin batera, elizaren horizontaltasuna hausten dute.

Oinplanoan hormen lodiera ere antzeman daiteke, kanpotik kontrahormekin daude sendotuak eta puntu-erdiko bao zabalak irekitzen dira.



11. Aztertu eta komentatu labur-labur honako irudi hau:



Andra Mari Zuria. Vitoria-Gasteiz

Erantzuna:

Andra Mari Zuria. Vitoria-Gasteiz

Irudi hau Gasteizko San Migel elizak gordetzen duen Andra Mari Zuria da. XV. mendeko eskultura gotiko ederra da, eta hiriko patroia da berau.

Ama Birjina eta haurrak osatzen duten bikotea errepertorio gotikoan behin eta berriz errepikatzen den gaietako bat da, eta garbi erakusten digu zer nolako bilakaera gertatzen den arte erromanikoaren zurruntasun eta hieratikotasunetik geroz eta atseginagoa den naturalismora, mende hauetako eskulturaren bereizgarria den horretara.

Gasteizko Andra Mari Zuria taillaketa polikromatu eder bat da. Ama birjina irudikatzen du, ezkerreko besoan harrotasunez haurra duela. Biek aurrera begiratzen dute; ez dago ama-semblea komunikaziorik, eta euren artean ez da amatasun harremanik nabari ere. Ama birjinak, Eva berria bailitzan, modu sinbolikoan eskaintzen du Salbamenaren fruitua. Horregatik esertzen da Haurra bere gainean tronua balitz bezala. Dena den, arte erromanikoaren zurruntasuna galdu da eta badirudi, obra honen artistak forma naturalen edertasun ideala duela helburu.

Ama birjina dontzeila gazte baten moduan dago irudikatua, burua zapi batez estalita eta gainean koroa duela. Mantuaren tolesdurak hobetzen doaz, gerrian biltzen dira eta leun-leun erortzen dira, gorputzaren arabera. Irudiari idealismo bikain eta lasaia dario. Irudien aurrez aurreko jarrerak nahiz euren aurpegiek nolabaiteko handitasuna transmititzen dute.



12. Definitu pintura erromanikoarekin lotutako termino hauek:

- a) Pantokratorra
- b) Tetramorfos
- c) Mandorla
- d) Freskoa
- e) Tenple

Erantzuna:

- a) **Pantokratorra:** Kristoren irudia, maisutasunez eserita ageri dela, ezkerreko eskuan ebanjelioak dituela eta eskuineko eskua bedeinkatzeko jarreran.
- b) **Tetramorfos:** Lau ebanjelisten sinboloen multzoa: gizona (San Mateo), idia (San Lukas), lehoia (San Markos), arranoa (San Juan).
- c) **Mandarla:** "Almendra" esan nahi duen italianismoa. Kristo bere handitasunean inguratzen duen margo edo obaloa irudikatzen du, eta batez ere arte erromanikoan erabiltzen da.
- d) **Freskoa:** Horma-pintura teknika, jatorri mineraleko pigmentuen laguntzaz egina, karea ongi jasaten dute eta uretan disolbatzen dira; brotxa gogor edo leunak erabiliz aplikatzen da, harez eta kare hilez konposatutako masa freskoz osatutako euskarri baten gainean.
- e) **Tenple:** Pintatzeko prozedura. Koloreak ur tenperatuan disolbatzen dira, edota aglutinatzaileekin loditutakoan. Taulan edo horman aplikatzen da eta lehortuta ere, ukituak eman daitezke, freskoan gertatzen ez den bezala.

13. Aztertu eta komentatu honako irudi hau:

- a) Sailkatu lana, esan zein den egilea, estiloa eta gutxi gorabeherako kronologi-data.
- b) Egin lanaren azterketa formal eta ikonografikoa.
- c) Aztertu zein testuinguru historiko-artistikoan burutu zen.





Erantzuna:

Moises da, *Migel Anjel Buonarrotti* artistak, Italiako *Cinquecento* garaian artista adierazgarrienetarikoak, XVI. mendean egindako eskultura errenazentista. Julius II. aita santuaren hilobian dagoen irudi nagusia da, San Pedro in Vincoli elizan, Erroman.

Mukulu biribileko eskultura da, eserita dago eta "karrara" marmolez egina.

Gaia biblikoa da: Moises profeta irudikatzen du, legearen taulak besapean dituela, eta irudikatzen du nola, Sinai mendian berrogei egun pasa ostean, herrira, hots, israeldarregana iritsi eta izututa ikusten duela herritarrek Jehovarenganako kultua utzi dutela eta, horren orde, urrezko zekorri ari direla gurtzen.

Modelatua perfektua da eta anatomiak naturalismo harrigarria erakusten du. Arropek irrist egin eta tolesdurak sortzen dituzte, horrek irudi guztiari bolumena ematen dion argi-itzalaren jokoa sortzen du.

Konposaketaren egitura ardatz bertikala da, burutik hasi eta profetaren hankartean kokatuta dagoen tolesdura arte doana. Contrapposto arin bat dago, buruaren biraketak eta besoen nahiz zangoen jarrera simetrikoak sortua: eskuineko besoa gorantz dago jarria eta ezkerrekoa beherantz, bestalde, zango bat bestea baino aurreratuago dago.

Lerro zuzenen aringarri eta konpentsagarri, paraleloan doazen bi lerro makur daude: ezkerreko besoraino doan bizar luze eta kizkurrak osatzen duena, eta eskuineko beso luzatuan hasi eta ezkerreko zangoraino doana.

Konposaketa konplexu honen bitartez, artistak mugimendua lortzen du; tentsioan dauden besoko giharrek ere helburu hori lortzen laguntzen diote. Nabarmentzekoa da aurpegiaren adierazpena, indartsua eta gogorra. Badirudi Moises zutitzezotan dela. Uzurtutako aurpegiak herria zein haserre begiratzen duen transmititzen du. Migel Anjelen *terribilita* ospetsua da. Migel Anjelek lehen garaiko aurpegi lasaiak alde batera utzi eta markatutako adierazpidearen alde egiten du. Aukeraketa hori ziurrenik ez da soilik bere bilakaera pertsonalaren emaitza, baizik eta baita Laokoonteren talde helenistikoa ezagutu izanaren eragina ere, 1506an ezagutu eta Julius II.ak bere egin zuen taldea baitzen.

Batzuek Moises eskulturan eskultorearen beraren erretratua ikusi nahi zian dute, edo Julius II Aita Santuarena, gertari izugarria eta gidari espirituala baitzen, Moises bibliako profeta bezala. Beste batzuek natura osatzen duten elementuen sinbolo izan daitekeela uste dute; horrela, bizarrak ura irudikatuko luke eta, ileak, sugarrak. Migel Anjelentzat bizitza aktiboaren eta kontenplaziozko bizitzaren arteko fusioa izan liteke, ideal neoplatonikoari jarraiki.

Lan honetan errenazimentuko eskulturaren berezkoak diren ezaugarri batzuk ikus ditzakegu, hala nola, arte klasikoarekin jarraitzea, edertasuna bilatzea, giza irudia eta bere anatomiarenganako interesa, eta ikuspegi formaletik perfektuak diren lanak lortzeko esperantza.

Migel Anjel Buonarrotti (1475-1564), Italiako Cinquecento garaiko eskultore garrantzitsua da. Errenazimentuaren irudia da, esparru guztietan aritzen da nagusitasunez (arkitekto, pintore eta olerkari gisa), dena den, eskultoretzat du bere burua. Errenazimentuak berreskuratutako ideal klasikoak hobekien irudikatu zituen gizona izan zen. Ihes egiten zuen idealizaio osotik ihes egiten zuen eta kanpo-itxuraz haraindi ezkututzen den edertasuna zuen helburu. Bere ibilbide osoan zehar nabarmen ikusten da gizakiaren lehen irudia berreskuratu nahi duela. Ikuskera neoplatonikoa, errenazimentuan indartua, bere lan guztietan ageri da: funtsezkoena azken xedea da, gizakiaren barnealdea eta ez gizakia bera inguratzen duena. Bizitza osoa esfortzu erraldoi batean oinarrituko du, gatibu duen materiaren forma askatzea helburu.



Hona bere garai artistikoak:

- a) Gaztaroa (1491-1505), Florentzian, oso klasizista, edertasun ideala bilatzen du, Vatikanoko *Pietat* lanean bezala. Garai honetako lanik garrantzitsuenak *David* da (gaur egun Florentzian).
- b) Helduaroa (1505-1534), Erroman, korrante manieristak azaltzen dira eta estetika-ideal klasizista desagertzen hasiko da, *Moises* eta *Esklaboak* lanetan bezala.
- c) Zahartzarora (1548-1564), haustura erabatekoa da, eta karga espresiboak perfekzio formala ordezkatzeko, *Pietat Rondanini* lanean bezala.

Lan hau, Moises, bigarren garaian dago. Artistaren mezenas Julius II. Aita Santuaren hilobian dago, hark enkargatu baitzuen 1505ean, nahiz eta artistak ez duen 1545 arte bukatuko, hasiera bateko uste guztien kontra. Hasiera bateko proiektua hilobi huts bat zen, lau fatxadetako, berrogei estatua handi baino gehiagorekin, Vatikanoko San Pedro kupularen azpian jarriko litzatekeena. Buruan zuten proiektu hori murrizten joango da arrazoi ekonomiko eta familiarrek direla eta (Aita Santua hila zen dagoeneko), eta Migel Anjelek hilobi atxiki gisa diseinatuko du. *Esklaboak* zizelkatuko ditu, gizakien bizitzaren loturen isla, eta *Garaipena*, baina bi lan horiek ez daude behin betiko hilobian, hau da, San Pedro in Vincolin (Erroman), han zazpi estatua bakarrik baitaude: *Rakel* eta *Lia*, kontenplaziozko bizitza eta bizitza aktiboa irudikatzen dutenak, *Moises* handia eta ia arbastatu ere gabeko beste batzuk.

14. Definitu errenazimentu garaiko artearekin lotutako termino hauek:

- a) **Esfumato**
- b) **Perspektiba**
- c) **Argi-ilun**
- d) **Kuxineztadura**

Erantzuna:

- a) **Esfumato**

Ingerada difuminatua pinturan, Leonardo da Vinciren bereizgarria.

- b) **Perspektiba**

Gainazal lau batean espazioaren sakontasuna adierazteko erabiltzen den metodoa da. **EE**
EErrenazimentuaz geroztik aztertu eta garatu zen batez ere. Funtsean, hiru perspektiba mota bereizten dira: airetikoa, cavalieri, lineala edo konikoa. Airetikoa perspektibak objektuak ikusleak ikusiko litzatekeen bezala irudikatzen ditu, hau da, geroz eta urrunagotik, objektua orduan eta txikiagoa. Cavalieri perspektibak albotiko proiektzio batez irudikatzen ditu objektuak, elkartzen ez diren lerro paraleloen bitartez, objektuak infinitutik ikusiko balira bezala.

Perspektiba linealak ikuslearen begitik ateratzen diren eta objektuaren puntu ezberdinetatik igarotzen diren ikusmen-lerroek osatzen duten konoa proiektatzen du planoan.

- c) **Argi-ilun**

Pintura batean argien eta itzalen kontrastea lortzeko artea. Atzealde ilun batean irudi argizatuak nabarmentzeko erabiltzen da.

- d) **Kuxineztadura**

Harrizko horma dekoratzeko modu bat, aparailuaren lotuneak erdigunea baino hondoratuagoak azaltzen dira.



15. Pintura barrokoa Espainian:

- Identifikatu beheko lanak.
- Zein garaitan burutu ziren? Zein dira ekoizpen artistikoaren gune nagusiak? Aipatu pintore aipagarri batzuk.
- Azaldu zein den atzerriko eskolek pintura horretan izan duten eragina.
- Zein dira gai nagusiak? Zergatik aipatzen dira behin eta berriz gai horietako batzuk?



A



B



C



D

Erantzuna:

Pintura barrokoa Espainian:

- Identifikatu beheko lanak.

A: Diego Velázquez *La Fragua de Vulcano*. 1630. Oihal gaineko olio-pintura. 223 x 290 cm. Pradoko Museoa. Madril. Espainia.



- B:** Bartolome Esteban Murillo. *El joven mendigo*. Bestela ematen zaion izena: "Niño espulgándose". 1645. Oihal gaineko olio-pintura. 134 x 100 cm. Louvre Museoa. Paris. Frantzia.
- C:** Jose de Ribera (El Españoletto) *El Martirio de San Felipe*. 1639. Oihal gaineko olio-pintura. 234 x 234 cm. Pradoko Museoa. Madril Espainia.
- D:** Francisco de Zurbaran. *San Hugo en el refectorio de los Cartujos*. 1645-1655. Oihal gaineko olio-pintura. 268 x 318 cm. Sevillako Arte Ederretako Museoa. Sevilla. Espainia.

b) Zein garaitan burutu ziren? Zein dira ekoizpen artistikoaren gune nagusiak? Aipatu pintore aipagarri batzuk.

XVII. eta XVIII. mendearen lehen erdian garatu zen barrokoa. Gune nagusienak Madril, Sevilla eta Valentzia izan ziren. Artista aipagarrienak: Ribalta, Zurbaran, Velazquez, Alonso Cano, Ribera, Murillo, Valdes Leal.

c) Azaldu zein den atzerriko eskolek pintura horretan izan duten eragina.

Eragin gehien pintura italiarrak izan zuen, batetik XVI. mendeko pintura veneziarrak, asko erabilia erregeen bildumetan eta, bestalde, naturalismo tenebristak, jatorriz napolitarra. Zenbait artistengan klasizismoak ere eragin zuen.

Eragin flamenkoa ere nabaria da konposaketetan eta, XVII. mendean, kolore eta mugimenduetan.

d) Zein dira gai nagusiak? Zergatik aipatzen dira behin eta berriz gai horietako batzuk?

Gai nagusiak erlijiosoak dira, ondoren erretratuak eta natura-hilak. Gaitzat erlijioa hartzen duten lanen artean Kontraerreformarekin lotutako gaiak dira nabarmenenak, batez ere itsasoa, eukaristia eta santuen bizitzari buruzko ikonografiak.

16. Komentatu beheko irudia:



JAN VERMEER: *DELFT-EKO IKUSPEGIA*. 1662
MAURITSHUIS, LA HAYA.



Erantzuna:

XVII. mendeko Holandan paisaia-eskaera handia egongo da, izan ere, gizarte-talde nagusiak, burgesiak, gai horiek eskatuko ditu euren etxeetako hormak apaintzeko. Vermeer-ek bere egin zituen Delft-eko eskolako ezaugarri orokorrak eta, era berean, Westfaliako hitzarmena sinatu (1648) eta hurrengo bost urteetan Holandako burgesian bizi zen klima espirituala islatzen du. Mota horretako lanek prezio altua hartzen zuten merkatuan, eta gai horri dedikatzen zitzaion eskola handi bat zegoen, bertatik aipagarrienak: Jan van Goyen, Meindert Hobbema edo Jacob van Ruysdael. Vermeer-ek ez zien paisaia horiei muzin egin, eta 1660ko hamarkadako lehen urteetan oihala gaineke olio-pintura hau egin zuen; lan honegatik 200 florin ordaintzera iritsi ziren Vermeer-ek utzitako ondarearen salmantan, 1696an. Lan hau burutzeko, kamera ilun batez baliatu omen zen. Objektu horrek argazki-kamera baten gorputz baten moduan funtzionatzen zuen; erabat iluna eta zulo txiki bat zuen kaxa baten barnean, lente batez islatutako irudia hartzen zen, proiektatutako eszena paperezko orri batean edota kristalezko plaka batean kopiatuz. Eszena altuera batetik dago hartua, horrela erakusten dute lehen planoan, Schie ibaiertzean dauden pertsonen irudiak ikusteko erabiltzen den perspektibak. Konposizio mota horrek, itsasertza diagonal antzera duela, Esaias van de Velde eta Pieter Brueghel "Zaharra" egileengan du inspirazio-iturria. Elementu arkitektonikoak paraleloan ordenatzen dira, Vermeer-ek barne-eszenetan egiten duen modu berean, errenazimentu italiarraren perspektiba ortogonalari jarraiki. Horrela, ibaiaren atzean hiriaren defentsa-uhala osatzen duten eraikin multzoa dakusagu, Schiedam atea aurrean, eta bigarren lerroan beste eraikin multzo bat dago, horien artean Nieuwe Kerk dorrea nagusi. Bi lerroen artean argi-lerro bat dugu muga gisa, lehen planoan itzalean gelditzen baita eta atzealdea, berriz, argiztatua, elizako dorrea ateratzen dela. Horrek aditu askori pentsarazi dio erreferentzia politiko argi bat dela, Nieuwe Kerk elizan baitzegoen lurperatua Gillermo I. Orange-koa, 1584ean Delften hil zuten gobernadore holandarra, hiriak heroitzat zuena espainiarren aurkako borrokan. Halaber, esan beharra dago, bere garaiko gainerako paisajistek ez bezala, Vermeer-ek ez duela Delft-en urruneko birproduktzio bat egiten, detaile bat bakarrik aurkezten du, baina hurbiletik. Lehen planoan ilundutako eraikinek askotariko puntu koloretsuak agertzen dituzte, horrela, pinturak dar-dar egiten du, horretarako "pointille" teknika berezia erabiliz, argi-puntu distiratsuak oihalaren gainazal guztitik zabaltzen direla. Vermeer-ek jaioterriari egindako koadroa da, hiria inguratzen duen ibaiertzetik margotua. Artistak errepikapenak ikusi ditu teiltuen profil horizontalean, diagonal txikietan, triangelu formako hormapikoetan, hiriko ateetako arkuetan eta zubietan. Eraikinen lerro txikia uretan islatzen da lasaitasun lanbrotzuan. Pintura erdia baino gehiago laino arinek betetzen dute, eta laino horietatik igarotzen den argia aski da dorrearen detaileak eta zubi atzeko teiltuak antzemateko. Gaia: Holandako hiri txikia eta xumetasun poetikoa. Vermeer-ek hiri-paisaiaren gainean ezarri zuen ordenak badu matematikoa den zerbait. Kolore-intentsitateak, batetik, eta, bestetik, argiak, zuzenak edo islatutakoak, koloredun formen gainean uzten duen eraginak, batasuna sortzen du pintura osoan zehar. Elementu guztiak ziurtasun handiz daude espazioan kokatuta.

Vermeer-en unibertsoa argia eta higiezina denez, natura hilen ikuspegia duela esan izan da. Lainoen artetik iragazten den argiak eta uretako islek efektu aldakorrek sortzen dituzte, eta garbi uzten dute badutela airezko perspektibarekin jokatzeko eta sakontasunaren ilusioa sortzeko gaitasuna.

Sakontasun sentimen hori nabari da, esaterako, lehen planoko etxeetan, laino ilun handi batek estaltzen dituzenez, etxe horien itzalak uretan islatu, eta guregana islatzen dira. Etxeen atzean teiltuak eta dorre bat argiune batetik iragazitako eguzki-izpiek argiztatuak azaltzen dira.

Horrela, argi-ezberdintasunak modu bikainean atzematen dira, nahiz eta lasaitasuna den ikuspegiaren sentimen bereizgarrietako bat. Lan barrokoa da, eskola holandarrekoa.



17. Iruzkina laburra: Goya

- Esan zein garaitan eta non egin zuen lan. Esan bere lanak zein mugimendu edo estilotakoak diren edota zein mugimendu edo estiloren aitzindari izan diren.
- Izan al zuen Velazquezek eragina Goyarengan? Arrazoitu erantzuna.
- Egon al zen harremanik Goyaren eta Espainiako Ilustrazioaren artean? Arrazoitu erantzuna.



Vicente Lópèz. *Francisco Jose de Goya*. 1826. Pradoko Museoa.

Erantzuna:

- Esan zein garaitan eta non egin zuen lan. Esan bere lanak zein mugimendu edo estilotakoak diren edota zein mugimendu edo estiloren aitzindari izan diren.

Francisco de Goyak (1746-1828) Zaragoza eta Madril izan zituen, funtsean, bizileku eta lantoki. 1770ean Italiara joan zen. Lehen aldietan rokoko eta neoklasizismoarekin lotu izan zaio, eta helduaroan, berriz, erromantizismoarekin. Errealismoaren, inpresionismoaren eta espresionismoaren hainbat ezaugarriren aitzindari izan zen, baita surrealismoaren eta informalismoaren hainbat ezaugarriena ere.

- Esan zein garaitan eta non egin zuen lan. Esan bere lanak zein mugimendu edo estilotakoak diren edota zein mugimendu edo estiloren aitzindari izan diren.

Velazquez izan zen Goyarengan eragin handien izan zuen artista, lan nagusienak ere kopiatu zizkion. Tonu grisak gustatzen zaizkio, pintzelkada luze eta soltea, atmosfera atzitzea, zirriborroak egitea, eta errege-erretratuenganako duen jarrera eta horiek egiteko modua, esaterako, *Karlos IV.aren familia* lana, Velazquez sevillarrari zor dion eraginaren isla dira.

- Egon al zen harremanik Goyaren eta Espainiako Ilustrazioaren artean? Arrazoitu erantzuna.


Harreman oso garrantzitsua egon zen. Batetik, Goyaren mezenas gehienak ilustratuen zirkuluetakoak ziren; horietako gehienek erretratuak utzi zituen (Floridablancako Kondea, Osunako Dukeak, Kabarruseko Kondeak, Jovellanos, Cean Saavedra). Bestalde, ilustrazioaren asmoarekin bat egin eta Espainiako gizartea eraldatu nahi zuen, horretarako, bizioen kontra egiten zuen koadro eta grabatuetan.



18. Osatu beheko kontzeptu-mapa eta kokatu beheko terminoak dagozkien tokian:

- Erakusketa Unibertsal Handiak
- Zementua, mende amaieran
- Arkitektura-Ingeniaritza
- Gizarte-behar berriak


ARKITEKTURA XIX. MENDEAN





Erantzuna:

ARKITEKTURA XIX. MENDEAN





19. Egin beheko irudiaren iruzkina:

- Sailkatu lana, esan zein den egilea, estiloa eta gutxi gorabehera zein garaitakoa den.
- Aipatu ezaugarri nagusiak
- Zein da lanaren jatorria? Nola hartu eta balioetsi zuen jendeak?



Erantzuna:

- Sailkatu lana, esan zein den egilea, estiloa eta gutxi gorabehera zein garaitakoa den.

Parisen 1889an eraiki zen dorrea. Gustave Eiffel (1832-1923) izan zen arkitektoa eta eraikitzailea, bera zen XIX. mendean egitura metalikoak erabili zituenetako bat, esate baterako, zubiak eta New Yorkeko portuan dagoen askatasunaren estatuaren barne-egitura. Dorreak 321 metro ditu. Muntaketak bi urte iraun zituen. Bitxikeri moduan, badakigu 18.038 pieza metalikok osatzen dutela eta 2.500.000 errematxek. Elementu guztiak Levallois-Perreten tailerrean prestatu ziren, Paris ondoan, Eiffel dorrea eraikitzeko egoitza zegoen tokian.

- Sailkatu lana, esan zein den egilea, estiloa eta gutxi gorabehera zein garaitakoa den.

Ezaugarriak:

- *Ingeniari-arkitektura*, burdinaz egina, profileko makurdurak dinamismoa adierazten du.
- *Masa gabezia*; agerian dagoen metalezko eskeleto moduko eraikina, apaingarriak ditu diseinuaren zatietan.
- *Bertikaltasuna*, hiriaren gaineko ikuspegi panoramikoak ematen du, eta handitasuna.

- Sailkatu lana, esan zein den egilea, estiloa eta gutxi gorabehera zein garaitakoa den.

1889an Erakusketa Unibertsala egin zen Parisen, iraultza frantsesaren ehun urteak ospatzeko, eta horregatik eraiki zen Eiffel dorrea. Hasiera hasieratik miretsi zuen herriak, baina barre egin eta gaitzetsi ere egin zuten hainbat artista eta intelektualek, Zola idazleak, esaterako. 1909an botatzekotan ere izan ziren. Kritika gogor horiek jaso bazituen ere, dorrea berehala bihurtu zen margolarien gai nagusia eta Paris modernoaren sinboloa. Lan honekin, Eiffelek frogatu zuen artea eta teknika hertsiki lotuak daudela; teknikak baliabide berriak eskaintzen zituen artistikoki garatzeko.



20. Irakurri arretaz testua eta erantzun beheko galderak:

- Azaldu, testuari jarraiki, nola hatzen dituen jendeak haustura edo berrikuntza artistikoak.**
- Zein izan ziren inpresionistek egindako ekarpenak?**
- Aipatu lau pintore inpresionista edo neoinpresionista, bakoitzaren ezaugarriak eta lan garrantzitsuenak.**

“Orain dela lau urte zenbait gazte ezezagunek Le Barc de Boutteville eskuzabal eta ausartaren etxean erakusketa gisa oihal batzuk jartzeko aukera izan zuten eta, garai hartan gertatu ohi zen moduan, ikusleak erakusketa hartaz trufatzen ziren. Erakusketa hartan baziren neoinpresionista batzuk, dagoeneko ulertuagoak jendartean, eta baita eskola zaharreko inpresionistak ere, dohain paregabe eta txundigarria bazuten ere, burlak berdin-berdin jasotzen zituztenak. Bada, gazte horiek, 25 urte dituztela!, pozez ikusten dute, eta hori ikusteko zortea dute, nola toki guztietan arretaz begiratzen dituzten, atseginez, nola irriak geroz eta arraroagoak bihurtu diren Le Barcen etxean; nola erosten dituzten artearen maitaleek euren lanak; nola tratatzen dituzten kritikoek maisu pintore zaharrak balira bezala; eta nola pintore gazteagoek, eta baita zaharragoek ere, euren estiloa imitatzen saiatzen diren”.

Maurice Denis: “Pintore inpresionisten eta sinbolisten bederatzigarren erakusketarako hitzaurrea.”
París, 1895.

Erantzuna:

- Sailkatu lana, esan zein den egilea, estiloa eta gutxi gorabehera zein garaitakoa den.**

Hasiera batean trufatu egiten ziren margolari inpresionistez, baina lau urte beranduago miretsi egiten zen euren dohaina, kritikoek maisu zaharrak balira bezala hartzen zituzten eta zenbait artista imitatzen ere hasi ziren.

- Zein izan ziren inpresionistek egindako ekarpenak?**

Inpresionismoak etengabeko ikerketa ekarri zuen artearen esparrura, banakako eta taldeko galderak erantzuteko eta mundu modernoko aldaketei egokitzeko. Hona hemen inpresionistek egindako ekarpen nagusien laburpena:

- **Argia eta kolorea balioesteko modu berri bat.** Argia bereziki garrantzitsua da, uste baita, pinturak berak objektuetan eragiten duen argiaren sentsazio azkar eta berehalakoa ikuslearen erretinan erreproduzitzearen emaitza dela pintura. Argiaren efektu aldakorrek dira lanaren funtsezko gaia. Horregatik errepikatzen dute artista batzuek irudi bera eguneko ordu ezberdinetan. Beraz, uste dute, argiaren intentsitateak eskaintzen dituela objektuaren pertzepzio ezberdinak, eta ez lerroek edo koloreek. Inpresionistek minimora murrizten dute eta ezabatu ere egiten dute kolore beltza, naturan ez baitago halakorik. Tonalitate argi eta gardenetara jotzen dute eta kolore-gama dirdiratsua darabilte, zuriak, urdinak, arrosak, gorriak... Itzaletan tonu hotzak erabiltzen dira, baina beti ukitu dirdiratsuekin. Artista inpresionistentzat ez dago, ez kolorerik ez formarik, argia bakarrik dago.

-**Teknika berria.** Eguneko orduaren arabera argi-barietateak atzemateko, inpresionistek teknika oretsu eta trinko baten alde egiten dute zenbaitetan, horretarako, urrunetik begiratu behar diren tonu hutseko pintzelkadak jartzen dituzte elkarren ondoan.

Beste batzuetan, olio-pintura disolbatzen dute, akuarelaren efektu bera lortu arte. Pintzelkadak indartsuak, sutuak eta motzak dira, une jakin batean argia atzemateko behar



den berehalakotasunagatik. Desagertu egiten da obraren narrazioak duen garrantzia eta masa-kolorea animazioak hartzen du garrantzia.

-**Aire zabalean margotzeko atsegina.** Argiari ematen dioten garrantzia eta mirespena dela eta, artistak aire zabalean pintatzeko pasioa du, horixe baita modu bakarra natura eta paisaiak naturalean atzemateko, eguneko orduaren araberako aldaketak eta guzti.

- **Anekdotikoagoak diren gai berriak.** Inpresionismoan ez dago gai hutsalik, baizik eta ongi edo gaizki egindako koadroak. Naturaletik kopiatzen da eta hainbat paisaia margotzen dira, hala nola, itsasoarekin zerikusia dutenak, gauekoak, herriko jaiak, pertsonaia ijitu eta baztertuak, argi artifizialaz landutako barnealdeak... Margolari bakoitzak bere gaiak hartzen baditu ere, hutsala denarenganako joera bat dago, agian burgesen pintura errealistari kontra egitearren.

- **Espazioa ikusteko modu berri bat.** Enkoadraketek eta konposaketek aurreko akademizismoarekin hausten dute eta espazioa antolatzeke modu ausartagoa dakarte. Irudiak ez dira beti konposaketaren erdian kokatuko eta, are, zenbaitetan koadroaren izkinatik moztuko dira. Oro har, alde batera uzten dute perspektiba geometrikoa.

- **Harreman berria artistaren eta ikuslearen artean.** Ikusleak jarrera pasiboa baldin bazuen, aktiboa hartuko du, eta artistaren asmo teknikoetan parte hartu beharko du. Koadroak bukatugabeak daudela ematen du, *argi inpresio* bat direlako, horregatik, ikusleek adimenaren bitartez osatzen saiatu behar dute. Pintura gustu ofizialetik eta ikuslego zabaletik aldentzen da.

c) Aipatu lau pintore inpresionista edo neoinpresionista, bakoitzaren ezaugarriak eta langarrantzitsuenak.

Claude Monet: Guztietatik inpresionistena. Paisajista bikaina izan zen, eta objektu beraren gainean argiak eguneko ordu ezberdinetan uzten zituen efektuekin esperimentatu zuen, horrela, hainbat serie margotu zituen, hala nola, Rouen-eko katedrala edo Gare de Saint Lazare katedrala. *Inpresioa-eguzki atera berria* lanak emango dio mugimendu artistiko honi izena.

Alfred Sisley: Margotzen dituen paisaiek argiak naturako koloreetan duen eragina frogatzea dute helburu. Lanak nolabaiteko ukitu melankoniatsua du. Lanen artean aipatzekoak: *Louveciennes-eko bidea* edo *Le turnant du Loing*

Auguste Renoir: egile honek egindako ekarpen nagusia izan zen, gizakiari aplikatu zizkiola inpresionismoaren berrikuntzak. Lanen artean aipagarriak, Bainulariak, argiak emakumezkoen gorputz biluzietan duen eraginarekin esperimentatzen duela, *La loge*, *Le Moulin de la Galette*...

Edgar Degas: Hiriko ohitura motei buruzko eszenak margotu zituen. Gehiago arduratu zen argi artifizialaz argi naturalaz baino. Bereziki ezagunak dira dantzarien serieak.



21. Egin, labur-labur, irudiaren iruzkina:

- a) **Sailkatu lana, esan zein den egilea, mugimendua edo estiloa eta gutxi gorabeherako kronologi-data.**
- b) **Aztertu dituen ezaugarri nagusiak formari dagokionez.**
- c) **Esan zein diren mugimendu hori sustatu zuen gizarte-klasearen ezaugarri nagusiak.**



Erantzuna:

- a) **Sailkatu lana, esan zein den egilea, mugimendua edo estiloa eta gutxi gorabeherako kronologi-data.**

Mila etxea (*La Pedrera* bezala ere ezaguna), Antonio Gaudik egina, arkitekto modernista katalana. XX. mendearen lehen hamarkadan burutu zen.

- b) **Aztertu dituen ezaugarri nagusiak formari dagokionez.**

Mugimendu organikoa du oinplanoan, konbexutasun eta ahurgune amaigabeak ditu, eta horrek plastikotasun handia ematen dio kanpoko parametroei. Eskultura izaera du eta irudietarako joera erremate eta tximinietan. Oinplanoa makurdurez beteta dauden bi patioen inguruan antolatzen da. Kanpoko eta barneko dekorazioak diseinu modernista du (burdinsareak, beirateak, mosaikoak, zermaikak, altzariak), horrela, eraikina bera artelan oso bat da.

- c) **Esan zein diren mugimendu hori sustatu zuen gizarte-klasearen ezaugarri nagusiak.**

Merkataritzak eta industriak aberastuta, burgesia katalanak defendatu zuen modernismoa Bartzelonako zabalgunean eraikitako eraikinetan, aurrerapenaren zentzua islatzen baitute, argiztapenaren bitartez, aireztapenaren bitartez eta elementu guztien diseinu modernista eginez lortzen den fintasan artistikoagatik.



22. Landu gai hau: “KUBISMOA”: ezaugarriak eta ordezkari nagusiak”.

Erantzuna:

Kubismoaren sorrera da arte garaikidean jazotako gertakaririk garrantzitsuenetako bat. Hainbat esperientzia egon da aurretik, funtsean, Seurat eta Signat egileen neoinpresionismoa eta Cézanne-ren lana izan dira (natura zilindroa, esfera eta konoa da).

Kubismoa batez ere pinturan adierazi zen mugimendu artistikoa da; helburu nagusia adierazpen naturalistatik aldentzea zen eta, aldi berean, koadroaren gainazalean angelu askotatik ikusitako objektu bat irudikatzea. Georges Braque eta Pablo Picasso egileek garatu zuten batez ere 1907. urte inguruan, 1914an lortu zuen arrakasta gehien eta 1920ko hamarkadan jarraitu zuen garatzen.

Errenazimentutik zetorren adierazpen errealista baztertzeko zenez, kubismoak erabateko aldaketa ekarri zuen artearen historiara, abstrakzioaren eta subjektibotasun artistikoaren bultzatzaile izan zen. Pintura tradizionalaren sentimentalismoaren eta errealismoaren kontrako iraultza izan zen, argiaren efektuari eta koloreari ematen zitzaion garrantziaren kontra, eta formagabeziaren kontra, hau da, inpresionismoaren ezaugarri zen ororen kontra. Kubistek perspektiba eta mugimendua baztertzeko dute eta lerroa eta forma lehenesten dituzte. Afrikako eta Ozeaniako tribuetako artean inspiratu zen batez ere.

Kubistek Paul Cézanne postinpresionistaren esanari jarraitzen zioten, haren ustetan “naturako forma guztiak esferatik, konotik eta zilindrotik datoz”, eta George Seurat artistak zuen eraikitzeo eta geometrizatzeko grinaren eragina jaso zuen. Kubismoaren adierazpen ohikoenaren arabera, gaia ikuspegi analitiko eta abstraktutik aurkezten da; artistak objektua osatzen duten oinarritzko forma geometrikoak zein diren erabaki eta horiek margotzen ditu, batez ere kuboa edo konoa, edota horien azpian dauden forma geometrikoak agertzen dituzten oinarritzko planoak.

Pintura kubistaren beste fase batek, kubismo sintetikoak, angelu ezberdinetatik aurkezten du objektua, errealtatean aldi berean ikusi ezin daitezkeen angeluetatik, eta guztiak konposaketa-egitura batean batzen dira. Kubismo mota bat berean ere, ez analitikoan ez sintetikoan, asmoa ez da objektuen irudi erreala zehatz-mehatz irudikatzea. Erretratu eta natura-hil kubisten artean instrumentu eta arlekinak nabarmentzen dira, forma geometrikoetan banatzeko errazak baitziren. Efektu naturalista eta emozionala saihesteko, lehen garaiko kubismoak, hots, analitikoak, paleta oso mugatu bat erabili zuen, kolore gris, marroi, berde eta horiak, hain zuzen ere, edota kolore berean baina tonalitate ezberdinetan margotutako lanak egin ziren. 1914. urteaz geroztik, aldi sintetikoan, kubista askok kolore dirdiratsua goak sartu zituzten euren lanetan.

Margolari kubisten artean, Pablo Picasso eta Georges Braquez gain, aipatzekoak, hauek: Albert Gleizes, Robert Delaunay, Fernand Léger, Francis Picabia, Marcel Duchamp, Roger de La Fresnaye eta Juan Gris.

Margolarien moduan, eskulturan printzipio artistiko berberak aplikatu zituzten eskultore kubista garrantzitsuenen artean dira, besteak beste, Pablo Picasso, Raymond Duchamp-Villon, Jacques Lipchitz eta Alexander Archipenko.

Eta ideia eta teknika kubisten eragina jaso zuten artista ugarien artean dira, besteak beste, Maurice de Vlaminck, Stuart Davis eta Lyonel Feininger.



23. Sailkatu, aztertu eta komentatu honako irudi hau:



Andre Mariaren eliza, Ronchamp.

Erantzuna:

Nôtre-Dame- du- Haut kapera, Ronchamp, Frantziako hegoaldean, Le Corbusier arkitektoak eraiki zuen 1950 eta 1954. urteen artean eta hormigoia nola erabili erakusten duen adibide on bat da. Lan hau gutxi gorabehera 1945 eta 1960. urteen artean garatu zen *nazioarteko estiloan* sar daiteke, eta *arkitektura organizista* joerakoa da.

Ronchampeko eliza da, ziurrenik, arkitektura mota horretako lanik fantasiatsu eta ausartena, eta eragin handia izan du ondorengo urteetako arkitekturan.

Muino baten gainean eraikitako erromesaldirako eliza bat da. Oinplano irregularra du, eta horren gainean horma mardul zuriak altxatzen dira, makurrak eta pixka bat beherantz makurtuak. Estalki ilunari hormen zuritasuna kontrajartzen zaio, ontziaren gila itxura du, kontrahorma handi batek bereizia, branka baten moduan, eta bertan batzen dira teilatua eta hormak.

Horma horretan aldare bat dago aire zabalean, pulpituarekin eta koroa jartzeko tribuna batekin, eta horren guztiaren estalgarri, estalki izugarri hori. Beste hormak bao asko ditu, forma askotakoak, eta beirategi koloretsuz daude estaliak. Horrela, barnealdean sortzen den soiltasun eta babes giroak otoitz egitera gonbidatzen du.

Ronchampeko elizak ez du fatxada nagusi bat, baizik eta zati guztietatik begiratu daiteke. Eraikina hiru dorre mardulek inguratzen dute eta, eraikin osoarekin batera, bolumen indartsuko eskultura oso bat osatzen dute.

Analisi formala:

- **Materialak** oso xumeak dira. Eraikinaren egitura *altzairuz eta hormigoi armatuz* dago egina, material industrialez. Leiho eta ateetan beirategi koloretsuak daude. Egurrezko eserleku xumeek barnealdea atsegina eta goxoa izatea lortzen dute.
- **Eraikitze elementuak:** *Horma* mardulak dira, nahiz eta sendotasun hori itxurazkoak baino ez den, izan ere, horma horiek ez dira eraikinaren *estalki izugarriaren* euskarri. *Estalkia ez dago uneoro tenpluko hormen gainean, euren artean zirrikitu bat gelditzen da.* Eraikinaren egitura-eskeletoa altzairu eta hormigoi armatuzkoa da, horri eskerrak, esfortzuak *gontz angeluarretan* biltzen dira.



- **Dekorazioa.** Elizaren soiltasuna nabarmena da, hormak guztiz biluzik baitaude, eta apaingarri bakarra eraikuntza-elementuena da, eta hormetako zuritasunaren eta estalkiko hormigoi beltz zimurtsuaren arteko kontrastearena. Leihoetako *beirategi* koloretsuek ere *argi-contraste* indartsuak sortzen dituzte barnealdean. Le Corbusierrek objektu plastiko gisa sortu du lan hau, aire zabaleko eskultura da, espazio naturalarekin lotuta dagoena eta intentsitate eta indar handikoa.
- **Funtzioa:** *Erromesaldietarako eliza* da. Ama birjinaren irudia aldareko paretan dago. Ordea, arkitektoak eliza baten tipologia tradizionala aldatu du. Aldarea kanpoaldean dago. Barnealdea, soila eta babestua, oso egokia da otoitz egiteko eta meditatzeke. Beirategietako argi koloreztatuak katedral gotikoetako *sinbolismo* berbera du: Jainkoaren argia.
- **Estiloa:** Lan hau *Organizismo* estilokoa da. XX. mendeko arkitektura-joera moderno eta internazionalaren ezaugarri tipikoak ditu:
 - Funtzioa da arkitekturaren abiapuntua.
 - Lerro makurrak eta dinamikoak dira nagusi, *Arrazionalismoak* erabiltzen zuen lerro zuzenaren kontra.
 - Material industrialak erabiltzen dira (hormigoi armatua, altzairua, beira), aurrefabrikatuak, eraikitzea merkeagoa eta azkarragoa egiten baitute, eta material naturalak (harria, egurra).
 - Oinplanoa askea eta malgua.
 - Naturarenganako lotura bilatzen du, paisaiari egokitzen zaizkion forma errazekin.
 - Gizatiartutako arkitektura teknologia-munduaren aurrean.
- **Egilea:** Charles Edouard Jeanneret (1887-1965), Le Corbusier izenez ezaguna, XX. mendeko arkitekto bikainenetako bat da. Artista polifazetikoa da (teorikoa, urbanista, pintorea...), Suitzan jaio zen eta Frantzia egingo du bere lan iraultzailearen gehiengoa. 1919an, pintura esparruko abangoardien berri izan (kubismoaren berri) eta arrazionalismo puristaren ordezkari nagusi bihurtuko da, forma soilak, zuzenak proposatuko baititu, naturarekin duten funtzioaren eta armoniaren arabera. 1923an "Arkitektura baterantz" argitaratuko du, bere artikuluak biltzen dituen liburua. 1926an bere arkitektura-printzipioak agertuko ditu "*Arkitektura berri baten bost puntuak*" lanean.
 1. Piloteen gainean eraikitzen da, horiek igotzen dute lana lurrazaletik.
 2. Terrazak jardinekin.
 3. Oinplano askea.
 4. Horma zeharkatzen duten leiho luzeak.
 5. Fatxada askea.

1929an *Villa Savoya* eraikiko du, goiko printzipioei jarraiki. Tradizioarekin hautsiko du. 1942an *Modulor* sortuko du (eraikitzekeko modulu unibertsala, gizakia oinarri), eta hori bera aplikatuko du Marseillako *Gela Unitatea* lanean (1946), Bigarren Mundu Gerra ostean, gobernuaren aginduz, langile-familiei etxebizitza emateko. 1945. urteaz geroztik, Le Corbusierrek purismo geometrikoa baztertu eta organizismora gerturatuko da, arrazionalismoa murgilduta zegoen monotoniatik ihesi. Hirurogeita hamar urteko maisuak *Ronchamp-eko kapera* egingo du guztien harridurarako, hori izango da bere lanik ausartena eta poetikoena. Lan horrek berealdiko eragina izango du ondoren, eta asko imitatuko da.



24. Sailkatu lan hauek eta euren egileak “ismo” batean. Definitu labur-labur mugimendu bakoitza.




Auguste Renoir: “Moulin de la Galette.”



"Campbell Zopa". Andy Warhol



Henri Matisse: “Pastoral”.



“Konposaketa gorritz, horiz eta urdinez”. Mondrian



“Corpus Hipercupicus”
Salvador Dalí



“Les Demoiselles d'Avignon”
Pablo Picasso



Erantzuna:

- Auguste Renoir (*Moulin de la Galette*): **Inpresionismoa.**

Frantziar, XIX. mendearen amaieran sortu zen pintura-mugimendua. Pintoreek argiaren inpresio azkar eta unekoa atzeman nahi dute, eta aire zabalean margotzen dituzte transzendentziarik gabeko gaiak, teknika soltea erabiliz, pintzelkada askeez baliatuz, kolore biziekin. Adibideak: Monet, Renoir, Degas, Pizarro

- Andy Warhol (*Campbell Zopa*): **Popart**

Arte popularra edo herri-artearen arte-estilo figuratiboa da, eta bilakaera handia zian zuen berrogeita hamar eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan Ingalaterran eta Ameriketako Estatu Batuetan. Pop artistek ironikoki irudikatzen dute kontsumo-gizartea, eta horretarako komunikabideekin lotutako hizkuntza erabiltzen dute (iragarkiak eta komikia). Ezagunena Andy Warhol da eta bere *serigrafiak*, hots, argazki-serieak produktu komertzialen koloreak erabiliz (Campbell zopa-latak eta Coca Cola latak), edota zinema munduko ikonoak era erabiltzen ditu (Marilyn Monroe edo Marlon Barndo), horrela instituzionalizatutako artearen kontra egiten du, eguneroko mundutik eta herritik aldentutako artea baita.

- Henri Matisse (*Pastoral*): **Fauvismoa**

XX. mendearen hasierako pintura-mugimendua, ezaugarri gisa du kolorea modu adierazgarri, oldarkor eta arbitrarioan erabiltzen duela (fauve hitzak basati esan nahi du frantsesez), barne-sentimenak, normalean atseginak direnak, adieraztea helburu. Van Gogh eta Gaginen eragina jasotzen dute. Ordezkariek: Henri Matisse, onena, Vlaminck, Derain.

- Mondrian (Konposaketa gorritz, horiz eta urdinez): **Neoplastizismoa**

Pintura-korronte abstraktu geometrikoa, Piet Mondrian margolari holandarrak sortua. 1917an De Stijl (Estiloa) aldizkaria sortu zuen, eta bertan bere planteamendu mistikoak agertu zituen: Unibertsala eta Absolutua dena adieraztea, pintura arrazional, garbia erabiliz, lerro zuzen, horizontal eta bertikalak, kolore primarioak erabiliz (gorria, horia eta urdina), beltza eta zuria osagarri gisa erabiliz. Korronte honen beste ordezkaririk bat Theo van Doesburg da.

- Salvador Dali (*Corpus Hipercupicus*): **Surrealismoa**

Abangoardia artistikoko mugimendua, 1924an sortua, André Bretonen Manifestuaren ostean. Arte guztiei eragingo die. Pintore surrealisten, Freud inspirazio-iturri hartuta, subkontzientea adierazten saiatuko dira, ametsen mundua. Bi korronte daude: Objektiboa edo figuratiboa (Dali, Margritte, Erns) eta antiobjektiboa edo poetikoa, forma gutxi gorabehera abstrakzioarekin (Miro, Tanguy).

- Pablo Picasso (*Les Demoiselles d'Avignon*) **Kubismoa**

XX. mende hasierako mugimendu artistikoa, artea naturaren adierazpena dela dioen ideia tradizionalarekin hausten duena. **O** Objektuak guk irizten diegun itxuraren arabera, eta ez benetan diruditen moduan: aldi berean modu askotara, eta ez ikuspuntu finko baten arabera. Picasso da pintorerik adierazgarriena, Braque haren lagunarekin batera. Lanak: *Hortako Paisaia*, *Hiru musikariak*...



25. Lotu "A" zutabeko terminoak "B" zutabekoekin.



A	B
Vatikanoko San Pedro	"Le moulin de la Galette"
Picasso	Arkitektura barrokoa
G. Eiffel	Bizantziar artea
Claude Monet	Inpresionismoa.
Renoir	"Garrasia"
Munch	Kubismoa
Santa Sofia basilika	Burdinaren arkitektura

Erantzuna:


A	B
Vatikanoko San Pedro	Arkitektura barrokoa
Picasso	Kubismoa
G. Eiffel	Burdinaren arkitektura
Claude Monet	Inpresionismoa.
Renoir	"Le moulin de la Galette"
Munch	"Garrasia"
Santa Sofia basilika	Bizantziar artea

26. Eskulturaren euskal eskola. XX. mendea:


- Zein dira argazkietako bi artistak?
- Lotu itzazu irudietako eskulturekin.
- Egin iruzkin bat egile hauetako bakoitzaren lanari buruz.



"Haizearen orrazia"



"Kutxa metafisikoa"



“Arantzazuko apostoluen frisoa”



“Gure aitaren etxea”.



“Berlin”



“Esferaren desokupazioaren aldaera oboidea”

Erantzuna:

a) Zein dira argazkietako bi artistak?

- Ezkerreko argazkia: *Jorge Oteiza Embil* (Orio, 1908 – Donostia, 2003).
- Eskuineko argazkia: *Eduardo Chillida* Juantegui (Donostia, 1924 – Donostia, 2002).

Eskulturaren Euskal Eskola delakoaren bi ordezkari nagusiak dira. Eskola horretako eskultoreek, ezberdintasunak badituzte ere, ezaugarri komunak dituzte: hizkuntza abstraktua da nagusi, handitasuna atsegin dute, hertsiki lotuak daude naturarekin eta gizakiarekin, egurra, harria edo burdina bezalako materialak erabiltzen dituzte. Eskola horretako partaide da esate baterako, Nestor Basterretxea, Europa eta Amerikan 150 erakusketa baino gehiago egin dituen eskultorea; Jose Alberdi, Britainia Handiko Arte Ederretako Akademian onartutako artista atzerritar bakarra; edo Rikardo Ugarte, Bruselan Europar Batasunaren eraikin berria egiteko hautatua.



b) Lotu itzazu irudietako eskulturekin.

J. Oteiza:

- "Kutxa metafisikoa". 1958. 30 x 32, 5 x 30 cm. Forja kobreztatutako burdinez. Reina Sofia Museoa.
- "Arantzazuko apostoluen frisoa". (1950-1954) Arantzazuko Basilika. Oñati.
- "Esferaren desokupazioaren aldaera oboidea". Bilbo

E. Chillida:

- "Haizearen orrazia" 1977. "Reco" altzairua. Donostia
- "Gure Aitareen Etxea". 1988. Hormigoia. Gernika.
- "Berlin". 2001. Alemaniako Kantzelaritzaren egoitza berria. Berlin.

c) Egin iruzkin bat egile hauetako bakoitzaren lanari buruz.

J. Oteiza.

Oteiza da, inongo zalantzarik gabe, XX. mendeko sortzaile euskaldun adierazgarrienetako bat. Zaila da bere lana definitzea, izugarri pertsonala den lana baita. Oteizaren eskulturak XX. mende hasierako abangoardia artistikoetan errotzen dira, batez ere *neoplastizismoan* eta *konstruktibismoan*, era berean, II. Mundu Gerra osteko artisten moduan, sentiberatasun berezia sentitzen du abstraktua, espirituala eta humanista den horrekiko. Oteiza 30eko hamarkadan hasi zen lanean, eta bere lehen lanak figuratiboak ziren. Hegoamerikan egindako egonaldiaren ostean, 1947an itzuliko da, euskal arte berria bultzatzeko asmoz. Hainbat agerpen artistikotan hartuko du parte, esate baterako, Arantzazuko basilikako estatua-lerroa; proiektu horretan erlijioa despersonalizatzen da, irudiak hustu egiten dira, eta espaziora irekitzen direnez, eduki izpiritualez betetzen dira. Orditik aurrea, Oteizak espresionismoa eta figurazioa alde batera utzi eta abstrakzioaren bidea hartuko du, ikerketa geometriko-arrazionala oinarri hartuta eta formaz baino, formen arteko espazioaz arduratuz, horrela, izpirituzko esanahi sakona duen hutsaren estetika landuko du.

1959an artistak eskultura utziko du eta artista-taldeak bultzatzeari eta sortzeari ekingo dio, hala nola, *Gaur* talde garrantzitsua. Euskal kulturarekin duen konpromisoak bultzatuta, euskal kultura defendatzeko mugimendu eta jarduketan gidari bihurtuko da. Testuinguru horretan sortuko dira Euskal Eskolaren taldeak. Aipatutako *Gaur* taldea izan zen aktiboena.

Hirurogeiko hamarkadan ikerketa estetiko eta linguistikolari ekingo dio, eta esparru horretan egindako lana *Quousque tandem!* lanean argitaratuko du. (1963), edo *Ejercicios espirituales en un túnel* lanean (1965).

1972 eta 1975. urteen artean eskulturgintzara itzuliko da, eta serie experimental batzuk burutuko ditu. Bere azken garaietara atzera begiratzuz *minimalismo* amerikarrarekin lotu ziezaiokeen, hain zuzen ere, artistaren garai sortzailearen ostean sortu zen mugimenduarekin.

Oteizaren ekoizpenean aurki ditzakegu, besteak beste, monumentu-monolitoak (*Preso político ezezagunaren monumentua*) kutxa edo eraikin geometriko eta desokupatuak (*Kutxa metafisikoa*); murriztasunaren burutzea eta hutsaren protagonismoa islatzen dute.

E. Chillida.

Lehen lanak figuratiboak dira, harrian edo igeltsuan zizelkatuak. Lanek arkaismo grekoaren eta kouroi-en eragina dute, adibidez, *Torsos* seriea, *Henry Moore*-n arrasto garaikidea ere ageri dute, azken hau atzerrira egindako bidaietan ezagutu zuen. Baina Chillidak berehala utziko du alde batera antropomorfoa dena eta erabat murgilduko da abstrakzioan.



1950ean Hernanin finkatuko da, eta han material berri batekin jarriko da harremanetan, burdinarekin, horrela, errementari batekin hasiko da lanean forjan. Burdina euskal artisautza tradizionalarekin konbinatu eta esperimentatzeko bide ugalkor bat ezagutuko du. Lehen pieza burdinan egingo du, *Ilarik*. 1954n Oteizarekin batera egingo du lan Arantzazuko basilikan, eta burdinazko lau ateak egingo ditu, bere horretan eskulturak diren horiek.

Horrela hasiko du Chillidak abstrakzioaren ibilbidea. Naturagatik duen ikuspegia kontuan hartuta, 1963an beste materiala erabiltzen hasiko da, hala nola, egurra, alabastroa, hormigoia, buztina edo, aurrerago, baita portzelana ere. Orain, bere lan handiaren gehiengoaz *Chillida Leku* museoan goza daiteke, Hernaniko Zabalaga baserrian.

- Chillidaren formak: Nola modu pertsonalean, nola maila gizatiarrean lan egiten zuenean, barne-dekoraziorako piezak egiten zituenean nahiz espazio publikoetarako lanak sortzen zituenean, guztietan ere masa eta bolumenen etengabeko jokoak aurkitzen ditugu, gauzen mugan egoteko erakusten zuen kezka adierazle, bolumenaren eta espazioaren arteko muga nahiz bien artean dagoen lotura bilatzea zuen helburu.
- Chillidaren lanaren ezaugarria da espazio irekietan sartzeko delak, horiekin bat egiten duela euren parte izateko. Horrela bada, eskulturak museoetako presondegietatik ihes egiten dute, "kalea bereganatzen dute" eta edozein pertsonarengana gerturatzen dira, hark horrela nahi badu. Esate baterako, *Haizearen orrazia* Donostian; Horizontearen gorazarrea, Xixonen; *Gasteizko Foruen Enparantza*; *Askatasunaren atea*, Bartzelonako auzo gotikoan; eta agian bere lanik enblematikoena, *Gure Aitaren Etxea*, Gernikan.

27. Munduko arte-bildumarik garrantzitsuenak beheko koadroan aipatzen diren museoetan daude. Lotu bakoitza kokaleku duen hiriarekin eta aipatu, labur-labur, zein motatako lanak dituzten.

MUNDUKO MUSEO HANDIAK		KOKAPENA
1	Louvre	
2	Ermitage	
3	Prado	
4	Uffizitarren galeria	
5	National Gallery. W.	
6	National Gallery. L.	
7	Metropolitan Museum. N.Y.	
8	Vatikanoko Museoak	
9	Museo d'Orsay	
10	Rijksmuseum	
11	Guggenheim Bilduma	
12	Kunsthistorisches Museum, V.	
13	The British Museum	



Erantzuna:

1. Louvre Museoa. Pariseko sinboloetariko bat da. Maisulanez betea dago, besteak beste, Leonardo da Vinciren "La Gioconda", Ingresen "Bainu Turkoa", Delacroixen "Askatasuna herriaren gidari"... Hainbat margo ditu, eskola frantsesekoak, espainiarrekoak, flamenkokoak, italiarrekoak, holandarrekoak, alemaniarrekoak eta britainiarrekoak; arte grekoa, erromatarra eta etruriarra ere badu erakusgai, eta garai guztietako eskulturak.

2. Ermitage museoa. San Petersburgo. Munduko handienetako bat da. Museoaren jatorria 1764. urtean kokatzen da, Katalina Handiak bere bilduma pribatua museo nazional bihurtu zuenean. XX. mendean, urriko iraultzarekin batera, museoak bere ondarea zabaldu zuen, bilduma pribatuak nazionalizatu zituenean. Pinakotekan hainbat artisten lanak daude, hala nola, Rembrandt, Rubens, Tiepolo, Giorgone, Tiziano eta Tintoretorenak, bai eta hainbat artista garaikideren lanak ere, Picasso, Gauguin, Cézanne eta Van Goghenak.

3. Pradoko Museoa 1819an ireki zituen ateak Madrilan, Juan de Villanuevak egindako eraikin batean. Pradoko Museoa, bertako lanen kantitate eta kalitate bikaina dela eta, ezinbesteko gunea da XV. mendean geroztik XVIII. mendea arteko pintura europarraren eta espainiarren historia ulertzeko. Tiziano, Rubens, Velazquez eta bestelako maisu espainiarren lan-bildumak ditu. Besteak beste, Goyaren "*Maiatzaren 3ko fusilamendua*", Velazquezen "*Meninak*", El Boscoren "*Gozamenaren lorategia*"...

4. La Galleria degli Uffizi Florentzian, pintura errenazentistaren bildumarik handiena eta Europako museoarik zaharrena. Eraikina Vasarik proiektatu zuen, eta 1581ean pinakoteka bihurtu zuten Francisco de Medicisek hala aginduta. Aretoetan Errenazimentu garaiko balio kalkulazinezko maisulanak daude, hala nola, Boticelliren "*Udaberria*" eta "*Venusen jaiotza*"; Migel Anjelen "*Familia Santua*", Tizianoren "*Urbino Venus*" etab. Eta ezin aipatu gabe utzi pintura atzerritarreko bilduma, lan flamenkoak, alemanak eta frantsesak.

5. National Gallery, Washington. 1937an sortua, Andrew W. Mellon enpresa-gizonak emandako diruari esker, XX. mendean zehar dirulaguntza gehiago ere jaso dira. Museoak lur azpitik elkar lotzen diren bi hegalean, eta horietan pintura, eskultura eta paper gaineko lanen bilduma zoragarria dago. Ekialdeko hegalean Arte europarra erakusten da, batez ere, Erdi Arotik hasi eta XX. mende hasiera arte. Bertan, Rubens, Rembrandt, Van Dyck, Vermeer, El Greco, Renoir, Monet, Cézanne egileenak bezalako artelanak aurki daitezke. 2002an West Building zabalduko da, eskultura-bildumarako.

6. National Gallery, London. 1824an sortu zen eta Europa Mendebaldeko pintura-bilduma bikainenetako bat du, Giotto-tik hasi eta Picasso arte. Museo honetan artelan oso ospetsuak daude, esate baterako, Van Gogh-en *Eguzki-loreak*, Velazquezen *Ispiluko Venusa* eta Leonardo da Vinciren *Arroketako Ama Birjina*.

7. New Yorkeko Metropolitan Museum Manhattango erdigunean dago, eraikin neoklasiko batean. Erakunde pribatu bat da. Bertan dagoen maisulan-bilduma artearen historiaren isla da, hastapenetatik hasi eta gaur egun arte eta, horregatik, munduko kultur erakunde ospetsuenetako batean bihurtu da.

8. Vatikanoko Museoa. XVI. mendean sortu ziren, Julius II. aita santuak 1506an aurkitutako Laokonte taldea Vatikanora ekartzea agindu zuenean. Ordutik aurrera hainbat eta hainbat lan bildu dira bertan. Museo egitura handi horretan Antzinaroko Arte bilduma dago –Museo Etruriarra (1837), Museo Egipziarra (1839), Museo Profano Laterandarra (1844), Museo Gregoriar Profanoa eta Pio Museo Kristaua (1970)- eta arte modernoko bildumak, besteak beste, Tapizen Galeria, Karta Geografikoen Galeria, Rafaelen Gelak eta Loggia, Angeliko Dohatsuaren Kapera, Capilla Sixtina, Borgia Apartamentua eta Vatikanoko Pinakoteka.



9. Museo d'Orsay . Paris. 1986an zabaldu zen, Louvreko bildumekin eta probintzia-museoetan barreiatutako beste bildumekin. Maisulanak ditu, besteak beste, naturalismokoak, sinbolismokoak edo inpresionismokoak eta, oro har, XIX. mendeko bigarren erdi artekoak. Estazio-jauregi batean dago, Louvre eta Tulleria aurrean.

10. Rijksmuseum Amsterdamen dago, eraikin neogotiko garrantzitsu batean, arte holandarraren bildumarik osatuena du, XV. mendetik hasi eta XIX. mende arte, eta pisu berezia ematen die XVI. mendeko maisu handiei. Dena den, museo honetako berezko protagonista Rembrandt da, bere lanik garrantzitsuenak baitaude, aipagarriena "*Gaueko erronda*".

11. Guggenheim Bilduma. 1937an sortu zen eta bildumak hiru museotan daude: New York, Venezia eta Bilbo. Erakusketen ia gehienak arte garaikidekoak dira, eta hasiera batean Kandinskyren pinturarekin hasi baziren ere, hainbat eta hainbat artisten lanak erakusten dituzte, hala nola, Picasso, Mondrian, Modigliani... bai eta XX. mendeko abangoardia eta estilo gehienak ere: lan surrealistak, minimalistak, informalismo europarrekoak, popart etab. Bilduma hain da zabala, urtetan XX. mendeko artista handiei buruz, aldi baterako erakusketa gisa antolatu behar izan direla. Picasso, Gris, Miró, Chillida...

Gainera, museoen arkitektura berez da erakargarria, horrela ikusten da New Yorken kasuan, Frank Lloyd Wright-ek egina eta baita Bilboko museoaren kasua ere, Frank Gehryk egina.

12. Kunsthistorisches Museum, (Artearen Historiaren Museoa) Vienako erdigunean dago eta 1891. urtean eraiki zen. Jatorriz Habsburgoko printzeen gortearekin dago lotuta. Lehen obrak XIV. mendekoak dira; hortik aurrera, Habsburgoko etxeko buruek museoa handitzen lagundu zuten, artista alemaniar, flamenko eta italiar nagusien lanak sartu zituzten, Durerotik hasi eta Brueghel arte eta Cranach-etik hasi eta Tiziano arte.

13. The British Museum. London. Britainia Handiko museo honek ia ehun galeria ditu eta 50.000 artikulua baino gehiago dituzte erakusgai.

El Cairotik kanpo dagoen bilduma egiptologiko garrantzitsuenetariko bat du. Ekialde Hurbileko objektuak ere baditu, hala nola, *Ur-eko erregeen hilerrria* eta *Jerikon* egindako aurkikuntzak.

Aipagarriak dira, halaber, Grezia eta Erromari eskainitako galeriak, eskultura arkitektoniko grekoaren adibide garbiak daude, antzinako bitxi eta brontzeak, ontzi grekoak eta zilar erromatarra. Hemen daude *Partenoiko* eskulturak (*Elginen marmolak* bezala ere ezagunak), baita *Halicarnaso mausoleoko* eskulturak ere.



PROBARAKO ADIBIDEA

PROBAREN EZAUGARRIAK

Probaren **lehen zatian (praktikoan)** ikasleari bi irudi emango zaizkio, gai bakoitzean ikusitako irudien artetik aukeratuak. Bi irudi horietatik ikasleak bat hartuko du dagokion azterketa eta iruzkina egiteko.

Bigarren zatian (teorikoan) ikasleak proposatu diren bi gaietatik bat landu beharko du, estiloren bat, garairen bat, artelan baten ezaugarriak edota egileren bat.

ZUZENKETARAKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

Zati praktikoa: proposatutako irudiari erantzungo zaio, betiere honakoa kontuan hartuta: testuinguru historiko-kulturala, lanaren iruzkin teknikoa, nola ikuspuntu formaletik nola irudiaren esanahiari dagokionez, irudia dagokion estiloan kokatzea, garaia eta kronologia-data zehaztuz eta, hala badagokio, baita egilea ere.

Zati teorikoa: Proposatutako galderari argitasun eta koherentziaz erantzungo zaio, eta zehatz-mehatz frogatuko da galderaren funtsezko puntuak menderatzen direla eta, hala badagokio, baita estilo horretako egile eta lan aipagarrienen ezaugarriak ere, betiere dagokion hiztegi zehatza erabiliz.

Hona hemen zati bakoitzari emango zaion **puntu-kopurua:**

Zati Praktikoa: gehienez 5 puntu.

Zati Teorikoa: gehienez 5 puntu.

1. Bi irudi hauetatik bat hartu, aztertu eta egin bere iruzkina:
(5 puntu)

- Sailkatu lana, esan zein den egilea, estiloa eta gutxi gorabeherako kronologia-data.
- Egin lanaren azterketa formal eta ikonografikoa.
- Aztertu zein testuinguru historiko-artistikoan burutu zen.



A



B





2. Landu behean proposatutako bi gaietatik bat (5 puntu)

A.- “ARKITEKTURA ERROMANIKOA”

- Erromanikoaren testuinguru historikoa.
- Arkitektura erromanikoaren ezaugarri orokorrak.
- Erromanikoaren agerpen nagusiak Espainian eta Euskal Herrian.

B.- “XX. MENDEKO EUSKAL ESKULTURA: CHILLIDA ETA OTEIZA”

- Eskulturaren Euskal Eskola
- Oteiza eta bere lanak.
- Chillida eta bere lanak.



PROBARAKO ADIBIDEEN ERANTZUNAK

1. Bi irudi hauetatik bat hartu, aztertu eta egin bere iruzkina: (5 puntu)

- Sailkatu lana, esan zein den egilea, estiloa eta gutxi gorabeherako kronologia-data.
- Egin lanaren azterketa formal eta ikonografikoa.
- Aztertu zein testuinguru historiko-artistikoan burutu zen.

A



B





Erantzuna:

A



Oihal gaineko olio-pintura bat da, "Delft-eko ikuspegia" da izenburua eta Jan Vermeer da egilea. 1662koa da eta Europa erdialdeko barroko estilokoa da.

XVII. mendeko Holandan paisaia-eskaera handia egongo da, izan ere, gizarte-talde nagusiak, burgesiak, gai horiek eskatuko dituen etxeetako hormak apaintzeko. Vermeer-ek bere egin zituen Delft-eko eskolako ezaugarri orokorrak eta, era berean, Westfaliako hitzarmena sinatu (1648) eta hurrengo bost urteetan Holandako burgesian bizi zen klima espirituala islatzen du. Mota horretako lanek prezio altua hartzen zuten merkatuan, eta gai horri dedikatzen zitzaion eskola handi bat zegoen, bertatik aipagarrienak: Jan van Goyen, Meindert Hobbema edo Jacob van Ruysdael. Vermeer-ek ez zien paisaia horiei muzin egin, eta 1660ko hamarkadako lehen urteetan oihal gaineko olio-pintura hau egin zuen; lan honegatik 200 florin ordaintzera iritsi ziren Vermeer-ek utzitako ondarearen salmentan, 1696an. Lan hau burutzeko, kamera ilun batez baliatu omen zen. Objektu horrek argazki-kamera baten gorputz baten moduan funtzionatzen zuen; erabat iluna eta zulo txiki bat zuen kaxa baten barnean, lente batez islatutako irudia hartzen zen, proiektatutako eszena paperezko orri batean edota kristalezko plaka batean kopiatuz. Eszena altuera batetik dago hartua, horrela erakusten dute lehen planoan, Schie ibaiertzean dauden pertsonen irudiak ikusteko erabiltzen den perspektibak. Konposizio mota horrek, itsasertza diagonal antzera duela, Esaias van de Velde eta Pieter Brueghel "Zaharra" egileengan du inspirazio-iturria. Elementu arkitektonikoak paraleloan ordenatzen dira, Vermeer-ek barne-eszenetan egiten duen modu berean, Errenazimentu italiarraren perspektiba ortogonalari jarraiki. Horrela, ibaiaren atzean hiriaren defentsa-uhala osatzen duten eraikin multzoa dakusagu, Schiedam atea aurrean, eta bigarren lerroan beste eraikin multzo bat dago, horien artean Nieuwe Kerk dorrea nagusi. Bi lerroen artean argi-lerro bat dugu muga gisa, lehen planoan itzalean gelditzen baita eta atzealdean, berriz, argiztatua, elizako dorrea ateratzen dela. Horrek aditu askori pentsarazi dio erreferentzia politiko argi bat dela, Nieuwe Kerk elizan baitzegoen lurperatua Gillemo I. Orange-koa, 1584ean Delften hil zuten gobernadore holandarra, hiriak heroizat zuena espainiarren aurkako borrokan. Halaber, esan beharra dago, bere garaiko gainerako paisajistek ez bezala, Vermeer-ek ez duela Delft-en urruneko birproduktzio bat egiten, detaile bat bakarrik aurkezten du, baina hurbiletik. Lehen planoan ilundutako eraikinek askotariko puntu koloretsuak agertzen dituzte, horrela, pinturak dar-dar



egiten du, horretarako "pointille" teknika berezia erabiliz, argi-puntu distiratsuak oihalaren gainazal guztitik zabaltzen direla. Vermeer-ek jaioterriari egindako koadroa da, hiria inguratzen duen ibaiertzetik margotua. Artistak errepikapenak ikusi ditu teilatuen profil horizontalean, diagonal txikietan, triangelu formako hormapikoetan, hiriko ateetako arkuetan eta zubietan. Eraikinen lerro txikia uretan islatzen da lasaitasun lanbrotsuan. Pintura erdia baino gehiago laino arinek betetzen dute, eta laino horietatik igarotzen den argia aski da dorrearen detaileak eta zubi atzeko teilatuak antzemateko. Gaia: Holandako hiri txikia eta xumetasun poetikoa. Vermeer-ek hiri-paisaiaren gainean ezarri zuen ordenak badu matematikoa den zerbait. Kolore-intentsitateak, batetik, eta, bestetik, argiak, zuzenak edo islatutakoak, koloredun formen gainean uzten duen eraginak, batasuna sortzen du pintura osoan zehar. Elementu guztiak ziurtasun handiz daude espazioan kokatuta.

Vermeer-en unibertsoa argia eta higiezina denez, natura hilen ikuspegia duela esan izan da. Lainoen artetik iragazten den argiak eta uretako islek efektu aldakorak sortzen dituzte, eta garbi uzten dute badutela airezko perspektibarekin jokatzeko eta sakontasunaren ilusioa sortzeko gaitasuna. Sakontasun sentimen hori nabari da, esaterako, lehen planoko etxeetan, laino ilun handi batek estaltzen dituenaz, etxe horien itzalak uretan islatu, eta guregana islatzen dira. Etxeen atzean teilatuak eta dorre bat argiune batetik iragazitako eguzki-izpiek argiztatuak azaltzen dira.

Horrela, argi-ezberdintasunak modu bikainean atzematen dira, nahiz eta lasaitasuna den ikuspegiaren sentimen bereizgarrietako bat. Lan barrokoa da, eskola holandarrekoa.

B



Moises da, Migel Anjel Buonarrotti artistak, Italiako *Cinquecento* garaian artista adierazgarrienetarikoak, XVI. mendean egindako eskultura errenazentista. Julius II. aita santuaren hilobian dagoen irudi nagusia da, San Pedro in Vincoli elizan, Erroman. Mukulu biribileko eskultura da, eserita dago eta "karrara" marmolez egina.



Gaia biblikoa da: Moises profeta irudikatzen du, legearen taulak besapean dituela, eta irudikatzen du nola Sinai mendian berrogei egun pasa ostean, herrira, hots, israeldarregana iritsi eta izututa ikusten duela herritarrek Jehovarenganako kultura utzi dutela eta, horren ordez, urrezko zekorra ari direla gurtzen.

Modelatua perfektua da eta anatomiak naturalismo harrigarria erakusten du. Arropek irrist egin eta tolesdurak sortzen dituzte, horrek irudi guztiari bolumena ematen dion argi-itzalen jokoa sortzen du.

Konposaketaren egitura ardatz bertikala da, burutik hasi eta profetaren hankartean kokatuta dagoen tolesdura arte doana. *contrapposto* arin bat dago, buruaren biraketak eta besoen nahiz zangoen jarrera simetrikoak sortua: eskuineko besoa gorantz dago jarria eta ezkerrekoa beherantz, bestalde, zango bat bestea baino aurreratuago dago.

Lerro zuzenen aringarri eta konpentsagarri, paraleloan doazen bi lerro makur daude: ezkerreko besoraino doan bizar luze eta kizkurak osatzen duena, eta eskuineko beso luzatuan hasi eta ezkerreko zangoraino doana.

Konposaketa konplexu honen bitartez, artistak mugimendua lortzen du; tentsioan dauden besoko giharrek ere helburu hori lortzen laguntzen diote. Nabarmentzekoa da aurpegiaren adierazpena, indartsua eta gogorra. Badirudi Moises zuitzekotan dela. Uzurtutako aurpegiak herria zein haserre begiratzen duen transmititzen du. Migel Anjelen terribilita ospetsua da. Migel Anjelek lehen garaiko aurpegi lasaiak alde batera utzi eta markatutako adierazpidearen alde egiten du. Aukeraketa hori ziurrenik ez da soilik bere bilakaera pertsonalaren emaitza, baizik eta baita Laokoonteren talde helenistikoa ezagutu izanaren eragina ere, 1506an ezagutu eta Julius II.ak bere egin zuen taldea baitzen.

Batzuek Moises eskulturan eskultorearen beraren erretratua ikusi nahi zian dute, edo Julius II Aita Santuarena, gerlari izugarria eta gidari espirituala baitzen, Moises bibliako profeta bezala. Beste batzuek natura osatzen duten elementuen sinbolo izan daitekeela uste dute; horrela, bizarrak ura irudikatuko luke eta, ileak, sugarrak. Migel Anjelentzat bizitza aktiboaren eta kontenplaziozko bizitzaren arteko fusioa izan liteke, ideal neoplatonikoari jarraiki.

Lan honetan errenazimentuko eskulturaren berezkoak diren ezaugarri batzuk ikus ditzakegu, hala nola, arte klasikoarekin jarraitzea, edertasuna bilatzea, giza irudia eta bere anatomiarenganako interesa, eta ikuspegi formaletik perfektuak diren lanak lortzeko esperantza.

Migel Anjel Buonarotti (1475-1564), Italiako Cinquecento garaiko eskultore garrantzitsuena da. Errenazimentuaren irudia da, esparru guztietan aritzen da nagusitasunez (arkitekto, pintore eta olerkari gisa), dena den, eskultoretzat du bere burua. Errenazimentuak berreskuratutako ideal klasikoak hobekien irudikatu zituen gizona izan zen. Ihes egiten zuen idealizaio osotik eta kanpo-itxuraz haraindi ezkututzen den edertasuna zuen helburu. Bere ibilbide osoan zehar nabarmen ikusten da gizakiaren lehen irudia berreskuratu nahi duela. Ikuskera neoplatonikoa, errenazimentuan indartua, bere lan guztietan ageri da: funtsezkoena azken xedea da, gizakiaren barnealdea eta ez gizakia bera inguratzen duena. Bizitza osoa esfortzu erraldoi batean oinarrituko du, gatibu duen materiaren forma askatzea helburu.

Hona bere garai artistikoak:

- a) Gaztaroa (1491-1505), Florentzian, oso klasizista, edertasun ideala bilatzen du, Vatikanoko Pietat lanean bezala. Garai honetako lanik garrantzitsuena David da (gaur egun Florentzian).
- b) Helduaroa (1505-1534), Erroman, korrante manieristak azaltzen dira eta estetika-ideal klasizista desagertzen hasiko da, Moises eta Esklaboak lanetan bezala.
- c) Zahartzaroa (1548-1564), haustura erabatekoa da, eta karga espresiboak perfekzio formala ordezkatzeko, Pietat Rondanini lanean bezala.



Lan hau, Moises, bigarren garaiari dagokio. Artistaren mezenas julius II. Aita Santuaren hilobian dago, hark enkargatu baitzion 1505ean, nahiz eta artistak ez duen 1545arte bukatuko, hasiera bateko uste guztien kontra. Hasiera bateko proiektua hilobi huts bat zen, lau fatxadakoa, berrogei estatua handi baino gehiagorekin, Vatikanoko San Pedro kupularen azpian jarriko litzatekeena. Buruan zuten proiektu hori murrizten joango da arrazoi ekonomiko eta familiarrak direla eta (Aita Santua hila zen dagoeneko), eta Migel Anjelek hilobi atxiki gisa diseinatuko du. Esklaboak zizelkatuko ditu, gizakien bizitzaren loturen isla, eta Garaipena, baina bi lan horiek ez daude behin betiko hilobian, hau da, San Pedro in Vincolin (Erroman), han zazpi estatua bakarrik baitaude. Rakel eta Lia, kontenplaziozko bizitza eta bizitza aktiboa irudikatzen dutenak, Moises handia eta ia arbastatu ere gabeko beste batzuk.

2. Landu behean proposatutako bi gaietatik bat (5 puntu)

A.- “ARKITEKTURA ERROMANIKOA”

- Erromanikoaren testuinguru historikoa.
- Arkitektura erromanikoaren ezaugarri orokorrak.
- Erromanikoaren agerpen nagusiak Espainian eta Euskal Herrian.

B.- “XX. MENDEKO EUSKAL ESKULTURA: CHILLIDA ETA OTEIZA”

- Eskulturaren Euskal Eskola
- Oteiza eta bere lanak.
- Chillida eta bere lanak.

Erantzuna:

A.- “ARKITEKTURA ERROMANIKOA”

Erromanikoaren testuinguru historikoa.

Arte erromanikoa nazioarteko bihurtuko den lehen Europako estilotzat hartzen da. XI., XII eta XIII. mendeetan garatu zen, tradizio erromatarren eta eragin aurre-erromatar eta bizantziarren arteko baturaren emaitza gisa.

XI. mendearen lehen herenean hasi zen, “milurteko terrorea” nagusi zen garaian, alegia, mundua milagarren urtean amaituko zela uste zenean. Data beldurgarria pasa zenean, lasaitasun egoerak Jainkoarekin nolabait zorretan zeudela sentitzea ekarri zuen, horrela bada, jarrera ona nagusitu zen elizarekiko eta kongregazio erlijiosoekiko, eta hainbat santutegi eraiki ziren.

Erdi Aroko mendeen hain bereizgarri diren erromesaldiei estuki lotutako artea da erromanikoa. Horregatik, ezinezkoa da arte Erromanikoa Erroma, Lur Saindua eta Conpostelako Santiago bezalako hirietara egingarriak diren erromesaldietatik bereiztea.

Donejakue bidea bihurtu zen erromes-bide garrantzitsuena. Baina ez zen fenomeno erlijioso hutsa izan; Donejakue bidea salgaien, pertsonen eta kulturen garraibide garrantzitsua ere bihurtu zen.

Erromesak babestu behar ziren eta euren beharrei erantzun, horrela bada, Santiagorantz zihoazen bide nagusienetan askotariko eraikinak eraiki ziren. Horrela sortu ziren ibiltariak sendatzeko eta hartzeko lehen ospitaleak, aurretik zeuden hiriak garatu egin ziren eta berriak sortu ziren, eta berehala bihurtu ziren merkataritzarako eta bizitzeko gunek.



Igoera ekonomiko hura gertatu zen une berean, Europa mendebaldeko erreinu kristauen sendotzea etorri zen, eta sistema feudala indartu zen, gizartea hiru taldetan banatzen zuela, horietako bakoitza dagokion funtzioarekin, ongi bereizita. Borroka egiten zutenak, otoitz egiten zutenak eta lan egiten zutenak.

Arkitektura erromanikoaren garapenean Frantziako Cluny monasterioko orden beneditarrak ezinbesteko papera bete zuen, oso modu aktiboan parte hartu baitzuen erromesaldiak antolatzen.

Arkitektura erromanikoaren ezaugarri orokorrak.

Arkitektura erromanikoak Europa osoan berberak diren ezaugarri batzuk ditu, baina eskualde bakoitzak berezkoak dituen ezaugarriak ere hartzen ditu.

1. Materialak: Hormak harlanduz eraikitzen dira. Ez da egur gehiagorik erabiliko, sute-arriskua dela eta. Kasuren batean marmola edo adreilua erabiliko da.

2. Eraikitze elementuak:

- **Estalkiak:** *Erdi-puntuko* arku eta *kanoi-ganga* erabiltzen dira. Kanoi-ganga arku semizirkularra luzatzen delako lortzen da. Ganga zati ezberdinetan banatzen da parpain-arkuen bitartez, kanpoko *kontrahormarekin* bat datozela. Sistema horri esker, gangak bere gain jasaten duen bultzada barreiatu egiten da eta eraikina erortzea saihesten da. Askotan ertz-ganga ere erabiltzen da, batez ere tenpluetako ertzetako nabeetan, eta absideetarako *labe-ganga*. Gurutzaduran kupulak egon ohi dira, batzutan tronpen gainean eta besteetan petxinen gainean.

- **Euskarriak:** ohikoena *pilare konposatua* edo *gurutze formakoa* da, lau arku eutsi behar izatetik sortua, bi *parpain-arku* eta bi *arku-formero* hiru nabeta eraikinetan. Eraikin soilagoetan zutabeak daude. Ganga duen estalkiak horma sendoak eraikitze behartzen du. Ate eta leihoak turuta-arkudunak dira eta zutabeen gainean arkiboltak jartzen dira.

3. Oinplanoak: bi mota nagusi daude: basilika-oinplanoa, hiru nabeduna, eta gurutze latindarrarena. Azken hori erromesaldietako elizetan agertzen da, gurutzadura markatua du eta deanbulatorio edo *girola* bat dute, hau da, burualdearen atzeko pasilloa, erromesek gurtza eten gabe erlikiak bisita ditzaten. *Absideak* semizirkularrak dira, kapera txiki erradial edo absidoloekin.

Zenbaitetan erromesaldietarako elizek *tribuna* bat ere izaten dute, alboko nabeen gainean, nabe nagusiarekin tarteen bidez komunikatua, *triforioa* osatuz. Tenplu mota honek klaustroak izaten ditu, erdi-puntuko arkuekin normalean *binakako zutabeen* gainean. Salbuespen gisa, oinplano poligonalak egon daitezke.

4. Kanpoaldea: Eliza erromanikoen kanpoaldean *kanpandorrea* altxa ohi da, batzutan tenplutik kanpo, eta gurutzaduraren gainean dorre bat altxatzen da, *cimborrio* deitua.

5. Motak: arkitektura erlijiosoa nabarmen da zibila baino nagusiagoa. Arkitektura erlijiosoa bi mota nabarmentzen dira: *Eliza* eta *monasterioa*. Arkitektura zibilean bi mota hauek aurkitzen ditugu: gaztelua, defentsarako harrizko gotorlekua eta almenadun harresiekin; jauregia hirietan, nobleentzako edo elizako goi-karguentzako etxebizitza eta harresiak, Erdi Aroko hiri guztietan eraikiak defentsarako.



Arkitektura erromanikoa Espainian eta Euskal Herrian.

Kronologikoki bereizketa bat egin daiteke, "lehen erromanikoa" (X. mendearen amaiera-XI. mendearen lehen erdia, Katalunian) eta "erromaniko garbia" (XI. eta XII. Mendeak).

1. Lehen erromaniko katalana: X. mendearen amaieran Katalunian Italia iparraldean, Lonbardian, dagoen antzeko arkitektura sortuko da. Adierazgarriak dira *eliza txikiak*, basilika-oinplanoa dutenak, egurrezko sabai lauez estaliak, absideetan izan ezik, harlanduz eginiko hormekin -zakar zizelkatutako harri txikiz osatuak-, kanpoaldetik arkuez, lonbardi-bandaz eta kanpandorrez apainduak. Adibidea: *San Clemente de Tahull (Lerida)*.

XI. mendean asko eraikiko da: Ezin aipatu gabe utzi *Ripolleko monasterioak*, zazpi absidetako burualdearekin eta gurutzadura handiarekin, eta Rodako San Pedro.

2. Donejakue bideko erromanikoa (XI. mendea): Erromes-bidearen bitartez erromaniko frantsesaren eraginak barneratuko dira. Bide honetan zehar lau eraikin altxa ziren, arte erromanikoaren zabaltzaile bihurtuak Penintsula osoan zehar:

- *Jakako katedrala:* 1054. urtean hasi zen eta Aragoiko Donejakue bideko obrarik garrantzitsuena da. Basilika-oinplanoa du, hiru abside semizirkular eta hiru nabe, gurutze formako pilareek eta zutabeek berezita. Kanpoaldeko dekorazioan tipikoa da takeatua edo xakeztatua. Eragin handia izan zuen Aragoi eta Gaztelan.

- *San Martin de Fromista (Palentzia).* 1066. urte inguruan eraikia, hiru nabe ditu eta hiru abside, oinplanoan ez baina altueran nabarmentzen den gurutzadura, gurutze formako pilareak eta kanoi-gangadun estalkia. Bi dorre zirkular ditu fatxadan, erromaniko hispaniarraren berezkoak. Eliza honek eragin nabaria izan du Gaztelako lurretan.

- *Leongo San Isidoro Kolegiata.* Eliza bisigodo zahar baten gainean, lehenik eta behin kripta edo Panteon Real delakoa eraiki zen. Ondoren, 1090. urtean, *Petrus Deustamben* maisuak basilika-oinplanodun eliza eraiki zuen, hiru nabeduna, gurutze formadun eta puntu-erdiko arku *peraltatuak* dituzten pilareen bitartez bereziak. Gurutzaduran gingil-arkuak daude, eragin islamiarra dutenak. Oinplano mota horrek Leongo elizetan eragin zuen.

- *Santiago de Compostelako katedrala:* obrarik adierazgarriena da eta erromesaldietako elizen eredua. 1075ean hasi ziren lanak, *Pedro Gelmirez* artzapezpikuak bultzatuta. Lehen arkitektoak, Bernardo Zaharra eta Roberto maisua frantsesak ziren. Beranduago *Esteban* maisu ospetsuak egingo du lan; *Mateo* maisuari zor zaio "*Portico de la Gloria*" fatxada egin izana XII. mende amaieran.

Ezaugarriak: *Gurutze latindarreko oinplanoa, hiru nabe luzetara eta hiru saiheska, giroa eta bost absidolodun absidea, eta lau absidolo saiheska. Erdiko nabea estaliz kanoi-gangak daude, puntu-erdiko arku peraltatuen gainean; alboetako nabeek ertz-gangak dituzte. Pilareak gurutze formakoak dira, eta zutabe erdiak dituzte atxikiak. Gurutzaduran zinborio dorre oktagon bat du tronpen gainean.*

Galizian, Santiagoko katedralaren eraikuntzak eragin handia izan zuen inguruko eraikin guztietan.

Arkitektura erromanikoa Euskal Herrian

Erromanikoa Donjeakue bidearen bitartez sartu zen Euskal Herrian.

Bideak eragin handia izan zuen Nafarroan, Donejakue bidearen zatirik garrantzitsuena Nafarroako Erreinitik igarotzen baitzen, Frantzia eta Europa iparraldetik etorrira. Bestalde, Nafarroako erregeek monasterio beneditarrak bultzatu eta babestu zituzten, eta arte erromanikoa zabaltzea sustatu zuten, eraikin erlijioso eta zibilak ugaritzeko bide eman baitzuten.



Araba eta Ipar Euskal Herria bide nagusitik nahiz bide nagusi horren eragin-esparrutik gertu zeudenez, bertan ere nabarmen garatu zen aipatu estiloa, ordea, arte erromanikoa ia ez zen zabaldu Bizkaia eta Gipuzkoara, arte horren oso agerpen gutxi baitaude.

Nafarroan, estilo horren lehen agerpenetako bat Leireko monasterioaren kriptak da (1059). Dena den, Nafarroako erromanikoak XII. mendean ezagutu zuen loraldiaren punturik gorena. Garai hartako lanik garrantzitsuena desagertutako Iruñako Katedrala da, Nafarroako Museoa gordetzen dira aztarnetako batzuk. Lizarran eraikin erromaniko asko dago: Arkitektura zibilari dagokionez, Granadako dukeen jauregia nabarmentzen da, eta arkitektura erlijiosoan San Migel eliza eta San Pedro de la Rúa eliza eta honen fatxada. Donejakue bidean jarraituz, orijinaltasunagatik nabarmentzen dira oinplano poligonaleko bi eliza: *Santa Maria de Eunate eta Santo Sepulcro de Torres del Rio*.

Lur-eremu honetatik kanpo baina Nafarroan Somport eta Jakatik datorren bidean, Zangotzako Santa Maria la Real eliza nabarmentzen da, eta Nafarroako hegoaldean, Tudelako Katedrala, gotikorako trantsizio estilokoa.

Araban arte erromanikoa oso ugaria da, Nafarroa eta bide frantsesarekiko gertutasunagatik. Berandu hasiko den arte estiloa da (XIII. mendean), eta eskulturen aberastasuna eta dotorezia nabarmentzen da arkitektura bera baino. Badira tamaina eta ezaugarriengatik gainerakoen alboan nagusitu diren bi eraikin: Estibalitzeko Santa Maria monasterioa eta Armentiako San Prudentzio basilika.

Bizkaia eta Gipuzkoan arkitektura erromanikoak ez zuen berebiziko eraginik ezagutu. Iritsitakoa oso eskasa da eta, gainera, elementu arkitektoniko bakanak dira: Leihoak, portadak, zutaneak... Hauek elementu erromanikoak dituzten elizak Bizkaian: Abrisketako San Pedro (Arrigorriaga), Zumetzagako San Migel (Mungia), eta Guipuzkoan, San Juan Bautista (Albatzisketa), San Migel Arkangel (Idiazabal).

B.- "XX. MENDEKO EUSKAL ESKULTURA: CHILLIDA ETA OTEIZA"

- Eskulturaren Euskal Eskola.
- Oteiza eta bere lanak
- Chillida eta bere lanak

Erantzuna:

Eskulturaren Euskal Eskola

Aurrekariak

XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran tradizioarekin eta akademizismoarekin eteten hasi ziren euskal eskultoreak. Bi izen ditugu nagusi garai horretako euskal egoera artistikoan. Paco Durrio (1868-1940) eta Mogrobojo (1875-1910). Lehenengoa Gauiguin-en lagun mina zen, eta klasizismoa gainditzea lortu zuen *Monumento a Arriaga* (Bilbo) lanarekin.

Durrio izan zen eskultura sinbolismoaren eta modernismoaren lengoaietara moldatu zuen lehenengoa.

Mogrobojo-k, aldiz, eragin modernista eta Rodin-en aztarna nabaria uztartu zituen.



Eskulturaren Euskal Eskola.

50eko hamarkadan gertatu zen benetako sormen-mugimendua, nazioartean ere garrantzia izan zuena, eta *Eskulturaren Euskal Eskola* moduan ezagutu zenaren sorburua izan zen. Mugimendu honi belaunaldi ere deitu diezaiokegu, eta ildo bereziki abstraktuari ekin zion. Sentsibiltate bereko eskultore-taldea bildu zen, eta euren artean aldeak handiak izan baziren ere, ezaugarri komunok zituzten: hizkuntza abstraktua da nagusi, handitasuna atsegin dute, hertsiki lotuak daude naturarekin eta gizakiarekin, egurra, harria edo burdina bezalako materialak erabiltzen dituzte.

Eskultore-talde honetan eragina izan zuten XX. mendean zehar izandako korrante artistikoeak, eta erabili zuten lengoaia originalean abangoardiako mugimendu ezberdinen sintesia egin zuten (konstruktibismoa, abstrakzioa...), beti ere norberaren interpretazioarekin.

Talde hartako kide izan ziren besteak beste Néstor Basterretxea (1924), José Alberdi (1922), Ricardo Ugarte (1942), Agustín Ibarrola (1930), Remigio Mendiburu (1931-1984), V. Larrea (1934). Baina Jorge Oteiza eta Eduardo Chillida izan ziren mugimendu honetako ordezkari nagusienak eta euren garaikide izan zirenetan eragin handien aizan zutenak.

Oteiza eta bere lanak

Jorge Oteiza Embil (Orio, 1908 – Donostia, 2003).

Oteiza da, inongo zalantzarik gabe, XX. mendeko sortzaile euskaldun adierazgarrienetako bat. Zaila da bere lana definitzea, izugarri pertsonala den lana baita. Oteizaren eskulturak XX. mende hasierako abangoardia artistikoetan errotzen dira, batez ere *neoplastizismoan* eta *konstruktibismoan*, era berean, II. Mundu Gerra osteko artisten moduan, sentiberatasun berezia sentitzen du abstraktua, espirituala eta humanista den horrekiko.

Oteiza 30eko hamarkadan hasi zen lanean, eta bere lehen lanak figuratiboak ziren. Hegoamerikan egindako egonaldiaren ostean, 1947an itzuliko da, euskal arte berria bultzatzeko asmoz. Hainbat agerpen artistikotan hartuko du parte, esate baterako, Arantzazuko basilikako estatua-lerroa; proiektu horretan erlijioa despersonalizatzen da, irudiak hustu egiten dira, eta espaziora irekitzen direnez, eduki izpiritualak betetzen dira.

Arantzazuko lanetan Oteizak burututako estiloa 50eko hamarkadan garatu zen, eta izaera herritar sendoa zuten lanak ziren, konnotazio espiritual sakonekoak. "*Arantzazuko apostoluen frisoa*" izan zen Oteizaren lehen garai figuratibo eta antropomorfo horretako lanik garrantzitsuenak.

Ordutik aurrera, Oteizak espresionismoa eta figurazioa alde batera utzi, eta abstrakzioaren bidea hartuko du, ikerketa geometriko-arrazionala oinarri hartuta eta formaz baino, formen arteko espazioaz arduratuz, horrela, izpirituzko esanahi sakona duen hutsaren estetika landuko du.

1957an Eskulturaren Nazioarteko Saria jaso zuen Sao Pauloko IV. Bienalean, aurkeztu zituen familia esperimentaleko 28 eskulturrei esker; katalogo bat ere argitaratu zuen, *Propósito experimental 1956-57* izenekoak; bere lanen printzipio teorikoak biltzen dira bertan. Sao Pauloko sariaren ondoren hutsak eta isiltasunak bere lanean irabazten ari ziren garrantziaz hausnartu zuen Oteizak.

1959an artistak eskultura utziko du eta artista-taldeak bultzatzeari eta sortzeari ekingo dio, hala nola, *Gaur* talde garrantzitsua. Euskal kulturarekin duen konpromisoak bultzatuta, euskal kultura defendatzeko mugimendu eta jarduketan gidari bihurtuko da. Testuinguru horretan sortuko dira Euskal Eskolaren taldeak. Aipatutako *Gaur* taldea izan zen aktiboena.



Hirurogeiko hamarkadan ikerketa estetiko eta linguistikoari ekingo dio, eta esparru horretan egindako lana Quosque tandem! lanean argitaratuko du(1963), edo *Ejercicios espirituales en un túnel* lanean (1965).

1972 eta 1975. urteen artean eskulturgintzara itzuliko da, eta serie esperimental batzuk burutuko ditu. Bere azken garaietara atzera begiratzuz *minimalismo* amerikarrarekin lotu ziezaiokeen, hain zuzen ere, artistaren garai sortzailearen ostean sortu zen mugimenduarekin.

Oteizaren ekoizpenean aurki ditzakegu, besteak beste, monumentu-monolitoak (*Preso político ezezagunaren monumentua*) kutxa edo eraikin geometriko eta desokupatuak (*Kutxa metafisikoa*), murriztasunaren burutzea eta hutsaren protagonismoa islatzen dute.

Chillida eta bere lanak.

Eduardo Chillida Juantegu (Donostia, 1924 – Donostia, 2002).

Eduardo Chillidaren lehen lanak figuratiboak dira, harrian edo igeltsuan zizelkatuak. Lanek arkaismo grekoaren eta kouroi-en eragina dute, adibidez, *Torsos* seriea, *Henry Moore*-n arrasto garaikidea ere ageri dute, azken hau atzerrira egindako bidaietan ezagutu zuen.

Baina Chillidak berehala utziko du alde batera antropomorfoa dena eta erabat murgilduko da abstrakzioan.

1950ean Hernanin finkatuko da, eta han material berri batekin jarriko da harremanetan, burdinarekin, horrela, errementari batekin hasiko da lanean forjan. Burdina euskal artisautza tradizionalarekin konbinatu eta esperimentatzeko bide ugalkor bat ezagutuko du. Lehen pieza burdinaran egingo du, *Ilarik* 1954n Oteizarekin batera egingo du lan Arantzazuko basilikan, eta burdinazko lau atek egingo ditu, bere horretan eskulturak diren horiek.

Horrela hasiko du Chillidak abstrakzioaren ibilbidea. Naturagatik duen ikuspegia kontuan hartuta, 1963an beste materiala erabiltzen hasiko da, hala nola, egurra, alabastroa, hormigoia, buztina edo, aurrerago, baita portzelana ere. Orain, bere lan handiaren gehiengoaz *Chillida Leku* museoan goza daiteke, Hernaniko Zabalaga baserrian.

Chillidaren formak: Nola modu pertsonalean, nola maila gizatiarrean lan egiten zuenean, barne-dekoraziorako piezak egiten zituenean nahiz espazio publikoetarako lanak sortzen zituenean, guztietan ere masa eta bolumenen etengabeko jokoak aurkitzen ditugu, gauzen mugan egoteko erakusten zuen kezka adierazle, bolumenaren eta espazioaren arteko muga nahiz bien artean dagoen lotura bilatzea zuen helburu.

Chillidaren lanaren ezaugarria da espazio irekietan sartzen dela, horiekin bat egiten duela euren parte izateko. Horrela bada, eskulturak museoetako presondegietatik ihes egiten dute, "kalea bereganatzen dute" eta edozein pertsonarengana gerturatzen dira, hark horrela nahi badu. Esate baterako, *Haizearen orrazia* Donostian; *Horizontearen gorazarrea*, Xixonen; *Gasteizko Foruen Enparantza*; *Askatasunaren atea*, Bartzelonako auzo gotikoan; eta agian bere lanik enblematikoa, *Gure Aitaren Etxea*, Gernikan.



Oharrak.

Hemen eskaini diren erantzunen luzera gutxi gorabeherakoak besterik ez dira. Galdera bakoitzaren erantzunaren luzera eta garapenean sakontzeak alderdi guztiak ahal den neurrian jorratzera eraman behar du, ez eman daitekeen erantzunetako baten sakontzera.

ZUZENKETARAKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

- **Zati praktikoa:** proposatutako irudiari erantzungo zaio, betiere honakoa kontuan hartuta: testuinguru historiko-kulturala, lanaren iruzkin teknikoa, nola ikuspuntu formaletik nola irudiaren esanahiari dagokionez, irudia dagokion estiloan kokatzea, garaia eta kronologia-data zehaztuz eta, hala badagokio, baita egilea ere.

- **Zati teorikoa:** Proposatutako galderari argitasun eta koherentziaz erantzungo zaio, eta zehatz-mehatz frogatuko da galderaren funtsezko puntuak menderatzen direla eta, hala badagokio, baita estilo horretako egile eta lan aipagarrienen ezaugarriak ere, betiere dagokion hiztegi zehatza erabiliz.

Hona hemen zati bakoitzari emango zaion **puntu-kopurua:**

Zati Praktikoa: gehienez 5 puntu.

Zati Teorikoa: gehienez 5 puntu.



PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA ADIERAZLEEN ARTEKO ELKARREKIKOTASUNAK

Galdera	Ezagutza-adierazlea
1	2,3,4,5,6,7,8,10
2	1,2,3,4,6,7



PROGRAMAZIOA ETA IKASKETARAKO BALIABIDEAK

• PROGRAMAZIOA

Moduluan barrena ibilbide didaktiko hau egiteko, gaiaren curriculuma osatzen duten multzoetan, edukietan eta ezagutza-adierazleetan oinarritu gara. Bi eduki-multzo ditu, eta sei ikasketa-unitatetan banatu ditugu.

Gure garaiko kulturaren bereizgarrietako bat da ikusmenari garrantzi handia ematen diola adierazpide gisa. Ikusmenaren bitartez, gizateriak pentsatzeko modu bat adierazi nahi du, eta garai historikoetako oinarri kulturalak zein izan ziren jakiten ere saiatzen da.

Garai bateko eta egungo artelanak ongi ulertzeko, artelanak interpretatzen jakin behar da, bai eta kokaleku duten testuinguru historiko eta kulturala zein den ezagutu ere. Artelana balioesteko orduan faktore historiko eta pertsonalak tartekatzen badira ere, badira egoera horiekin zerikusirik ez duten funtsezko irizpide batzuk. Horregatik emango zaio garrantzia estiloen bilakaerari eta arte-estilo bakoitzeko artelan eta artista adierazgarrienen ezaugarriei.

Ezinbestekoa da, batetik, artelana bere testuinguru soziokulturalean aztertzea, horixe baita abiapuntua artelana sortzeko prozesuan egondako faktore eta egoeren analisia egiteko eta, bestetik, testuinguruan jarritako arte hori garai historiko bakoitzeko ikusmen-kulturaren baitan balioestea, esan behar baita artelanek bestelako pisua hartzen dutela denbora joan ahala, gizartean zuten erabilpena eta funtzioa ezberdina baitzen garai bakoitzean.

Artearen Historia ikastearekin batera, ikasleek beharrezkoak dituzten ezagutzak izango dituzte, artelanak, formen hizkuntzaz eta ikusmen-pentsamenduaz baliatuz, azertu, interpretatu eta balioesteko.

Gaien hurrenkerari dagokionez, uste dugu modulua curriculumean azaltzen zen hurrenkera kronologikoa errespetatzea komeni dela, hots, denboran urrutien kokatzen diren gertakarietatik hasi eta hurbilenekoetara iritsi arte.

Ikasketa-unitate bakoitzean unitatearen ikuspegi orokor bat izateko oinarrikoak deritzogun kontzeptuak zehazten ditugu. Horrek ez du esan nahi ikasketa-unitatearekin lotutako eta garrantzizkoak irizten diren edukiak gehitu ezin direnik. Ikasketa-unitate bakoitzean kontuan hartu behar da hainbat prozedura eta teknika landu behar direla, ezinbestekoak ekintza artistikoen erabateko ezagutza erdiesteko. Hona hemen prozedura eta teknika horiek:

- Artelanen azterketa eta iruzkina.
- Kode ikonografiko eta ikonologiko nagusiak interpretatzea.
- Artelan adierazgarrienak kronologikoki eta espazialki kokatzea.

Era berean, ikasketa-unitate bakoitzean dagokion irudiak jarri dira, programazioan dagoeneko aipatzen zirenak.

Unitate bakoitzari eskainitako denbora, garatu beharreko edukien arabera egokitzen jo duguna da, baina denbora horiek ez dira behin betikoak. Unitate bakoitzeko irakasleen lanak edota amaierako balioespenak lagunduko digute ordu-kopuruak egokiak ote diren ikusten.



Eduki multzoak	Ikasketa Unitatea	IZENDAPENA	Ordu kopurua
1	1	Artea giza adierazpide gisa	6
2	2	Artea Antzinaroan	14
	3	Artea Erdi Aroan	22
	4	Artea Aro Modernoan.	22
	5	Artea Mundu Garaikidean	22
	6	Europako, Espainiako eta Euskal Herriko Arte Museo eta Bilduma nagusiak.	4
GUZTIRA			90

1. Ikasketa Unitatea: ARTEA GIZA ADIERAZPIDE GISA (6 ordu)

Artelana espirituaren agerpen bat da, gizakiak egindakoa. Teknikaren bidez, giza adimenean sortzen den ideia errealtate bihurtzen da. Artelanean kontuan hartu behar dira, artelana burutzeko jarraitutako prozedura, nola agertzen zaigun, asmoa eta helburua.

Unitate honetako helburuetako bat da artearen egungo kontzeptura hurbiltzea, eta ulertzea historian zehar izan dituen esanahi eta funtzio ezberdinak. Beste helburu bat da ulertzea zer den artearen historia eta zein den bere aztergaia, bai eta artearen historiaren metodologia ezberdinak ezagutzea ere.

Azkenik, aipatu den moduan, gai honetako oinarrizko prozeduretako bat artelanen iruzkinak egitea denez, sarrerako unitate honetan ikasleari eskema erraz eta argi bat eman behar zaio, arkitektura, eskultura eta pinturako lanak aztertu eta komentatzeko.

Oinarrizko edukiak:

- Arte estiloak.
- Arteak bete dituen gizarte-funtzioak historian. Arteak eta artistek gizartean izan duten papera, eta euren bilakaera prozesu eta testuinguru artistiko ezberdinetan.
- Ikus-mintzaira: materialak, prozedura teknikoak eta elementu formalak arkitekturan, eskulturan eta pinturan.
- Ikonografia eta ikonologia: Gaien eta lanen tratamendua eta esanahia.

2. Ikasketa Unitatea: ARTEA ANTZINAROAN (14 ordu)

K.a lehen milurtekoan, mendebaldeko kulturaren sortzaile ziren greziak Grezia eta Erromara pasako dira. K.a V. mende inguruan Greziak funtsean mendebaldeko artearen ezaugarri izango diren formak eta estetika sortuko ditu. Erromak ezinbesteko lana beteko du, kultura mediterranearra batu eta homogeneotasuna emango baitio.

Arte grekoarekin, berriz, mendebaldeko kulturaren nagusi izan diren kontzeptu estetikoak sartuko dira bere osotasunean. Arte erromatarren kultura mediterranearen bilakaera-prozesua burutuko du.

Oinarrizko edukiak:

a) Arte grekoa

- Arkitektura: Ezaugarri orokorrak. Tenplu grekoa. Hiru ordena klasikoak: doriarra, joniarra, korintiarra.
- Eskultura: Garai arkaikoa. Eskultura klasikoa. Helenismoa. Eskultore ospetsuenak: Miron, Polikleto eta Fidias. Praxiteles, Escopas eta Lisipo.

b) Arte erromatarra



- Greziarren herentzia arkitekturan: Tenplua.
- Arkitektura baliagarria: Hirigintza eta Herri Lanak.
- Eskultura erromatarra: Erretratua eta erliebe historikoa.
- Hispania erromatarra

3. Ikasketa Unitatea: ARTEA ERDI AROAN. (22 ordu)

Europar V. mendetik XI. mendera burutu ziren artelanek kultura klasiko greko-erromatar eta kristauaren ondarea islatzen dute; paganoak ziren gai batzuei zentzu erlijioso berri bat eman zien ondare horrek.

Aipatu ondare horri Bizantzioren ekarpen artistikoak gehitu behar zaizkio.

Arte nahiz kultura-herentzia horiek guztiek osatuko dute XI. mendeko Europa erromanikoa. XII. mendearen amaieraz geroztik espiritu berri bat nagusituko da Europan, eta argia eta bizia ekarriko ditu. Erromaniko nekazari, feudal eta monasteriokoaren aurrean, gotikoa hiritarra da, eta landaguneko monasterio bakartuaren ordezkari hiriko katedrala nagusitzen da. Ez dugu ahaztuko aldaketa horiek Espainian eta Euskal Herrian izango duten isla.

Oinarritzko edukiak:

a) Artea erlijio handien zerbitzura. Kristautasuna eta Islama.

- Arte paleokristaua: Katakombak. Basilika paleokristaua.
- Bizantziar artea: Santa Sofia kupularen garapena. Bizantziar mosaikoa.
- Arte islamiarra Iberiar Penintsulan (Al Andalus). Kordobako meskita.
- Arte prerromanikoa iberiar penintsulan: Bisigotikoa, asturiarra eta mozarabiarra edo birpopulaketakoa.

b) Arte erromanikoa

- Arte erromanikoa: ezaugarri orokorrak. Frantzia eta Iberiar Penintsula.
- Arkitektura Erromanikoa. Erromesaldirako elizak eta monasterioak
- Eskultura erromanikoa: Aurrealde handiak.
- Pintura erromanikoa Espainian. Tahull eta Leongo San Isidoro.
- Arte erromanikoa Euskal Herrian

c) Arte gotikoa.

- Arte gotikoa: ezaugarri orokorrak. Frantzia eta Iberiar Penintsula.
- Arkitektura gotikoa. Katedrala eta bere egitura.
- Eskultura gotikoa. Alderdi orokorrak.
- Pintura gotikoa: Italiako trecentoak: Giotto. XV. mendeko Flandeseko primitiboak: Van Eyck sendia
- Arte gotikoa Euskal Herrian

4. Ikasketa Unitatea: ARTEA ARO MODERNOAN. (22 ordu)

Garai honetan Antzinate Klasikoko printzipioak berreskuratzen dira, humanismoaren bitartez eguneratzen dira, tradizio kristauari muzin egin gabe, baina Erdi Aroko erlijioaren nonahikotasunaren ordezkari, munduari eta gizakiari dagozkien baloreak baieztatu ziren.

Errenazimentuak mundu gotikoaren sistema formala beste sistema batez ordezkatu zuen, antzinate greko-erromatarren eredua oinarri zuen beste batez, edertasuna eta harmonia helburu.

Bestalde, Barrokua mendebaldeko kulturara etorri zen unea nazionalitateak baieztatu ziren unea zen, Erreforma-Kontraerreforma tentsioaren unea, eta sistema ekonomiko berriak agertu ziren unea. Errenazimentuak berezkoa zuen arrazoien eta edertasunaren arteko orekaren aurrean, orain hauek



nagusituko dira: Berehalakoa eta egunerokoa dena atsegin izatea eta, era berean, monumentala, aberatsa, txundigarria denaren aldeko interesa, boterearen eta agintearen adierazpideenez. Barrokoa mugimenduaren eta tentsio dramatikoaren artea da.

Oinarrizko edukiak:

a) Errenazimentua.

- Errenazimentua Frantzia, Herbeheretan eta Alemanian.
- Italiako errenazimentua: Arkitektura eta eskultura. Brunelleschi eta Alberti; Ghiberti eta Donatello.
- Italiako errenazimentua: Pintura: Massacio, Botticelli, Leonardo, Miguel Angel eta Tiziano.
- Espainiako errenazimentua: Arkitektura: Platereskoa. El Escorial-eko lana. Pintura: El Greco.
- Errenazimentua Euskal Herrian.

b) Barrokoa

- Barrokoa Italian: Bernini eta Borromini. Caravaggio.
- Barrokoa Flandes eta Holandan: Rubens, Rembrandt eta Vermeer.
- Barrokoa Frantzia eta Ingalaterran.
- Pintura barrokoa Espainian: Velazquez
- Barrokoa Euskal Herrian
- Rokoko: ezaugarri orokorrak.

5. Ikasketa Unitatea: ARTEA MUNDU GARAIKIDEAN. (22 ordu)

XVIII. mendetik XIX. mende erdia arte, Neoklasizismoa eta Erromantizismoa korrante artistikoekin emango zaio hasiera arte garaikideari. Neoklasizismoa arte lasaia eta orekatua da, rokoko estiloko formez nekatuta. Garbitasuna, argitasuna, oreka eta iraganeko artearekiko, hots, klasizismoarekiko fideltasuna ditu oinarri. Erromantizismoa, bestalde, sentimenduaren eta kolorearen artea da, sena lehenesten du arrazoiaren aurrean eta desoreka armoniaren aurrean. Paisaia ezagutuko da eta gai historikoak eta kostunbristak nabarmenduko dira. Testuinguru honetan sortuko da Goya, aparteko atala merezi duen artista, izan ere, Neoklasizismoko artisten belaunaldikoa bada ere, ez zituen aipatu estiloaren ildo estilistikoak jarraitu, baizik eta bere estilo pertsonalari jarraituz arte garaikidearen aitzindari izan zen.

XIX. mendearen bigarren erdian benetako berrikuntza hasiko da pinturan, lehenik eta behin Errealismoarekin eta, geroago eta batez ere, Impresionismoarekin. Errealismoaren helburua da errealitatea bere horretan adieraztea, eguneroko bizitzaren ikuspegi zehatza ematea eta gizarteko giroak deskribatzea, batez ere egoera onenean ez daudeneke bizi duten giroa, eta askatasunaren defentsa aldarrikatzea. Impresionismoak aldaketa sakonago bat dakar: pinturak "arte naturalaren imitazio gisa" ikuskera tradizionala alboratuko du eta teknika, gai eta forma berriekin esperimendatzen hasiko da, eta argiaz, ikuspegiarekin eta koloreaz arduratuko da.

Esperimentazio horrek XX. mendearen lehen erdian izango du bere isla, abangoardia artistikoen eta abstrakzioaren mugimenduetan. Arteek eraldaketa hain sakonak biziko dituzte, ez dituztela soilik aldaketak jasango, baizik eta burgesiaren gustu tradizionalarekin eta arte tradizionalaren irizpideekin hautsiko da.

Impresionismoarekin pinturan bizitako iraultzari, arkitekturak eta eskulturak XIX. mendetik aurrera jasandako eraldaketak gehitu zaizkio. Arkitekturan egondako eraldaketak gehiago izango dira berrikuntza teknikoak, arkitektura-elementuen aplikazio berri bat baino. Industria iraultzan sortutako material berriek, hala nola, burdinak edo hormigoi armatuak, prozesu hori erraztuko dute. Eskultura ere ez zen aldaketatik at gelditu, eta urte horietan biziko duen iraultza nabaria izango da, aurreko mendeekin alderatuta; eskultura figuratiboak protagonismoa galduko du eta kontzeptu eta teknika berriak azalduko dira.



XX. mendearen bigarren erdian estilo edo joera aukera zabala egongo da artearen esparruan, artista garaikideri berezkoa zaion erabateko sormen-askatasunari esker. Garai hau da, baita ere, garrantzitsuena euskal artean, orduan lortuko baitu protagonismorik gehien.

Oinarrizko edukiak:

a) Pintura XIX. mendean

- Goya eta pintura neoklasikoa.
- Erromantizismoa: Gericault.
- Errealismoa. Courber eta Millet.
- Impresionismoa: Manet eta Monet.
- Postimpresionistak; Van Gogh eta Cezanne.
- Espresionismoa.

b) Eskultura eta arkitektura XIX. eta XX. mendeetan.

- Tradizioa Canovarengan. Berrikuntza Rodinengan.
- Neoklasizismotik burdinaren arkitekturara.
- XX. mendeko arkitektura: Modernismoa: Gaudi. Arrazionalismoa: Le Corbusier. Organizismoa: Wright . Deskonstruktibismoa.
- Arkitektura eta hirigintza Euskal Herrian.
- Euskal eskulturgintza XX. mendean.

c) XX. mendeko abangoardiak pinturan:

- Fauvismoa: Matisse
- Abstrakzioaren hasiera: Kandinsky.
- Kubismoa. Picasso.
- Surrealismoa: Dali eta Miro.
- Espresionismo abstraktua.
- Pop Art. Hiperrrealismoa. Azken joerak.
- Euskal pintura XX. mendean.

6. Ikasketa Unitatea: EUROPAKO, ESPAINIAKO ETA EUSKAL HERRIKO ARTE MUSEO ETA BILDUMA NAGUSIAK. (4 ordu)

Museoek, nola publikoek nola pribatuek, guztion eskura jartzen dute kultur ondare garrantzitsu bat, eta artelanaren eta ikuslearen arteko topaketa eta komunikazioa errazten dute, nahiz eta hori obrak berak helburu ez zuen inguru batean gertatzen den. Museoaren funtzioak dira, bildumak eta artelanak kontserbatu, zaharberritu eta erakustea, helburu gisa heziketa, ikerketa edo, besterik gabe, gozamina duela.

Unitate honetan Europa, Espainia eta Euskal Herriko museo nagusienetatik egiten da ibilbidea, batetik, bilduma horien jatorriak zein diren jakiteko eta, bestetik, erakusten eta biltzen dituzten artelan garrantzitsuenak zein diren jakiteko. Horretaz gain, agerian utzi nahi da gaur egun aho batez aldarrikatzen dena, hots, nazio bakoitzaren izaera historikoaren lekuko diren ondasun kulturalak mantentzearen nahia.

Ezin ahantz daiteke, bestalde, museoak, artearen historiaren intelektual eta adituek bisitatzen zituzten lekuak izatetik lehen mailako erakurpen turistikoko izatera pasa direla azken aldi honetan.

Oinarrizko edukiak:

- Museoak: funtzioa eta motak.
- Europako, Espainiako eta Euskal Herriko museo nagusiak eta horiek dituzten bilduma nagusiak.



Ikasketa Unitateen eta ezagutza-adierazleen arteko elkarrekotasunak.

Ikasketa Unitatea	IZENDAPENA	EZAGUTZA ADIERAZLEAK
1	Artea giza adierazpide gisa	1, 2,5,6,7,8,
2	Artea Antzinaroan	2,3,4,5,6,7,8,10
3	Artea Erdi Aroan	2,3,4,5,6,7,8,10
4	Artea Aro Modernoan.	2,3,4,5,6,7,8,10
5	Artea Mundu Garaikidean	2,3,4,5,6,7,8,10
6	Europako, Espainiako eta Euskal Herriko Arte Museo eta Bilduma nagusiak.	9

Metodologia

Edukiak dira egungo munduko artea eta iraganetik hona izan duen bilakaera ulertzeko behar diren ezagutza-oinarriak. Horrek ez du esan nahi ikasketa-unitate hauetako edukiak buruz ikasi behar direnik; alderantziz, ideiak ulertuz barneratzen saiatu behar gara (arrazoituz eta modu kritikoan), eta testuinguruari jarraiki denboran nahiz espazioan, betiere orainari erreferentzia eginez, gertakari haiek egungo gizarteetan izan duten eragina kontuan hartuta. Metodologiari dagokionez, prozedurak azpimarratuz, batez ere ikasketa-unitate bakoitzean artelanen iruzkinak eginez, lortuko dugu aurrez proposatutako xedea.



• IKASKETARAKO BALIABIDEAK

Gai hauek prestatzen laguntzeko (prestaketa autodidakta nahiz zuzendua), material curricularrak erabiltzea ezinbestekoa da, horien artean adierazgarrienak testu-liburuak, kontsulta-liburuak, monografikoak etab. baina betiere ikus-entzunezko materialak eta/edo material digitalak albo batera utzi gabe.

Modulu hau Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoan ikasitako edukiakin bat dator, funtsean eta, zehazki, Artearen Historia gaiarekin bat, beraz, maila eta gai horretako edozein testu-liburuk balio du aurrez deskribatutako ikasketa-unitateak prestatzeko, nola ikasketa irakaslearen gidaritzapean egiten dugun nola modu autodidaktan egiten dugun.

Kontuan izan behar dugu testu-liburuak modu egituratuan, ordenatuan eta konpentsatuan ematen digula informazioa gai bakoitzari buruz; gainera, edukiak behar bezala ulertzeko behar dituen baliabide eta elementu guztiak ematen dizkio ikasleari. Kontsulta-liburuak, atlasak eta internet helbideak osagarri bikainak izango dira gaiak sakondu nahi dituen ikaslearentzat.

BIBLIOGRAFIA

Testu-liburuak

Asignatura honetako edukiak prestatzeko Artearen Historiari dagokion Batxilergoko edozein testu-liburu izango da erabilgarri, nola euskarazko nola gaztelaniazkoa. Besteak beste argitaletxe hauetakoak: Anaya, Vicens Vives, Teide, Edebe, Ecir, Akal, Ibaizabal (euskaraz eta gaztelaniaz), etab.

Testu-liburu horietako edozeinen bitartez ikasketa-unitate guztietako edukien jarraipena egin dezakete, nola irakasleek nola ikasleek, modu ordenatu eta egituratuan.

Artearen Historiari buruzko eskuliburu orokorrak

Hemen hautatzen ditugun erreferentzia bibliografiakoak erabilgarri irizten ditugu, nola gai honetako edukiak prestatzen ari den ikaslearentzat nola eduki horiek emango lituzkeen irakaslearentzat.

- RAMIREZ, J.A. (Zuz.), *"Historia del Arte"*, 4 liburuki. (Antzinaroa, Erdi Aroa, Aro Modernoa, Mundu Garaikidea), Madril, Alianza, 2001.
Obra klasikoa eta laburra, Artearen Historian hasteko balio dezakeena.
- GROMBICH, E. *"Historia del Arte"*. Debate, 2004
Dibulgaziozko klasiko laburra.
- HARTT, F. *"Arte. Historia de la pintura, escultura y arquitectura"*. Akal, 1989.
- BORRAS, G.; ESTEBAN, J. F.; ALVARO, I. *"Introducción General al Arte"*. Istmo, 1994.
Artearen inguruko kontzeptu orokorreari buruzko gaikako liburua.
- Hainbat Egile: *"Euskal Artearen Historia"*. Erein, 1999. Garai bakoitzerako sarrera historiko bat du eta lan adierazgarrienak aztertzen dira. Atal bakoitzaren amaieran edukiaren laburpen bat ematen da eta bibliografia espezifikoak.



Gaztelaniazko bertsioa:

- PLAZAOLA ARTOLA, J. "Historia del Arte Vasco" (4 liburuki). Ostoa, 2002
- "Euskal Artearen Historia". Kriselua, Donostia, 1992
- FERNANDEZ, Jose Javier. "Euskal Herriko Artea". (Euskal Gaiak). Ibaizabal, 2003

Honako serie hauek dibulgatzaileagoak dira: "Historia ilustrada de las formas artísticas", Alianza Editorial, "la Biblioteca básica de arte", Anaya argitaletxea eta "Cómo reconocer el arte", Edunsa argitaletxea.

Web orriak

Internetek Artearen Historia ikasteko aukera handiak ematen dizkio ikasleari, batez ere aurki ditzakeen irudi kopuruagatik eta horien kalitateagatik; gainera, arte-museo askotarako sarbide birtuala dago.

www.artehistoria.com

Web-orri hori hainbat edukiren gainean ematen duen informazio kantitateagatik nabarmentzen da, eta informazioraino eramaten gaituen bilaketa mekanismoa duelako. Web orri hau artearen historiaren entziklopediatzat ere har dezakegu, eta informazio zehatza lortzeko erabil dezakegu.

www.ciudadpintura.com

Web-orri hau irudien kalitateagatik nabarmentzen da, eta edukiak modu ordenatuan aurkezten dituelako (kronologikoki, estiloka, garaika, herrialdeka, egileka etab).

www.xtec.es/~sescanue

Ibilbide bat historiako estilo, obra eta arkitektura-elementu garrantzitsuenen artetik. Orri honetan Arkitekturaren Historiako garai eta lan garrantzitsuenak daude.

www.documentarte.com/

Arte garaikideari buruzko dokumentazio-zentro handia, bertan kontsultatu daitezke, erakusketak, artistak, iruzkindutako artelan kopuru handi bat, mugimendu artistikoak eta artearen ibilbidean egon diren une ezberdinekin lotutako pertsonaia historikoen bilduma oso bat.

<http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-712/es/>

Euskadiko museo nagusietarako sarbidea.

<http://www.librys.com/museos/>

Munduko museo nagusietarako sarbidea.



CD-ROMAK

CD-Romek Interneten lor daitezkeen baliabide antzekoak eskaintzen dituzte, baina konektatu egon behar gabe.

-“[Imágenes del Arte Vasco](#)” “[Euskal Artearen irudiak](#)”. Ostoa, 2002

Lehen aipatutako gaztelaniazko nahiz euskarazko liburuen osagarri diren materialak dira, irakasle eta ikasleek modu azkar eta antolatuan lor ditzakete liburuko irudiak.

- “Los grandes momentos del arte”. Dolmen

Bilduma honek Artearen Historia osoa dakar, 12 zenbakitan historiaurretik hasi eta XX. mendeko abangoardia arteko artearen ikuspegia eskaintzen du.

- “Los grandes museos de Europa”. Emme Interactive



IRUDIEN KATALOGOA

Behean eskaintzen ditugun irudien zerrenda beren kontura ikasiko duten ikasleei eta gai hau emango duten irakasleei laguntzeko asmoz eskaini nahi izan dugu. Ez dira, inolaz ere, azterketan agertu beharreko bertsioak

Arte klasikoa antzinaroan

a) Arte grekoa

Kóuros de Anavissos 1

Kóuros de Anavissos 2

Fidias: Procesión de las panateneas

Ictinos y Calícrates:

El Partenón

El Partenón - Fachada.

El Partenón - Planta.

Policleto: El Doríforo

Mirón: El Discóbolo

Praxíteles: Hermes

Lisipo: Apoxiomenos

Laocoonte y sus hijos

Templo de Atenea Niké

b) Arte erromatarra

Atrio de una casa. Compluvium.

Atrio de una casa. Esquema.

Atrio de una casa. Planta.

Coliseo o anfiteatro Flavio



Apolodoro de Damasco:

Columna de Trajano

Columna de Trajano - Detalle.

Retrato de Augusto de Prima Porta

Maison Carrée

Basílica de Santa Sabina in Aventino

El acueducto de Segovia.

El acueducto de Segovia. Detalle.

Artea Erdi Aroan.

a) Artea erlijio handien zerbitzura. Kristautasuna eta Islama.

Santa Sofía de Constantinopla. Exterior.

Santa Sofía de Constantinopla. Interior.

Mezquita de Córdoba. Planta.

Mezquita de Córdoba. Interior.

Mezquita de Córdoba. Mihrab.

Mezquita de Córdoba. Cúpula.

b) Arte erromanikoa

Timpano de Saint Pierre de Moissac

Ábside de la iglesia de San Clemente de Tahull .

Ábside de la iglesia de San Clemente de Tahull. Detalle.

Cripta del monasterio de Leire

Cripta del monasterio de Leire. Detalle.

Frómista

Frómista. Planta.

Planta de la catedral de Santiago de Compostela



c) Arte gotikoa.

Iglesia de la abadía de Saint Denis

La catedral de León. Exterior.

La catedral de León. Interior.

Giotto: Abrazo ante la puerta dorada

Jan van Eyck: El matrimonio Arnolfini

Artea aro modernoan.

a) Errenazimentua.

Filippo Brunelleschi: Iglesia de San Lorenzo

Donatello: San Jorge

Brunelleschi: Cúpula de Santa Maria de Fiore.

Masaccio:

El tributo

La expulsión del paraíso.

Alberti: Fachada de Santa Maria Novella.

Botticelli: La primavera

Miguel Angel:

Capilla funeraria de los Médicis

Moisés

Capilla Sixtina

Leonardo da Vinci: La última cena

Tiziano: Dánae recibiendo la lluvia de oro

Universidad de Oñate. Exterior.

El Greco: El entierro del Conde de Orgaz



b) El Barrokoa

Peter Paulus Rubens: Descendimiento de la Cruz

Rembrandt: La ronda nocturna

Gian Lorenzo Bernini: Apolo y Dafne

Velázquez: Las Meninas

Jan Vermeer: Vista de Delf

Francesco Borromini: San Carlino alle Quattro Fontane

Francesco Borromini: San Carlino alle Quattro Fontane. Detalle.

Basilica de Loyola. Exterior.

Basilica de Loyola. Detalle.

Artea mundu garaikidean.

a) Pintura XIX. mendean

Jacques-Louis David: El juramento de los Horacios

F. de Goya: Los fusilamientos del 3 de mayo

T. Géricault: La balsa de la Medusa

Turner: El Temerario remolcado al dique seco

Mollet: El Angelus

G.Coubert: El estudio

Eduard Manet: Le déjeuner sur l'herbe

Claude Monet: Impression Soleil levant

Van Gogh: Los girasoles

Paul Cézanne: Los jugadores de cartas

Edvard Munch: El grito



b) Eskultura eta arkitektura XIX. eta XX. mendeetan.

Antoni Gaudí:

La Pedrera
La Sagrada Familia

Frank Lloyd Wright: La casa Kaufman

Le Corbusier: Villa Savoy

Auguste Rodin:

El beso
El pensador

Frank Gehry: Museo Guggenheim

Puente Bizkaia. Getxo-Portugalete

Ayuntamiento de San Sebastián. Exterior.

Chillida. El Peine del Viento

Oteiza. Friso de los Apóstoles. (Aranzazu)

c) XX. mendeko abangoardiak pinturan:

W. Kandinsky: Improvisación 28

Picasso:

Guernica
Les Demoiselles d'Avignon

Joan Miró: El bello pájaro que descifra lo desconocido a una pareja de enamorados

Jackson Pollock: Los postes azules

R.Zubiaurre: El marino vasco




V.Zubiaurre:


La merienda
Pescadores vascos

A.Arteta:

Layadores
Los descargadores


Europako, Espainiako eta Euskal Herriko Arte Museo eta Bilduma nagusiak.











































































































































Claude Monet. 78
























M·AGRIPPA·L·F·C·P·TERTIVM·FECIT



















































: VALENTIN DE ZUBAIRSE :









ARTEAREN HISTORIA



**25 URTETIK GORAKOENTZAT UNIBERTSITATERAKO
SARBIDE PROBAKO IRUDIAK**

Anavissos-eko “Kouros”



- ***Grezia. Eskultura.***
- *Garai arkaikoa.*
(K.a. 540-515).
- 194 cm. Marmola.
- Atenaseko Museo Arkeologiko Nazionalea.

Fidias: “*Panatenea jaietako prozesioa*”




- **Grezia. Eskultura**
- Garai klasikoa: V. mendea (K.a. 442-438)
- Marmola. Altuera: 102 cm.
- Partenoiaaren ekialdeko frisoaren erliebea.
- Louvre Museoa, Paris.

Ictinos eta Calicrates: “*Partenoia*” (1)



- ***Grezia. Arkitektura.***
- K.a. 447-437
- 30,88 x 69,50 m-ko estilobatoaren gainean. Zutabeen altuera: 10,43 m.
- Pentelico mendiko marmola.
- Atenasko Akropolian kokatua.

Ictinos eta Calicrates: “Partenoia” (2)




- **Grezia. Arkitektura.**
- Fatxadaren xehetasuna.
- Partenoiaaren oinplanoa.



Polikleto: “*Doriforoa*”

- ***Grezia. Eskultura.***
- Garai klasikoa: V. Mendea (K.a. 450-440)
- 199 cm. Marmola.
- Brontzezko originalaren kopia erromatarra.
- Napoliko Museo Nazionale



Miron: “*Diskoboloa*”

- ***Grezia. Eskultura.***
- Garai klasikoa: V. mendea (K.a. 460-450)
- Kopia erromatarra.
- Marmola. 1,55 m.
- Museo Nazionale. Erroma.



Praxiteles: “Hermes”


- **Grezia. Eskultura.**
- *“Hermes, Dionisos haurrarekin”.*
- Garai klasikoa: IV. mendea (K.a. 350-330)
- 213 cm. Marmola.
- Museo Arkeologikoa, Olinpia.



Lisipo: “*Apoxiomenos*”

- ***Grezia. Eskultura.***
- Garai klasikoa: IV. mendea (K.a. 325-300)
- Marmola. 205 cm.
- Lisiporen brontzezko irudiaren kopia erromatarra.
- Vatikanoko Museoa, Erroma.

“Laokoonte eta bere semeak”




- ***Grezia. Eskultura.***
- *Agesandro, Atenodoro eta Polidoro: “Laokoonte eta bere semeak”.*
- Garai helenistikoa. K.a. I. mendea.
- Marmola. 242 cm.
- K.o. II. edo III. mendeko kopia erromatarra.
- Vatikanoko Museoa, Erroma.

“Atenea Nike Tenplua”



- ***Grezia. Arkitektura.***
- K.a. 427- 424
- Atenasko akropolia.

Etxe erromatarra. Atria. “*Compluvium*” (1)



“Koliseoa” edo “Flaviotarren Anfiteatroa”




- ***Erroma. Arkitektura***
- K.o. 72-80
- Harria, adreilua eta hormigoia.
- 48 m-ko altuera
- Erroma

“Trajanoren zutabea”



- **Erroma. Eskultura.**
- Trajanoren zutabeko erliebeak (xehetasuna)
- Damaskoko Apolodoro (K.o. 110-113)
- Altuera: 40 m.
- Trajanoren Foroa. Erroma




“Panteoia”. Agrippa/Adriano (1)




- **Erroma. Arkitektura**
- Agripparen Panteoia (barruko aldea)
- Diametroa: 43,5 m.
- Altuera: 43,5 m.
- Erroma

“Panteoia”. Agrippa/Adriano (2)



- Kanpoko alde eta oinplanoa.
- Agripa kontsularen aginduz eraikia, Augustoren agindupean, K.a. 27. urtean.
- Adrianoren garaian zaharberritua, II. mendearen hasieran.

“*Prima Portako Augustoren erretratu*”



- ***Erroma. Eskultura***
- K.o. 20. urtearen inguruan
- Altuera: 2,04 metro
- Marmola eta polikromia arrastoak.
- 1863an aurkitu zen, *Villa Livian*, garai hartan *Prima Porta* (Erroma) deitutakoan
- Vatikanoko Museoa, Erroma

“Maison Carrée”



- **Erroma. Arkitektura**
- *Maison Carrée*. Nîmes (Frantzia).
- K.a. I. mendea.
- Erlijio-arkitektura publikoaren adibidea.
- Oinplano laukizuzena.
- Tenplua podio baten gainean ezarrita dago.
- Sarrera bakarra du, aurreko aldeko fatxadan.
- Zutabe korintoarrak.

“Santa Sabina in Aventino Basilika”



- ***Arte paleokristaua. Arkitektura.***
- Erroma. 422-432
- V. mendean eraiki ziren basilika guztien eredua izan zen hau.

“Segoviako akueduktua”



- ***Erroma. Arkitektura.***
- II. mendea.
- Altuera maximoa: 28,5 m.; luzera: 958 m.
- Zutabez eutsitako bi arku-ordena ditu. Guztira 167 arku dira.
- Harlanduak kareorerik gabe, hutsean, ezarritakoak dira.

“Konstantinoplako Santa Sofia” (1)




- **Arte bizantziarra.**
Arkitektura
- VI. mendea (532-537)
- Tralles-ko Artemio eta Mileto-ko Isidoro
- Oinplanoa: 79,30 x 69,50.
- Kupula: 56 m-ko altuera eta 31 m-ko diametroa.
- Istanbul

“Konstantinoplako Santa Sofia” (2)



- (Barruko aldea)
- Kupula petxinen gainean.
- Apainduretan oso aberatsa: marmol zuria, zutabeetan porfido gorria, urrezko azpiko aldearen gainean mosaikoak.

“Kordobako Meskita” (1)





- **Arte musulman hispaniarra**
- *Kordobako Meskitaren* oinplanoa (785-987):
 - 1: Abd al-Rahman I.aren hasierako nukleoa (768-788).
 - 2: Abd al-Rahman II.aren handitzea (833-848).
 - 3: Al-Hakam II.aren handitzea (961-966)
 - 4: Almanzor-en handitzea (987-990).

“Kordobako Meskita” (2)



- Otoitzen gela (*haram*).
- Gainezarritako pilareaz eta zutabeaz osatutako euskarria.
- Arkuteria bikoitza: behekoa ferra-formakoa eta goikoa erdi-puntukoa.

“Kordobako Meskita” (3)




- Meskitako *Mihrab*-a.
- *Mihrab*-a estaltzen duen kupularen barruko aldea. Giltzarririk gabe elkar gurutzatutako zortzi arkuz osatua.

“*Saint Pierre de Moissac klaustroaren tinpanoa*”



- ***Erromanikoa. Eskultura.***
- XII. mendeko lehen herena.
- 5,68 m-ko diametroa.
- Moissac (Frantzia).

Sant Climent de Taüll elizaren absidea (Lleida)




- ***Erromanikoa. Pintura***
- XII. mendearen lehen erdia
- Egile anonimoa
- Freskoa eta tenpera.
- Museu Nacional d'Art de Catalunya. Bartzelona.

Leireko monasterioaren kriptak (Nafarroa)




- ***Erromanikoa. Arkitektura.***
- Leireko San Salvador Monasterioa (Nafarroa). Kriptak (XI. mendea).
- Erromanikoaren hastapenekoak. Arku estuak, gainjarriak eta mailakatuak, inpostak dira apaindura bakarrak eta alakatutako arkiboltaren antzeko bat du.

“Fromistako San Martin”



- **Erromanikoa.**
Arkitektura
- Fromistako San Martin (Palentzia)
- XI. mendea
- Hiru nabedun basilika-oinplanoa.
- Bi dorre zilindriko ditu fatxada nagusian.
- Zinborio oktagonala.

“Konpostelako Santiagoren Katedraleko oinplanoa”



- ***Erromanikoa. Arkitektura.***
- XI-XII. mendeak
- Erromesaldi-erromanikoa.
- Gurutze latinoaren itxurako oinplanoa, hiru nabe ditu, girola, kapera absidialak eta erdialdean zinborioa.

“Saint Denis abadiaren eliza”



- **Gotikoa. Arkitektura**
- Saint Denis abadiaren eliza. Paris.
- Gotiko primitiboa.
- XII. mendea (1140-1150)
- Suger abadearen agindupean eraikia.
- Girolaren ikuspegia.

“Leongo katedrala”



- **Gotikoa. Arkitektura**
- Enrique Maisua
- XIII. mendearen 2. erdia
- Kanpoko eta barruko aldeetako ikuspegiak
- Kolore askoko beirateak

Giotto: “Urrezko atearen aurreko besarkada”



- **Gotikoa. Pintura. Italia. XIII-XIV. mendeak. Florentziako eskola.**
- “Urrezko atearen aurreko besarkada” (1303-1305).
- *Egilea: Giotto di Bondone.*
- Fresko-pintura (200x185 cm)
- Scrovegni kapera. Padua. (Italia)



Jan van Eyck: “Arnolfini senar- -emazteak”

- **Gotikoa. Pintura. XV. mendea. Gotiko flandestarra**
- Lehen Herena (Hastapenekoak)
- “Arnolfini senar-emazteak” (1434).
- Egilea: *Jan van Eyck*
- Ohol gaineko olio. (81,8 x 59,7 cm)
- The National Gallery. Londres. Ingalaterra.

Filippo Brunelleschi: “*San Lorenzoren eliza*”



- ***Errenazimendua. Italia. Quattrocentoko arkitektura***
- San Lorenzoren elizako barruko aldea (Florentzia).
- 1420-1428
- Egilea: Filippo Brunelleschi (1377-1446)



Donatello: “*San Jorge*”

- **Errenazimentua. Italia. Quattrocentoko eskultura.**
- “*San Jorge*”
- 1415-1417 ingurukoa.
- Marmola. Altuera: 209 cm.
- Museo nazionale del Bargello, Florentzia.
- Egilea: “*Donatello*”, Donato de Niccoló de Betto Bardi-ren ezizena (1386-1466)

Brunelleschi: “*Santa Maria del Fiore-ren kupula*”



- ***Errenazimentua. Italia. Quattrocentoko arkitektura.***
- Santa Maria del Fiore-ren kupula. Piazza del Duomo (Florentzia).
- 1420-1436
- Adreilua, harria eta marmola.
- 100 m-ko altuera barruan; 105,5 m-ko altuera kanpoan; 41 m-ko diametroa barruan; 45,5 m-ko diametroa kanpoan.
- Egilea: *Filippo Brunelleschi* (1377-1446)

Masaccio: “Tributua”



- **Errenazimentua. Quatrocentoko pintura.**
- “Txanponaren tributua” (1424-1425).
- Horma gaineko freskoa. 255 x 598 cm.
- Egilea: *Masaccio* (Tommaso Cassai) (1401-1428)
- Brancacci-ko kapera. Santa Maria del Carmine. Florentzia. Italia.



Masaccio: “Paradisutik kanporatzea”

- **Errenazimentua. Quattrocentoko pintura.**
- “Adam eta Eva Lurreko Paradisutik kanporatzea” (1424-1425).
- Horma gaineko freskoa. 208x88 cm.
- Egilea: *Masaccio* (Tommaso Cassai) (1401-1428)
- Brancacci-ko kapera. Santa Maria del Carmine. Florentzia. Italia.

Alberti: “*Santa Maria Novella-ren fatxada*”




- **Errenazimentua. Italia. Quattrocentoko arkitektura.**
- *Santa Maria Novella-ko fatxada (1456-1470). Florentzia.*
- Bi koloretako marmolezko inkrustazioak.
- Egilea: Leon Battista Alberti (1404-1472)

Botticelli: "*Udaberria*"



- **Errenazimentua. Italia. Quatrocentoko pintura.**
- "*Udaberria*" (1480-1482). Ohol gaineko tenpera. (203 x 314 cm.)
- Uffizitarren galeria. Florentzia. Italia.
- Egilea: *Botticelli* (Alessandro di Mariano di Vanni Filipepi) (1445-1510)

“Medicitarren hil-kapera”




- **Errenazimentua. Italia. Cinquecentoko eskultura.**
- Julian Medici-ren hilobia (1520-1534).
- Marmola.
- Florentziako San Lorenzo elizako Sakristia Berria.
- Egilea: *Migel Anjel* (Michelangelo Buonarroti) (1475-1564)

Migel Anjel: “Moises”




- ***Errenazimentua. Italia. Cinquecentoko eskultura***
- “Moises” (1515-1516)
- Karrarako marmola. 2,35 m.
- Julio II. Aita Santuaren hilobiko figura nagusia, San Pedro in Vincoli elizan, Erroman.
- Egilea: *Migel Anjel* (Michelangelo Buonarroti) (1475-1564)

Migel Anjel: “Sixtotar Kapera”



- **Errenazimentua. Italia. Cinquecentoko pintura.**
- “Adamen sorrera”. 1510.
- Freskoa. 280 x 570 cm.
- Sixtotar Kapera. Vatikanoa. Erroma.
- Egilea: *Migel Anjel* (Michelangelo Buonarroti) (1475-1564).

Leonardo da Vinci: “Azken Afaria”



- ***Errenazimentua. Italia. Cinquecentoko pintura.***
- “Azken Afaria” (1495-1497). Freskoa. 460 x 880 cm.
- Santa Maria delle Grazie Komentuko jangela. Milan. Italia.
- Egilea: Leonardo da Vinci (1452-1519)

Tiziano: “*Danae urrezko euria jasotzen*”



- ***Errenazimentua. Manierismoa. Pintura.***
- “*Danae urrezko euria jasotzen*” (1553).
- Oihal gaineko olioia. 129 x 180 cm.
- Museo del Prado. Madril. Espainia.
- *Egilea: Tiziano Vecellio di Gregorio*

“Oñatiko Unibertsitatea”



- **Errenazimentua.**
Arkitektura. Euskal Herria.
- Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatearen fatxada nagusia (Gipuzkoa)
- 1543. urtean hasi ziren eraikitzen, eta Domingo de la Carrera hargintza-
-maisua eta Pierre Picart eskultoreak parte hartu zuten.
- Erdiko klaustroan artikulatutako oinplano karratua du. Fatxada nagusiaren ertzetan bi dorre ditu, eta eraikinak baino solairu bat gehiagokoak dira.

El Greco: “Orgazeko Kondearen hilobiratzea”



- ***Errenazimentua/Manierismoa. Pintura. XVI. mendea. Espainia.***
- “Orgazeko Kondearen hilobiratzea” (1586-1588).
- Oihal gaineko olioia. 480 x 360 cm.
- Santo Tome eliza. Toledo.
- Egilea: *El Greco* (Domenikos Theotokopoulos) (Kreta, 1540-Toledo, 1614)

Rubens: “Gurutzetik eraistea”



- **Barrokoa. Pintura flandestarra. XVII. mendea**
- “Gurutzetik eraistea” (1611-1614).
- Triptikoaren erdiko taula.
- Taula gaineo olioa. 421 x 321 cm.
- Notre Dame Katedrala, Anberes. Belgika.
- Egilea: Peter Paulus Rubens (1577-1640)

Rembrandt: “Gaueko erronda”



- **Barrokoa. Pintura. Eskola holandarra.**
- “Gaueko erronda” .
"Frans Bannig Cocq Kapitainaren konpainia" izenarekin ere ezagutzen da (1642).
- Oihal gaineko olioa.
363 x 437 cm.
- Rijksmuseum.
Amsterdam. Holanda.
- Egilea: Harmennsz van Rijn *Rembrandt* (1606-1669).

Bernini: “*Apolo eta Dafne*”



- ***Barrokoa. Eskultura. Italia.***
- “*Apolo eta Dafne*” (1622-1625).
- Marmola, 2,43 m-ko altuera.
- Borghese Galeria. Erroma.
- Egilea: Gian Lorenzo *Bernini* (1598-1680)

Velázquez: “Meninak”



- **Barrokoa. Pintura. Espainia.**
- “Meninak”. (1656).
- Oihal gaineko olioa. 318 x 276 cm.
- Museo del Prado. Madril. Espainia.
- Egilea: Diego Rodríguez de Silva y Velázquez (Sevilla, 1599 – Madril, 1660)

Jan Vermeer: “*Delft-eko ikuspegia*”




- **Barrokoa. Pintura. Eskola holandarra.**
- “*Delft-eko ikuspegia*” (1660-1661).
- Oihal gaineko olioa. 96,5 x 115,7 cm.
- Mauritshuis Museoa. Haga. Holanda.
- Egilea: Jan *Vermeer* de Delft (1632-1675)

Borromini: “*San Carlino alle Quattro Fontane*”



- **Barrokoa. Arkitektura. Italia.**
- *San Carlino alle Quattro Fontane.* (1634-1691). Erroma.
- Egilea: Francesco *Borromini* (1599-1667).

“Loiolako Basilika”



- **Barrokoa. Arkitektura. Euskal Herria.**
- Loiolako Santutegiaren kanpoko aldea (1681-1738). Azpeitia. Gipuzkoa.
- Erromako *Carlo Fontana* arkitektuaren planoetan oinarrituta eraikitakoa.
- Kupularen altuera 60 m-koa da.

David: “Horazioen juramentua”



- **Neoklasikoa.**
Pintura.
- “*Horazioen juramentua*” (1785).
- Oihal gainekeo olioia.
330 x 425 cm.
- Louvre Museoa,
Paris.
- Egilea: Jacques-
Louis *David* (1748-
1825)

Goya: “Los fusilamientos del 3 de mayo”




- **Neoklasizismoa/ Erromantizismoa. Pintura. Espainia.**
- “Los fusilamientos del 3 de mayo en Madrid”. (1814). “Los fusilamientos en la montaña de Príncipe Pío” izenarekin ere ezagutzen da.
- Oihal gaineko olioa. 266 x 345 cm.
- Museo del Prado, Madril.
- Egilea: Francisco de Goya (1746-1828).

T. Géricault: “*Medusaren baltsa*”



- ***Erromantizismoa. Pintura.***
- “*Medusa fragataren hondoratzea*” (1819).
- Louvre Museoa. Paris.
- Oihal gaineko olioa. 491 x 716 cm.
- Egilea: Théodore Géricault (1791-1824).

Turner: “*Temerario ontzia dike lehorrera eramana*”



- **Erromantizismoa. Pintura.**
- “*Temerario ontzia dike lehorrera eramana*” (1838).
- Oihal gaineko olioa. 91 x 122 cm.
- National Gallery, Londres.
- Egilea: Joseph Mallord William Turner 1775-1851)

Millet : “Angelusa”



- **Errealismoa. Pintura.**
- “Angelusa” (1857-59).
- Oihal gaineko olioa.
55.5 x 66 cm.
- Louvre Museoa, Paris.
- Egilea: Jean-Francois Millet (1815-1875)

G. Courbet: “*Estudioa*”




- ***Errealismoa. Pintura.***
- *“Margolariaren estudioa; Alegoria egiazkoa”* (1855).
- Oihal gaineko olioa. 361 x 598 cm.
- Louvre Museoa, Paris.
- Egilea: Gustave Courbet (1818-1877)

Eduard Manet: “*Le déjeuner sur l'herbe*”



- **XIX. mendea.**
Inpresionismoa
- “*Landako bazkaria*” (1863).
- Oihal gaineko olioa. 208 x 264 cm.
- D’Orsay Museoa. Paris. Frantzia.
- Egilea:
Edouard Manet (1832-1883)

Claude Monet: “*Impression. Soleil levant*”



- **XIX. mendea.**
Inpresionismoa
- “*Inpresioa, eguzkia sortzen*” (1872).
- Oihal gaineko olioa. 48 x 64 cm.
- Pariseko Marmottan Museoa. Paris. Frantzia.
- Egilea:
Claude Monet (1840-1926)

Van Gogh: “Eguzkiloreak”




- ***XIX. mendea.***
Postinpresionismoa
- “*Eguzkiloreak*” (1888).
- Oihal gaineko olioa. 93 x 73 cm.
- National Gallery.
Londres. Ingalaterra.
- Egilea:
Vincent Van Gogh
(1835-1890).

Paul Cézanne: “Karta jokalariak”



- **XIX. mendea.**
Postinpresionismoa.
- “Karta jokalariak” (1890-1892).
- Oihal gaineko olio. 47,5 x 56 cm.
- D’Orsay Museoa. Paris. Frantzia.
- Egilea:
Paul Cézanne (1839-1906)

Edvard Munch: “*Garrasia*”



- ***XX. mendea.***
Abangoardia Historikoak.
Espresionismoa.
- “*Garrasia*” (1893).
- Olioa, tenpera eta pastela kartoaren gainean. 89 x 73,5 cm.
- The National Gallery. Oslo. Norvegia.
- Egilea:
Edvard Munch
(1863-1944).

Antoni Gaudí: “La Pedrera”




- ***XX. mendea. Modernismoa. Arkitektura.***
- ***“La Pedrera” (Milà Etxea), Bartzelona.***
- ***1906 -1910.***
- ***Egilea: Antoni Gaudí (1852-1926)***

Antoni Gaudí: “*La Sagrada Familia*”



- ***XX. mendea.***
Modernismoa.
Arkitektura.
- “*La Sagrada Familia*”.
Bartzelona.
- 1906 -1910.
- Egilea:
Antoni Gaudí (1852-
1926)

Frank Lloyd Wright: “*Kaufman etxea*”



- ***XX. mendea. Arkitektura. Organizismoa.***
- “*Kaufman etxea*” (*Urauzidun Etxea*). (1936-1939).
- Bear Run, Pennsylvania.
- Egilea:
Frank Lloyd Wright (1869-1959).

Le Corbusier: “Villa Savoye”



- **XX. mendea. Arkitektura. Arrazionalismoa. Funtzionalismoa.**
- “Villa Savoye”. 1928-1931. Poissy (Frantzia).
- Egilea: Charles-Edouard Jeanneret, ezizena: Le Corbusier (1887-1965).

Rodin: “Musua”



- ***XIX. mendea. Inpresionismoa. Eskultura.***
- “Musua” (1886).
- Marmola. 190 x 120 x 115 cm.
- Rodin Museoa, Paris.
- Egilea:
Auguste Rodin (1840-1917).

Rodin: “*Pentsalaria*”



- ***XIX. mendea. Inpresionismoa. Eskultura.***
- “*Pentsalaria*”. (1880)
- Brontzea. 1,98 x 1,34 m.
- Rodin Museoa, Paris.
- Egilea:
Auguste Rodin (1840-1917)

Frank Gehry: “Guggenheim Museoa”



- ***XX. mendea. Mendearen amaierako arkitektura. Joera dekonstruktibista***
- “Guggenheim Museoa”. 1997. Bilbo. Titanioa, beira eta kareharria.
- Egilea: Frank O. Gehry

“Bizkaiko Zubia”



- ***XIX. mendea.
Burdinezko
arkitektura.***
- *“Bizkaiko zubia”
(1890-1893).
Portugalete-Getxo*
- *Zubi
trasbordadorea
eta esekia.*
- *Egileak:
Alberto de
Palacio
Fernando
Arnodín*

“Donostiako Udaletxea”



- ***XIX. mendea.
Arkitektura.
Historizismo
eklektikoa. Diseinu
errenazentista.***
- “*Gran Casinoa*”. (1882-1887).
- Gaur egun Donostiako Udaletxea.
- Egileak:
Luís Aladrén eta Adolfo Morales.

Chillida: “*Haizearen orrazia*”



- ***XX. mendea.***
Eskultura.
Euskal Eskola.
- “*Haizearen orrazia*”.
1977. Ondarretako hondartza. Donostia.
- Reco altzairua. 215 x
177 x 185 cm.
- Egilea:
Eduardo Chillida
(1924-2002).

Oteiza: “*Apostoluen frisoa*”




- ***XX. mendea. Eskultura. Euskal Eskola.***
- “*Apostoluen frisoa*”. (1950-1954)
- Arantzazuko Basilika. Oñati. Gipuzkoa.
- Egilea: Jorge Oteiza (1908-2003)

W. Kandinsky: “28. Inprobisazioa”



- **XX. mendea.**
Transabangoardia.
Abstrakzioa
- Espresionismo
Abstraktua
- “28. Inprobisazioa”
(1912).
- Oihal gaineko olioia.
111,4 x 162,1 cm.
- Solomon R.
Guggenheim
Museum. New York.
EEBB.
- Egilea:
Wassily Kandinsky
(1866-1944)

Picasso: “Guernica”




- **XX. mendea. Pintura. Abangoardia Historikoak. Espresionismoa.**
- “Guernica”. 1937. Oihal gaineko olioia. 7,82 x 3,51 m.
- Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía. Madril.
- Egilea: Pablo Ruiz Picasso (1881-1973).

Picasso: “*Les demoiselles d’Avignon*”



- ***XX. mendea. Pintura. Abangoardia Historikoak. Kubismoa.***
- “*Les demoiselles d’Avignon*”. 1907.
- Oihal gaineko olio. 2,43 x 2,33 m.
- Arte Modernoaren Museoa. New York.
- Egilea: Pablo Ruiz Picasso (1881-1973).

Joan Miró: “El bello pájaro que descifra lo desconocido a una pareja de enamorados”



- **XX. mendea. Pintura. Abangoardia Historikoak. Surrealismo abstraktua.**
- “El bello pájaro descifrando lo desconocido a una pareja de enamorados”
- 1941. 46 x 38 cm.
- Arte Modernoaren Museoa. New York. EEBB.
- Egilea:
Joan Miró (1893-1983)

Jackson Pollock: “Zutabe urdinak”



XX. mendea. Transabangoardia. Abstrakzioa. Espresionismo abstraktua.


- *“Zutabe urdinak: 11. zenbakia”*. 1952.
- Esmaltea eta aluminio eta beirazko pintura oihalean. 212,9 x 488,9 cm. Australiako Galeria Nazionala. Canberra.
- Egilea: Jackson Pollock (USA,1912-1956)

R. de Zubiaurre: “*El marino vasco*”



- **XX. mendea.**
Pintura.
Abangoardia
Historikoak/Errealis
moa
- “*Familia de pescadores*”
- Arabako Arte Ederren Museoa.
- Egilea:
Ramón de Zubiaurre
(1882-1969)

V. de Zubiaurre: “*La merienda*”




- **XX. mendea.**
Abangoardia
Historikoak/Errealis-
moa.
- “*La merienda*”
- Oihal gaineko olioa
67 x 88 cm.
- Egilea:
Valentín de Zubiaurre
(1879-1963)

V. de Zubiaurre: “Pescadores Vascos”




- **XX. mendea. Abangardia Historikoak. Errealismoa.**
- “Pescadores Vascos”. (1930)
- Oihal gaineko olioa. 0,91 x 0,92 cm.
- San Telmo Museoa. Donostia.
- Egilea: Valentín de Zubiaurre (1879-1963)

A. Arteta: “*Layadores*”



- ***XX. mendea. Abangoardia Historikoak. Errealismoa.***
- “*Layadores vascos*”.
- Olioa. 120 x 83 cm.
- Arte Ederren Museoa. Bilbo.
- Egilea:
Aurelio Arteta (Bilbo, 1879 - Mexiko, 1940)

A. Arteta: “Los descargadores”



- **XX. mendea. Abangoardia Historikoak. Errealismoa**
- “Los descargadores”
- Freskoa. Banco de Bilbao. Madril.
- Egilea: Aurelio Arteta (Bilbo, 1879 -Mexiko, 1940)